

Joseba Aurkenerena Barandiaran  
atso herrenak dabiltz





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

**atso herrenak dabiltz**

Iturri eta erreketako uretan  
bizi diren azken laminei,  
historiaren oihartzunetan  
galdurik, oraindik fusila tinko  
heltzen duten euskal soldadu karlistei,  
kontrabandoari esker  
euren sendiak aitzina  
atera zituzten gizon gartsuei,  
lubakietan euskal lurra  
defendatzen, beren odola  
isuri zuten gudariei;  
zuei esker,  
mapetatik desagerrarazi  
nahi duten Euskal Herria  
izan bada-eta.

## **AURKIBIDEA**

EDU ZABALAREN HITZAURREA

EGILEAREN HITZAURREA

IRULEA ETA KATU BELTZA

FRAIDE-ZALDUNAREN GUTUNA

JOHAINA LARRAINEKO ETA IRELTSOA

SOROHANDIETAN BEHIN

ZIBURUKO BALEZALEAREN IBILERAK

PELLOT KAPITAINA ETA DIAMANTEAREN MADARIKAZIOA

BOLUNTARIO KARLISTAK SAGARDOTEGIAN

PILOTARI MALTZURRAK

IRUÑEKO APAIZGAITEGIKO HILKETAK

MENTABERRI KAPITAINA ETA NAZIAK

KONTRABANDISTA ETA KARABINEROA

DEABRUA TEILATU GAINEAN

ARGIAREN IKUSKATZAILEA

JOXE BAZTANDARRA MADRILERAKO TRENEAN

APAIZ PILOTARIEN MARTINGALA

ATSO HERRENAK DABILTZ

AITATXI SATURREN AZKENA (EDOTA ABSURDUAREN INDARRA)

LURPEKO APARKALEKUA

OTSATEKO MISTERIOAREN ZIRIMOLAN

SAN FERMIN EGUNEKO METEORITOA

## EDU ZABALAREN HITZAURREA

Josebak berak dioen bezala, liburu honetan ibilaldi literarioa egiten du gertakizun, kontakizun, ipuinen munduan barrena, bai denboran bai kokapenean. Horren aitzakiaz bere figura zertxobait gehiago ezagutzeko probestuko dut.

Herri literaturari oso lotuta dagoen idazle aberatsa eta ugaria dugu Joseba donostiarra, Euskal Herri osoaren mitoen jarraitzaile eta aditua, besteak beste. “Herritik jaso herriari itzultzeko” filosofian barneratua, literatura du bere komunikazio tresna indartsuena, baina ez bakarra; horren harira esan behar da bere parte hartzea nabarmena dela bestelako euskal komunikabideetan, bai interneteko hainbat ataritan (Kazeta.info, Elinberri, ZUZEU...) eta baita herri antzerkietan ere, adibidez egun bizi den Urruñako kabalkadan; horietaz gain, ibilbide oparoa du Iparraldeko kronista gisa eta antzerki bildumetan.

Bukatzeko, berriro itzuliko naiz ‘Sorgin mainguak dabiltz’ liburuaren itzalera, eta ‘Sorohandietan behin’ ipuina parafraseatuz zera proposatzen dizuet: ez diezaiogun utzi zorioneko globalizazioaren eta erdaren suge lodiari gure kultura, hizkuntza eta sena zurrupatzen, bestela galduak gara. Joanes bezala, Joseba bezala, adi manten gaitezen gure unibertso txiki eta aberats hau jorratzen, luma esku batean eta jakintzaren aizkora zorrotza bestean.

Josebaren liburuaren laguntzarekin, izan gaitezen sorgin eta azti sasi guztien gaineratik...

## EGILEAREN HITZAURREA

Adio irakurle, berriro hemen naukazu ipuin kontalari. Bizitza honetan beti izan dira ipuin bihur daitezkeen pasadizoak, eta beti esaten dudanean esan nahi dut: herenegun, atzo gaur, bihar, etzi eta etzidamu; betiro baita zer kontatu. Eta horrela izan da, da eta izanen da herri eta kultura guztietan, mundu zabalean, alegia.

Haatik, liburu honetan topatuko dituzun ipuinak Euskal Herrian kokatuak dira, horixe baita nik hobekien ezagutzen dudana esparru naturala, eta horixe baita nire bihotzaren barruan dautzan herri eta kultura. Denboraren aldetik, berriz, tarte zabala aukeratu dut ipuinen garapenerako. Badira Erdi Aroan kokaturiko ipuinak, 1936ko gerra madarikatuan jorratutakoak, II. Mundu Gerlaren garaikoak, gerra ostekoak, gaur egungoak... eta baita biharko egunean koka ahal izanen genukeena.

Gaien eta pertsonaien aldetik, badut zer esan, gehien-gehienak gure historiaren pasarteetan, gure mito zahar eta modernoetan, gure mitologiaren mundu magikoan edota gure herri xehearen bizimodu eta ametsetan garatu baititut. Gehienak nire sormenetik jaioak badira ere, badituzu irakurle, hemen, hor eta han entzundako kontakizunetatik eta pasadizoetatik egin ditudan moldapenak ere.

Eta orain, ahantz itzazu denbora batez eguneroko arazoak eta kalapitak, eta barnera zaitetz horren gurea den baserritarren, fraide-zaldunen, apaizen, ireltsoen, soldadu karlisten, pilotarien, arrantzaleen, kontrabandisten eta sorginen munduan. Euskal Herriko edozein bazterretan, gaur atzo bezala, ATSO HERRENAK DABILTZ(a) kantari!

## IRULEA ETA KATU BELTZA

Urruñako Iguzkiagerre baserrian senar-emazte zaharrak bizi ziren. Zortzi seme-alaben gurasoak ziren, baina gauza batzuegatik eta besteengatik, den-denak etxetik kanpo eta urrun bizi ziren. Baserritarrak izaki, lan handia egiten zuten euren bizia aurrera ateratzeko. Egunez baratzeko eta aziendako lanak, gauetz etxeko lanak. Emaztea oso berandu arte gelditzen zen iruten, garai hartan baserri gehienetan egiten zen bezalaxe. Horretan aritzen zela katu beltz bat sartzen zitzairen etxera eta sukaldean zeukaten guztia jan egiten zien. Alferrik aritzen zen Margarit etxeko andrea izutu eta bidali nahian, katu ez baitzen izutzen eta gainera petral jarriz gero aurre egiten zion. Horietako gau baten hurrengo egunean Margarit horrela esan zion senarrari:

- Bai Joanes, gaur ere katu beltza etorri zaigu ni iruten ari nintzela, eta harrapatu duen guztia jan digu.
- Baina Margarit, ez al diozu zapi egiten?
- Bai horixe, baina ez da bat ere izutzen, eta gehiegi hurbiltzen natzaionean, basapiztia baino okerrago jartzen zait. Horrelakoetan beldurgarria da oso.

Azkenean Joanesek gertatzen zitzaienaz aspertuta burutazio bat eduki zuen arazo harekin bukatzeko. Emaztearen arropaz jantzi zen eta ilunabarrean iruten gelditu zen etxeko sukaldean, bere andreak gauero egiteko ohitura zuen bezala. Handik zenbait ordutara katu beltza agertu zitzaion mauka.

- Mauuuu! Mauuu!

Joanesek ez zuen tutik ere esan eta iruten jarraitu zuen. Katua hurbildu egin zitzaion eta arropatik ateratzen zitzaizkion esku zarpailak ikustean horrela esan zion:

- Gizon bat iruten?

Eta Joanesek erantzun:

- Katu bat hitz egiten?



Eta hori esanda, arropen artean zeukan aizkora atera eta zartako batez burua moztu zion katuari. Katu beltza zerraldo erori zen lurrera odol putzu batean. Momentu horretan zelatan zegoen emaztea bere ezkutalekutik irten zen kontent eta zoriontsu.

- Akabo katu lapurra! – esan zion senarrari pozaren pozez.
- Hala bedi! – ihardetsi zion senarrak, katuaren gorpua behatuz.

Baina momentu hartan, eta senar-emazteen begi harrituden aurrean, katu beltzaren hilotza aldatzen hasi zen, eta zenbait minuturen ondoren gizon baten itxura hartu zuen. Margari gorpua zegoen tokira hurbildu eta atsekabe handiz horrela esan zion senarrari:

- Eneee Joanes! Patziku da, ondoko baserriko mutilzahar gaiztoa!

Aspalditik zeuzkaten susmo txarrak Patzikutaz, lan handirik egin gabe beti sabela aski ase ikusten baitzuten, baina horrenbesteko kontua ez zuten inolaz ere espero. Ez dezagun ahantzi askotan errealitatea susmo txar guztiak baino askoz gordinagoa dela.

## FRAIDE-ZALDUNAREN GUTUNA

Jaun Salbatore Izpurakoa nauzue, Rodasko zaldun nafarra, hau da, Jerusalemeko San Joan Ospitaleko Ordenako fraide gerlaria. Biziki gaztea nintzelarik Lapurdiko kostaldera hurbildu nintzen lan bila eta Baionako portuan ainguraturik zegoen merkatari itsasontzi batean engaiatu nintzen marinel gisa. Patuak eta gure Jesukristo handiaren nahiak Txipre uhartera eraman zuten gure ontzia eta han Jaungoikoa eta lagun-hurkoa zerbitzatzeko pronto zegoen Ospitaleko Ordenako fraide gerlariak ezagutu nituen. Soingaineko beltzean gurutze zuria zeramaten eta gerrikoan ezpata dotore galanta. Gurutzea eta ezpata, bai, biak uztartzen zituzten monje haiek. Ikuste hutsak erabat liluratu ninduen, ontzitik alde egin eta zaldun beltz haiekin batera abiatu nintzen. Sekula ez naiz damutu erabaki hura hartu izanaz.

Preso naukaten ziega honetan, gosez, egarriz eta hotzez akabatzen ari nauten arren, harro daramat nire bihotzean Ospitaleko fraideen gurutze zuria eta hor izanen da nire azken hatsa eman arte. Nire bizitza osoa eman dut Ordenaren alde eta Heriok eramaten nauelarik ere, Ospitaleko fraide izanen naiz.

Txipren zenbait urte egin nituen fraide baten ezkutari gisa eta hemeretzi urterekin Rodas uhartera eraman ninduten. Irla hartan zegoen Ordenaren agintaritza nagusia, eta bizpahiru urte bertan eman ondoren, Rodasko zaldun egin ninduten, hau da Ospitaleko Ordenako fraide-zalduna. Orduz geroztik gurutze zuridun soingaineko beltzaz jantzi izan naiz eta gerrikoan fraide gerlarien ezpata eraman izan dut.

Nafarra nintzenez, Izpura herrikoa, Priore Handiak Ordenak Donibane Garazin zeukan San Joan Zaharreko kapera zaintzera bidali ninduen. Nirekin batera, beste bi zaldun euskaldun igorri zituzten: Joanes Barberena Donapaleukoa eta Piarres Urtsain Iruñekoa. San Joan Zaharreko kapera Garazi eskualdeko Donibane hirian zegoen, gaztelupean, karrika nagusitik oso gertu. Ez zen sobera handia, baina bai zinez ederra. Berari itsatsita, zaldunon etxea zegoen, hau da, urte luzetan gure bizileku goxoa izan zena. Bi solairuko eraikina zen eta bertan bizi ginen lehen aipaturiko hiru zaldunok eta gure ezkutariak. Nireak Martiniko izena zuen, Joanes

Baberena zaldunarenak Beñat eta Piarres Urtsainenak Firmin. Hiru serorek laguntzen ziguten: Inexa Etxebarne, Kattalina Bazterretxea eta Maddalena Medranok. Hiruak nafarrak eta giristino onak ziren.

Garaztarrek debozio handia zioten San Joan Zaharrari eta egunero hurbiltzen zitzaizkigun kaperan egiten genituen elizkizunetara. Urrutiagotik ere etortzen zitzaizkigun, hau da, Euskal Herriko bazter guztietatik eta baita atzerriko herri aunitzetatik ere. Erremusina ugari uzten zigutenez gero, gure bizimodua aski erosoan zen, eta urtero txanpon franko bidaltzen genuen Rodasko altxorra gizentzera. Herriak estimatzen gintuen eta guk herria zerbitzatzeko genuen gurutzeaz eta ezpataz.

Gure Jesukristoren 1512. urtean Gaztelako eta Aragoiko gudarosteak, inolako gerra deklaraziorik gabe, gure erresuman barna sartu ziren. Esku artean Aita Saindu berberak sinatutako bulda zeramaten, non Joan III. Albretekoa eta Katalina gure errege-erregina legitimoen alde borrokatzen zuen lagun oro preseski eskomikatzen zuen. Gure errege-erreginak higanotak (4) ziren, bai, baina ederki errespetatzen zituzten dotrina guztiak, inbaditzaile gaztelarrek egin ez zutena. San Joan Zaharreko kapera zaintzen genuen hiru zaldunok ez genuen nehoiz zalantza izpirik ukan, eta inbasioaren hastapenetatik leialtasuna erakutsi genien bai gure herriari eta bai erresumako benetako monarkei. Joan Albretekoak eta Katalinak Iruñetik alde egin behar izan zuten eta euren menpekoa zen Biarnon babesa bilatu.

Gaztelarrak Donibane Garazira hurbiltzean, herritar gehienek inguruetakoa mendietara jo zuten babesa bila. Gazteluan goarnizioa gotortu zen. Gu, borrokatzeko prest zeuden beste zenbait herritarrekin batera, kapera zaintzen geratu ginen. Inbaditzaileak suz eta odolez sartu ziren hiriaren kaleetan barrena, eta gurera iristean, Espainietako errege-erreginen izenean, errenditzeko agindua luzatu ziguten. Guk, nafarrak eta Ospitaleko Ordenako fraide-zaldunak ginela, eta bakar-bakarrik Nafarroako errege-erreginen eta Rodasko Priore Nagusiaren aginduak onartzen genituela jakinarazi genien. Etsaiaren erantzuna kapera hesitzea eta erasotzea izan zen. Bi egunez eta bi gauz defentsari eutsi genion, baina azken erasoaldia hurbil genuela sumatzean, gutun bat idazteari ekin genion. Bertan erresuman gertatzen ari ziren bidegabekeria guztien berri eman nahi genion Aita

Sainduari. Baina horren eskuetara iritsi zedin, guretako batek Erromaraino eramatea onena izanen zelakoan eramailea nor izango zen zotzetan erabaki genuen. Patuak ni aukeratu ninduen.

Setioaren hirugarren egunean, goiz-goizean, eraso egin ziguten. Suzko geziak bidez teilatuak erre zizkiguten. Keak arnasa hartzea eragozten zigun eta begiak erretzen. Ariete batez ate nagusiaren kontra jotzen hasi ziren. Atea birrindu ondoren kaperara sartu eta aurrez aurreko borrokaldiari ekin zioten. Han ikusi nituen banan-banan erortzen Joanes Barberena eta Piarres Urtsain zaldun bulartsuak, Martiniko, Beñat eta Firmin ezkutari gazteak eta bertze hainbat lagun adoretzu. Nik gibelaldeko leiho batetik alde egin nuen eta oinez Izpura herriko nire etxeraino joan nintzen. Bertan ezkutaturik hilabete pare bat egin ondoren, etxekoek emandako zaldian, lauhazka bizian, abiatu nintzen. Nire zakotean erresuman eta gure kaperan gertatutakoaren berri ematen zuen gutuna neraman. Frantziako erresuma zaldiz zeharkatu ondoren, Mediterraneoko itsasaldera iritsi nintzen eta hango zaldun-anaia batzuen laguntzaz, Erromarantz zihoan ontzian itsasoratu nintzen.

Itsasoz egindako bidaia gogorra eta luzea suertatu zitzaidan, baina azkenean, Erromara, Kristautasunaren hiri sakratura, iritsi nintzen. Zakotean gutuna neraman eta bihotzean justizia egiteko esperantza. Aita Sainduak gutun hura irakurrita, bere aliatu ziren espainiarrek gure erresuman eta kaperan egindako triskantza, hilketa eta bidegabekeriak jakinen zituen, jakinen eta zigorturen gainera; nafar higanotek nehoiz egin ez zutena, gaztelar katoliko haiek, Jainkoaren eta Aita Sainduaren izena lohituz, egin baitzuten. Jaungoikoaren mugagabeko justizia eta zuzentasuna iristear zeudelakoan, Aita Sainduaren hitzordua eskatu nuen.

Oraindino daukat gogoan berarekin elesta egin nuen egun hura. Zaindarien jauregiko ganbera handira gidatu ninduten eta Jesukristok lurrean daukan ordezkari handienari zor zaion begiruneaz, aitzinean belaunikatu nintzaion. Berak lehor horrela esan zidan:

- Zer dakarkidazu zaldun?
- Nafarroako erresuman sartu diren gaztelar bihozgabeek egindako triskantzen berri ematen duen gutuna. Basati odolzale horiek bortxatu, ebatsi eta hil egin

baitute inolako gupidarik gabe; nafar herritarrak sarraskitu dituzte eta elizak eta beste leku sakratuak profanatu eta erre. Horrelaxe egin zuten Ospitaleko Ordenak Donibane Garazin zeukan San Joan Zaharreko kaperarekin eta bertan erail zituzten bere zaldunak. Ni nauzu bizirik iraun duen bakarra. Gure kaperaren defentsan ez banuen bizitza eman izan zen berrorri gertatutako guztiaren berri ematen dion gutun hau beraren eskuetara helarazteko hautatua izan nintzelakoz. Har beza berorrek! – eta eskua luzatu nion gutuna har zezan.

Une haietan bihotza justizia ametsez gainezka neukan. Aita Sainduak gutuna eskutik hartu zidan, eta bere kadiratik altxatuz, honela erantzun zidan.

- Zinez, sentitzen dut kontatzen didazun guztia. Gure Jesukristo urrikalgarriari eskatzen diot jende horiei egindako bidegabekeriak barka ditzan. Baina jakin jakinen duzu Gaztela eta Aragoiko errege-erreginak kristau onak direla eta Nafarroakoak, berriz, higanot miserableak. Horixe da gerra horren arrazoia eta albetarrak dira kontatzen duzun guztiaren errudun bakarrak.

Eta gehiago esan gabe, ganbera berotzen zuen tximiniara hurbildu eta bertara, zabaldu gabe, urtuki zuen nik eramandako gutuna. Suak gutuna eta bihotzean neuzkan justizia-itxaropenak erre zituen.

- Baina, baina... zer egiten du berorrek? – esan nion oihuka amorruez beterik--- Jakin beza Nafarroako errege-erregina higanotek beti errespetatu dituztela katolikoen elizak. Nechoiz ez dugu inolako arazorik ukan beraren aliatuak diren gaztelar odoltsu horiek gure erresuman sartu arte. Madarikatua berorri eta beraren aliatu kriminal guztiak!

Aita Sainduak ez zuen bere hoztasuna galdu eta eman zidan arrapostua laburra bezain krudela izan zen:

- Eraman ezazue mendebaldeko dorreko ziega batera eta atxilo ezazue bertan urik eta jatekorik gabe, bere azken hatsa eman arte! Deabru txarrek eramanezaten infernuetara higanoten laguna den fraide-zaldun ustel honen arima eternitatean kiskal dadin!

Orduz geroztik, hemen naukazue ziega ilun eta zikin honetan. Dagoeneko ez dut inongo esperantzarik. Ordenako Priore Nagusiak ez daki hemen preso naukatenik, eta ezin izango nau zakur odolzale hauen eskuetatik libratu. Eta jakinen balu ere, ezingo ninduke libratu.

Nire begiek dagoeneko ez dute egunaren eta gauaren artean bereizten. Nire belarriek ez dute entzuten. Bitxia iduri baduzue ere, ez dut gosearen harrik sumatzen. Haatik, egarri naiz, eta eztarri idorra sutan daukat. Bihotza ere aski idorra daukat, ez baitut gizakiaren justiziaz sinisten. Urteak igaroko dira, mendeak agian, baina ziur naiz, azkenean, Jainkoak emango diola Euskal Herriari, gure nafar erresumari, inbaditzaile odolzaleek ostu dioten askatasuna; horixe zor baitio zeruetako Jaungoikoak gure herri gizagaixoari. Profanatzailleek odoleztatutako herriak libertatea ezagutuko du berriro. Horixe da bihotzean zimiko egiten didana. Ene buruaz, berriz, ez naiz oroitzen. Berantegi da! Berantegi eta alferrik! Jesukristo handiak eraman dezan berekin bere zaldun zerbitzari hau, besterik ez diot galdatzen. Jesukristo handiak eraman dezan berekin bere ....

Askatasun eguzkia basotik irten da  
bere argia edonon ari zabaltzen da.

## JOHAINE LARRAINEKO ETA IRELTSOA

Zuberoan gau guztiak ederrak badira ere, gau hura ederragoa zen, ezin ederragoa. Zohardi ederrak deiturik, Johaine Larraineko bere etxaldetik ilki zen. Barruan emaztea eta hiru seme-alabak zeuden, lauak lo. Argizagia zero goian zen, bete-betea, zuri-zuria, gaueko erregina zirudien. Ezker-eskuin, zeruko bazter guztiak betez, era eta neurri guztietako izar distiratsuak. Tarteka, izar ibiltari batek zerua, aldez alde, zeharkatzen zuen. Urruntasunean, zeruertza hornituz, Zuberoako, Biarnoko eta Nafarroako borthüak: Arlas, Ahüñemendi, Orhi, Betzüla, Erromendi, Organbidexka, Hirur Erregeen Mahaia, Txamantxoia, Lakora, Otsogorrigaina, Ahüski... Ederragorik!

Johaine artzaina zen eta eguneko lanak akiturik zeukan. Alabaina, oheratu aitzinetik, eta gaueroko ohiturari jarraiki, kanpo aldera atera zen Zuberoako zohardi ederraz gozatzerako. Horretan ari zela, kurrinka batek bere arreta bereganatu zuen. Kurrin-kurrin! Soinua hurbiletik zetorkion. Kurrinka entzun zuen tokirantz begiratu eta bertan, argitasun berezi batez inguratutako zerrikumea ikusi zuen. Ene, bere zerrietako bat ote? Baina argitasun hura...! Bitxia zen oso. Zerrikumeak kurrinka jarraitzen zuela ohartzean, Johaine berarengana abiatu zen harrapatu nahian.

- Haugi honat zerrikume, haugi honat! – esan zion, berehala harrapatuko zuelakoan.

Baina Johaineren deia entzutean, zerrikumeak burua biratu eta sasi artera sartu zen. Johaine ere, sasietera sartu zen eta handik zenbait metrotara zerrikumea ikusi zuen, beti argitasun berezi hartaz inguraturik.

- Hago hor geldirik, alua! Hago geldirik! – esan zion.

Baina alferrik, Johaineren eskura zegoela ematen zuen momentu berean, jauzi batez, gaueko iluntasunean barneratu baitzen. Inguruan zeraman argitasunak nondik nora zihoan salatzen zuen. Johainek ordurako bazituen bere neke guztiak ahantzita, eta bere gogoan zerrikume burlati hura harrapatzeko nahia arrunt sustraiturik.

- Harrapatuko haut zerrikume madarikatua, nahiz eta horretan gau osoa eman behar badut ere!

Esan eta egin. Johaine zerrikumearen atzetik zebilen, sasiak zanpatuz, errekak zeharkatuz, pettarrak igoz... beti argitasunak salaturiko zerrikumearen urratsei jarraiki. Denbora luze zeraman zerrikumearen gibeletik. Aunitzetan eskura zeukala iruditu arren, azken momentuan, eta ustekabean, zerrikumeak beti alde egiten zion. Johaine amorratua zegoen, amorratua baino gehiago zerrikume iheskoraren harrapatze saio hartan arras egoskortua.

- Hago geldirik amini bat, eta harrapatuko haut! – esaten zion, behin eta berriz.

Baina eskuratzeko maneran zegoela iruditzen zitzaion, zerrikumeak, modu batez edo besteaz, hanka egiten zion. Denbora luze zeraman zerrikumearen gibeletik. Pettarrak gero eta zorrotzagoak ziren eta mendiak gero eta garaiagoak. Hala eta guztiz ere, Johaine itsu-mitsuka zihoan argitasun bitxiaz inguratutako zerrikumearen atzetik. Tarteka, etsitzeko gogoeta pizten zitzaionean, zerrikumea kurrinka haste zitzaion, kurrin-kurrin! eta artzainarengana hurbiltzen zen. Halakoetan, Johainek, tentaturik, eskua luzatu eta... zapa!!!, zerrikumea, jauzi batez, urrundu egiten zitzaion, berriro ere.

Bat-batean, zerrikumea nonbait gorde zen. Argitasuna desagertua zen. Johaine iluntasunean barneratu zen. Argizagiak eta izarrek emandako argiak zeru gaina argitzen zuen, baina lurreko apalean, baso eta harkaitzen artean, Johainek ez zuen gauza handirik ikusten. Bidea galdua zuen aspaldi eta ez zekien garbi non zegoen. Etxe aldera itzultzeko bidez pentsatzen ari zela, zerrikumearen kurrinka entzun zuen berriz. Kurrin-kurrin! Ikusi ez zuen ikusten, baina entzun, bai. Berarengandik bi metrora zegoela iruditu zitzaion. Hura zen bere aukera – pentsatu zuen--- lasterka zenbait pauso egin, besoa luzatu eta zerrikumea eskura edukiko zuen. Benetako aukera iruditu zitzaion.

Pentsatu eta egin. Lasterketari eginez, aurrera jo zuen, eta besoa luzatzeko pentsamenduetan zegoela, amildegi sakon batera erori zen. Amiltzen ari zela, barre ozena entzun zuen. Kar, kar, kar, kar, kar, kar, kar!!! Gora begiratu, eta argitasunez inguratutako zerrikumea ikusi zuen. Barreari emana zen. Kar, kar, kar, kar, kar, kar,





## SOROHANDIETAN BEHIN

1925eko maiatzaren hogeita hirua zen eta Sorohandieta baserrian festa handia, bertako seme premua, Joanes, Muinobizkarreko alaba zen Maiñexekin ezkontzen zelako. Goiz-goizean, herriko elizan ezkondu zituen On Fermin erretoreak, eta orain bi familietakoak bazkaltzen ari ziren, denak bilduta, Soroetan. Bi familiak aski umilak izan arren, bazkari hartan denetarik zegoen: babarrun gorriak, txuleta ederrak, gazta eta intxaurrak; eta edateko ardo gorri nafarra. Josetxo, Joanesen anaia ttikia, eskusoinua jotzen hasi zen, eta kantuak hasieran, eta dantzak gero, trumilka etorri ziren. Zalantzarik gabe egun handia zen hura Sorohandietan, bertako premua baserrira ezkontzen baitzen. Ilunabarrerako emazte berriaren senitartekoak euren baserrira abiatu ziren eta Sorohandieta ohikoa zuen bakean murgildurik gelditu zen.

Urtebete beranduago, Joanes eta Maiñexen lehen umea jaio zen, Bixente ttikia. Sorohandietan denak poz-pezik zeuden premu jaio berriaren etorreraz. Dena den, laster ustekabe batek familia osoa kezkatu zuen. Maiñexek bular ederrak zeuzkan, eta egunean zehar nahiko esnea izaten bazuen ere, goizetan idor-idorra egoten zen. Bitxia zen oso! Hori konpontzeko denetik probatu zuten: kataplastak, belar-ukenduak, herriko petrikiloak propio egindako edabea... baina alferrik, egoera berezi hark berean jarraitzen baitzuen. Behin erdi sorgina zen herriko atso batek honela esan zion Maiñexi:

- Maiñex, erne ibili! Hire arazoa gauean sortzen dun, gaueko izaki gaiztoek bisitatzen hautenean.

Maiñexek atsoak esandakoa Joanesi kontatu, eta honek gau hartan zelatan egotea erabaki zuen. Bada ezpada ere, bere aizkora zorrotza ondoan paratu zuen. Iluna iritsi bezain pronto, eta ohikoa zuten bezala, tenore onean oheratu ziren, baina Joanesek ez zuen mesanotxeko kriseilua itzali eta aizkora ezkutaturik baina eskura ipini zuen. Aldameneko sehaskan Bixente ttikia lo zegoen. Loak berehala hartu zuen Maiñex, eta nahiz eta Joanesen atzetik ibili, azken honek, kostata, baina esna iraun zuen. Gauerdian, Joanesek, erdi lotan zegoen arren, hormako artezi batetik suge

luze lodi bat ikusi zuen sartzen. Joanes ez zen mugitu ere egin, eta lotan balego bezala jarraitu zuen.

Sugea, arrastaka baina aski fite, ohera igo zitzaien, eta zuzen-zuzenean Maiñexen bularren artera sartu. Joanesek ezin zuen sinetsi bere begiak ikusten ari zirena, sugea bere emaztearen bularretik edaten ari baitzen. Beraz, suge hura zen misterio haren sortzailea! Madarikatua! Joanesen eskuak aizkoaren giderra estutu zuen, baina zuhurtziari jarraiki, ez zuen mugimendu zirkinik ere egin sugeak esna zegoela ikus ez zezan. Denbora luze batez, sugeak bi bularretatik edaten jarraitu zuen, esne iturria ahitu zuen arte. Orduan, pittaka-pittaka, Maiñexen bular artetik irten eta arrastaka, pottolo-pottolo, ohetik jaitsi zen, hormako artezi aldera itzultzeko moduan. Momentu horretan Joanesek aizkora hartu, ohetik azkar altxatu eta kolpe bortitz batez sugea bitan ebaki zuen. Zart!!! Sugearen bi zatiak lurrean gelditu ziren astintzen esne putzu batean bustirik.

Handik aurrera, Maiñexi ez zitzaion inoiz gehiago, goizeroko esnea faltatu izan, eta Bixente ttikia sendo eta osasuntsu hazi ahal izan zuen.

## ZIBURUKO BALEZALEAREN IBILERAK

Ganix ziburutarra daukagu, hau da, Lapurdi itsasaldeko Ziburu herrikoa, lehen Zubiburu izana den herrikoa, hain zuzen. XVII. mendean ez zen aukera handirik herriko jende xehearentzat, eta ziburutar gehienak arrantzan edota laborantzan aritzen ziren. Bizimodu gogorra, baina nahita nahiezekoa aurrera egiteko. Ez zegoen beste aukerarik, edo hobeto esanda, bazeuden itsasgintzarekin loturiko beste bi bide: bale-ehiza eta korsua, biak izugarri arrisku handikoak zirenak. Ziburuko gizon gehienak, guztiak ez esan arren, jarduera horietan aritu izan dira mende luzetan, nekazaritzatik eta arrantzatik ateratzen dutena nolabait gizendu nahian. Ganix gureak ere, tarteka, horretan dihardu.

Hamazazpi urterekin ilki izan zen lehen aldiz balearen gibeletik, eta geroztik beste sei bat alditan ibili da jarduera arriskutsu horretan. Ongi ordaintzen dute eta bide erraza izaten da sakela fite betetzeko. Horrela irabazitako sosei esker, gurasoek baserriaren gainean zeukaten zorra kitatu ahal izan zuen, eta orain Graxirekin ezkontzeko aurrezten ari da. Hurrengo urtean edo... nahiko luke esposatu, baina horretarako azken irteera baten premia du, erosi nahi duten baserria erosteko azken sos-zimiko baten beharra baitaukate. Hori dela eta, izena eman du, berriro ere, Piarres Haraneder kapitain donibandarraren itsasontzian. Ternua aldera doaz, eta gauzak itxaro bezain ongi atereaz gero, itzultzerakoan bere ametsetako baserria erosi eta Graxirekin ezkondu egin ahal izanen du.

Hala eta guztiz ere, ongitxo daki zein latza den balearen ehiza, eta abiatutako aunitz Ternuako horma artean gelditzen direla betiko, hango mortu hotzetan, Euskal Herritik urrun, azken hatsa emanik.

Handik astebetara Piarres Haranederren Izar ederra ontzia itsasoratzeko prest zegoen Donibane Lohizuneko portuan, eta Ganix bertan zegoen, beste donibandar eta ziburutar askoren artean. Hogeita bost urte bete berriak zituen eta Jainkoak horrela nahi izanez gero, huraxe izanen zen balearekin ukanen zuen azken abentura (desbentura ote?)

Goizeko bederatzia aldean, Izar ederra Donibaneko portutik irten zen, eta kostaldeari jarraiki, bertako itsasgizonak zeukaten ohiturari eutsiz, Musko Ama Birjina dagoen talaiatik gertu igaro ziren. Han zeuden, Ama Birjinaren harrizko irudiaren gerizpean, euren amak, emazteak edota emaztegaiak zapi zuriak astintzen agur modura, eta euren gizonei azken musua bidaltzen. Eskualdeko zaharrenek diotenez, hortik omen datorkio izena Ama Birjin Muskoari, hau da Musukoari, usantza zaharra baita bertatik azken musu batez urrunera doazen itsasgizonak agurtzea. Horrelakoetan gertatzen den bezala, hartan ere, musuak, zapi zuriak eta negar isilak nahasi ziren.

Ganixek Musko Ama Birjinaren aldera begiratu zuen, eta hantxe beste emakume ugariaren artean, Graxi ikusi zuen. Buruko ilea jaso zuen lepo atzeko txirikorda batean eta eskuaz zapi zuria astintzen zuen. Beti bezain ederra iruditu zitzaion. Halako batean, Graxik eskuaz bidalitako azken musua ikusi zuen, baita Graxik ere Ganixek igorritakoa. Gero, itsasontzia pittaka-pittaka urrundu egin zen itsaso zabalean kostaldea marinel guztien begietarako desagertu zen arte.

-----

Hilabete pasatxo da Izar ederra Donibaneko portutik aterea dela, eta dagoeneko Ganix eta beste gizonak Ternuako itsaso hormatuetan dabilta.

Oraindik ez diote baleak harrapatzeari ekin, baina dagoeneko Piarres Haraneder kapitainak dena prest dauka. Itsasontziak baleak erruz topa daitezkeen Badia Handirantz doa. Gizonak prest daude, arpoiak zorrotz eta masta luzean igota dauden txotxoek itsasmuga begizatzen dute balearen bila. Mutiko bat txirula jotzen ari da, eta zenbait gizonek jotzen ari den aireari kantatuz segitzen diote.

Ni itsastxoria banintz  
Iparraldeko izotz lurretarat  
joan nintaike hegaldaka  
bale itsu gizenen ondotik.

Itsasoa harro dago,  
haizea oro tzarrear,  
eta gu ezin kontsola  
etxe goxoa gogoan harturik.

Gehien-gehienak gizon gogorrak dira, pobrezian eta jarduera latzetan gogortutakoak, baina horrek ez die eragozten perila (6) non dagoen ikustea, eta orain hurbil samar sumatzen dute denek.

Ontziko kaperau On Joannesek otoitz saindua zuzendu du brankan bildutako gizonen aurrean, eta amaitzeko bedeinkapena luzatu die:

- Jainko zerukoak bizia gorde eta itsasoko erraldoia den zerea edo balea hiltzeko aukera eman diezazuela. Sokorriko Ama Birjinak zuetaz oroit dadila!

On Joannesek bere bedeinkazioa amaitu bezain pronto, Piarres kapitainaren ahots irmoa garbi entzun zen...

- Eta orain denok gure lanetara! Arpoiak eta txalupak prest! Zaudete nire aginduetara! Txotxoek lehen balea ikusi bezain laster, guztiok txalupetara! Ehizaren orena iritsi zaigu.

Inork ez zuen erantzun, eta hitzik esan gabe, marinelak txalupen inguruetan pilatzen hasi ziren. Txalupetan arpoiak eta sokak ikus zitezkeen. Dena prest zegoen, dena heriotzari aurre egin behar zioten gizon haien bihotzak izan ezik. Herio

hurbiletik ikusteko inor ez baitago inoiz prest. Mastetako goialdetik txotxoek itsasmuga begizatzen jarraitzen zuten.

Lehenagoko mutikoak txirula jotzeari ekin zion, berriro ere, eta bizpahiru gizonek lehengo aireari segitu zioten ozenki kantatuz.

- Zoin asto izan behar den

ala guziz miserian bizi,

untzirat iragaiteko

bale bakartiaren hiltzaile.

- Sos poxika batengatik

zonbat arriskurik ez den,

ur-untzia uzkeilirik,

buztan haserretuak leherturik.

Txotxoetako baten garrasiak kantua moztu zuen:

- Baleak, baleak ababorrean!!!

- Txalupak uretara, fite! Egiaren orena da! Xantxa ona gure alde izan dadin! – bota zuen kapitainak indar handiz.

Handik bi minutura lau txalupak itsasoan ziren, eta marinelek arraunen indarraz balea-sarda zegoen tokirantz zeramatzaten. Denak isilik zihoazen, zurbil, begirada makur... balea ehizatza zehar, eta agian Herioren besoetara. Auskalo!

Marineletako batek xaramelatu zuen:

- Lana gustokoa zaio

arrantzalegai den gazteari,

bainan ikaretan dago

bale basa hurbiltzen denean.

Aurreko txalupan zihoan Haraneder kapitainaren agindu azkarrei jarraituz, lau txalupak baleen sardara hurbildu ziren. Baleak ez ziren mugitzen, lotan zeudela zirudien. Ama eta hiru kume ziren.

- Lot lanari, erna gaiten!

dio kapitaina jaunak;

marinela eri dago

bihotz ta arima errotik daldaran.

Kapitaina aginduak ematen ari zen, eta itsasgizonen bihotzetan ikara gainezkatzen hasita zegoen. Ganix marinel gaztea eri zegoen, eri beldurrez. Kumeetako bat ordurako esnatua zen, eta lehenengo txalupa aldera zihoan. Arpoilariak prest zeuden.

- Borroka hasten denean,

uhain zoroak jauzian gora.

Aberea zaurituta,

odol basa zurrutan dario.



Hurbilen zegoen txalupatik esku sendo eta irmo batek arpoi zorrotza jaurti eta bihotzean josi zion bale-kumeari. Animalia orroka hasi zen heriotzaren hurbiltasuna bere haragian josita sumatzean. Orroek balea handia eta gainerako bale-kumeak esnatu zituzten. Bale-kume zaurituak buztanaz bazterrak kolpatzen zituen eta txalupak azkarki mugitzen zituzten olatuak sortuz. Balea kolpatuaren zauritik odol basa borborka zerion.

Balea handiak bere kumea hil zorian ikustean, zale abiatu zen lehenengo txalupa zegoen tokira. Arpoilariak bere lana bete zuen arpoi bat balearen haragian josiz, baina berantegi zen, itsasoko erraldoia txalupa gainean baitzegoen. Zurezko egitura txikitzean sortutako burrunba eta bertan zihoazen marinelen herio-oihuak kontzertu anker batean nahasi ziren, beste hiru txalupetako gizonen bihotzak hunkituz eta arrunt ikaratuz.

- Gibeletik, gibeletik! – agindu zuen kapitainak.

Ganix zeraman txalupa atzeko aldetik hurbildu zitzaion zetazeo haserretuari, eta arpoilariak bigarren arpoi bat sartu zion. Baleak azken hatsa eman zuen. Beste bi bale-kumeak, izaturik, itsaso zabalean urrundu ziren. Hiru txalupetako gizonak hondoratutako txalupako marinelen bat edo beste bizirik aurkitu nahian zebiltzan, baina alferrik, bertan zihoan inork ez baitzuen balea handiaren erasotik libratzerik izan. Txalupen inguruko itsasoa hildako balearen eta marinelen odolez gorriturik zegoen.

Gero gerokoa, hurbiltzeko seinaleei kasu eginez, itsasontzia sarraskiaren lekura bertaratu zen, baleak lotu, gorpuak jaso eta hiru txalupak eta bertan zihoazen marinela karelera igo ondoren, lemazainak kostaldera zuzendu zuen ontzia, bi baleak atoian eroanez. Behin lehorrean, animalien hilotzak txikitza eta lantzera faktoriara eraman zituzten, eta hildako marinela Ternuako lur izoztuetan ehortzi.

Udaberria pasatuta, Izar Ederra Euskal Herrian zegoen, berriro ere, Donibane Lohizuneko portuan amarraturik. Haraneder kapitainak agindutako saria banatu zuen eskifaiko marinelen artean, olio hezur parte eta urrezko sos zenbait. Ganixek berea hartu ondoren lehorreratu zen. Graxi zeukan gogoan. Oraingoan bai, baserria erosi eta ezkondu egingo ziren!

Ziburura iritsi zenerako ilargia zeruan, goi-goian, zen. Bai Ganix eta bai beste marinel ziburutarrak herriko ostatura sartu ziren ardo gorri nafarrak igarotakoa ahazten lagunduko zielakoan.

- Oligo hexur partea,  
sos guttirekin saritzat,  
moltsa arin itzultzen da  
gaztea Ziburuko tabernarat.

## PELLOT KAPITAINA ETA DIAMANTEAREN MADARIKAZIOA

Gure Jesukristoren 1856. urtean gaude Lapurdiko Urruña herrixkan. Ilunabarra da eta haizea, euria eta hotza nagusi dira bertako karriketan. Jundane Bixintxo eliza ondoko apez-etxetik beltzez jantzitako gizon luze kaskazuri bat atera da, eta bere atzetik bi mutiko gazte. Gizona herriko apeza da eta bi mutikoak meza-mutilak. Apez jaunak bere besoetan zapi zuri brodatuen azpian babesturik, kaliza eta beste lanabes santuak daramatza. Haizeak gogor jotzen du eta hotza hezurretaraino sartzen zaie hiru gizonei. Hala ere, aitzina jarraitzen dute. Zenbait minuturen ondoren Lapurdiko estiloaz egindako etxe eder zabal baten parera iritsi dira. Prioretegi izena du. Zuri-zuria da, eta aurrealdean apaingarri gisa dauzkan oholak gorritz margoturik daude. Atetzarra eta leihoak itxita daude eta teilatu gaineko tximinia zabaletik ke hats luzea altxatzen da. Apeza atetzarrera hurbildu eta bertako aldaba erabiliz indarrez jo du:

- Danba, danba, danb !!!

Barrutik emakume zahar baten ahotsa entzuten da galdezka:

- Apez jauna, berori dea?

-Bai Gaxuxa, ni nauzu eta olio sainduak dakartzat zure anaiarentzat, eskatu didazuen bezalaxe. Zabaldu atea lehenbailehen!

- Oraintxe bertan, Joan Kruz, Koxe, zabaldu atea apez jauna sar bedi.

Atetzarra zabaltzean kirrinka luzea entzun zen. Eta barrutik, adineko bi gizonez inguraturik, kriseilu bat eskuan zeukan andre zahar batek etorri berriak agurtu zituen:

- Egunon Jainkoak eman diezazuela!

- Baita zuri ere! – erantzun zioten ate aurrean zeuden hiru gizonek.

- Aitzina, aitzina, zuen etxean zaudete! – andre zaharrak, eskuaz etxean sartzeko gonbitea egiten zien bitartean.

- Eta Pellot kapitaina, nola dago?

- Gaizki, gaizki, bere azken hatsa ematen ari da. Berak eskatu digu berori deitzea azken olioia eman diezaion. Ez du beste mundura joan nahi, bere bekatuen barkamena jaso gabe.

- Giristino ona izan da beti, eta Jainkoak bere bekatu guztiak barkatuko dizkio heriotzaren tenorean. – apezak--- Eraman nazazu bere ohatzera, otoi!

Emakumeak txintik esan gabe, sarrerako bazter batean dagoen zurezko eskaileretatik gora abiatu da, gibeletik apeza eta meza-mutilak doaz. Emakumeak daraman kriseiluak bidea argitzen die. Goiko solairuan badira zenbait ate, horietako bat bultzatu du emakumeak eta denak barrura sartu dira. Gela zabal samarra da, erdian paretan zintzilik dagoen zurezko gurutze handi baten azpian ohatzea dago eta bertan Pellot kapitaina bere azken hatsa ematen. Ezker aldean aulki bat eta aurrez aurreko beste paretan euskal itxurako kutxa bat. Emakumea gaixoarengana hurbildu eta ahots gogorraz esan dio:

- Istebe, On Martin etorri duk, hik eskatu bezala. Hementxe zagok eta hik galdatu guztia ekarri dik.

- Ederki, ederki, erraion hemen nire ondoan esertzeko. Berekin bakarka hitz egin nahi baitut.

- Ongi Istebe, apezarekin bakarka utziko haut.

Eta apezarengana joanez anaiak eskatutakoaren berri eman zion.

- Ongi, ongi, utz nazazue bakarrik berarekin, otoi!

Emakumeak aulki gainean zegoen kriseilua piztu zuen eta meza-mutilekin batera gelatik atera zen. Momentu berean apeza Isteberengana makurtu zen eta aitarena egiten hasi. Pellotek zakar moztu zion otoitz santua.

- Ixo Mattin, ixo! Ez hasi halako erretolikekin. Hirekin hitz egin nahi nian, baina lagunkiro, gaztetan Hendaian, gure herrian, sagarrak eta haranak osten ibiltzen gineneko garaietan bezalaxe.

- Baina Istebe, jauna hartu eta azken olioia jaso nahi hituelakoan etorri nauk korrika eta presaka. – apezak arrunt harrituta.

- Bai Mattin bai, hori guztia ere nahi diat. Hik badakik ez dudala apezengan gehiegi sinisten, baina Jainkoa hortxe zagok, gu guztion gainean, eta beste mundura joateko pronto nagoenez, onena izanen duk horrelakoetan egiten den guztia egitea. Bada ezpada ere! Ez al zaik iruditzen?

- Hara, hara, Mattin, burua betiko lepoan daukak. Ahal duguna eginen diagu. Bekatuen aitortza egin nahi al duk?

- Aitortza baino gehiago kontaketa, zeren eta, zer duk aitortzea, norberaren bizitzari errebaso bat ematea, ezta? Eta bekatuak, ez al dituk edonoren pausoak aski bekatu?, baita hi bezalako apez, apezpiku eta bele beltzez jantzitako beste askorenak ere?

- Istebe, azken hatsa ematen ari haiz eta ez zaik komeni Jainkoaren haserrea piztea horrelako esamesekin. Konta iezadak kontatu behar didaana eta gerokoa nik eginen diat. Aitzina!

Eta horrela, Pellot kapitaina bere bizitzaren nondik norakoak kontatzeari ekin zion. On Martin Iturbide apeza eta lagunak arreta handiz entzuten zion ohearen izkina batean eserita, aldamenean zeukaten kriseiluak sortzen zituen argi-itzalen artean.

- Duela laurogeita hamaika urte sortu ninduan Hendaian, hau duk, Gure Jesukristoren 1765. urtean. Aitaren familia, pelotarrak, orduan Urruñako auzoa zen Biriaturkoa zen, eta amaren familiak, azpilikuetarrek, Baztanen sorterrria zeukan. Pelotarrak Hendaia aldatu ziren balea-arrantzak erakarrita. Buckingham-ek agindupeko ingelesek Larroxela hesitu zutenean, Hendaiaiko ontziterian agintea zuen Joan Pellotek (Istebe Pelloten arbasoa izan zena) eta Donibane Lohizunekoan agintzen zuen Ibañetak lortu zuten setioa haustea eta Larroxelan sartzea.

1778an, arbasoen odolak eta itsasoak deiturik, etxetik alde egin nian eta hamahiru urterekin kortsarioen ontzi batean sartu ninduan. Garai hartan Ameriketako lehen hamahiru estatu haiek independentziaren alde borrokatzen ari zituan, eta Lafayette frantsesak, Pasaiako portutik itsasoraturik, amerikarren alde egin zian. Nik neuk parte hartu nian ingeles ontzieren kontrako borrokaldi ugarietan eta horrela ospe handia eskuratu nian. Perutik Espainiara urrez beterik zihoan

Nuestra Señora del Océano ontziaren zorioneko abordaia eta harrapatzean ere parte hartu nian, teniente gisa. Bertan bazuan altxor handiaren jabe zen familia espainiar bat. Bere altxorra errekiatu genian eta emazteak bazeraman lepotik zintzilik intxaur baten neurriko diamante ederra. Biak urkatu genitian masta nagusitik zintzilik. Baina diamante hura ez zuan inoiz agertu, preso hartzean nik ostu banioan beste inor konturatu aurretik. Edo hori pentsatzen nuen nik, bederen (7). Baina laster jakin nuen erratuta nintzela. Espainiar ontzian, eskifaiako (8) marinelen artean, baziren zenbait euskaldun, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak gehien-gehienak. Horietako gazte bizargabe batek, behin, preso zeuden ganberara (9) hurbildu nintzela, eta nire gizonekin euskaraz hizketan aditu zidala, horrela erran zidan: Lapur bati lapurtu diozu eta Jaungoikoak ez du hori bekatutzat hartzen. Dena den, kontuz ibili zuk atzeman dezun diamantea Ameriketako indioei lapurtua baita, eta madarikazioa berekin batera eramaten du-eta. Floresko markesak garesti xamar ordaindu du, larrutik, bere senarrak diamantea lapurtu izana. Eta orain zure eskuetan dago. Erne ibili, madarikazioa zurekin batera eramaten dezu-eta!

Nik ez diat nehoiz halako gauzetan sinistu, baina, bada ezpada ere, madarikazioaz libratzeko moduz galde egin nioan, eta berak arrapostua (10) eman: Modu bakarra dezu benetako jabe diren indioen eskuetara itzultzea, edota diamantea itsasora jaurtitzea, olatuek eta korronteeek bere sorterrira itzul dezaten. Hori dezu madarikazioaz libratzeko modu bakarra.

Ulertuko duan bezala, nehoiz ez nian itsasora jaurti, eta nirekin gorde izan diat urte luzetan. Gazte gipuzkoarrak hori erran zidanetik hiruzpalau egunetara, ontzian elikagai gutxi zirela eta, kapitainak hartutako presoen erdia fusilatzea eta itsasora botatzea agindu zian. Gizagaixo haien artean mutil hura hil zitean. Orduz geroztik gordeta eduki diat. Bizitza honetan denetik agitu zaidak, gauza onak eta gauza txarrak, baina momenturik gaitzenetan ere ez nauk diamantearen madarikazioaz beldur izan. Baina orain, bestelako kontua duk Mattin, laster hilen nauk eta ez diat beste mundura, nirekin batera, madarikazio hori eraman nahi. Ulertzen al didak?

- Bai, Istebe, ulertzen diat! – erantzun zion apezak, zur eta lur zegoela.

Pellot kapitainak On Martinen eskua estutu zuen. Begiek eldarnio batek jota ziruditen. Azken hatsa ematen ari zen.

-Mattin otoi, diamantea atxiki behar duk eta Urruñako labarretatik itsasora bota. Horrela libratuko nauk madarikazioaz. Eginen al duk?

- Bai, bai, eginen diat.

Apezaren baietzak lasaiturik, Pellot kapitaina diamantearen gordelekuaren berri ematen hasi zitzaion:

- Gure lurretan bazagok sagardi ederra, segi ezak sagarrondorik handieneraino eta bere inguruan lurra harrotu, berehalaxe topatuko duk. Gero, badakik zer egin behar duan, ezta? – apezaren eskua indar handiaz estutuz--- Eginen al duk? Zin egin iezadak!

- Zin dagiak Istebe, zin dagiak Sokorriko Ama Birjinaren izenean!

Hori entzun ondoren, Pellot kapitainak bere azken hatsa eman zuen. Gero, Joan Kruz Danbolena eta Koxe Enatarriaga laborari zaharrek On Martinek egindako hil-agiria sinatu zuten lekuko gisa. Hurrengo egunean ehortzi zuten.

On Martinek kapitain eta lagun hil-hurrenaren aitzinean egindako zina bete nahi zuen. Horregatik, handik bi egunera, Prioretegiko sagardirantz jo zuen, sagarrondorik handiena xerkatu, eta gero aitzur baten laguntzaz enborren ingurua harrotu zuen. Metro erdi eskasa induskatu behar izan zuen, eta azkenik, han topatu zuen diamantea larruzko zakote baten barruan gorderik. Esku dardaratiaz atera zuen zakotetik; ederra zen oso. Momentu batez, beretzat gordetzeko tentazioa eduki zuen – diamante harekin Urruñako eliza goitik behera konpon baitzezakeen eta baita herriko guztiak izugarri aberastu ere--- baina gero madarikazioaren oroitzapena etorri zitzaion burura. Ez, ezin zuen hori egin, arriskua handiegia baitzen! Hurrengo goizean, etxeko astoa hartu eta bere gainean itsasertzeko labarretara abiatu zen. Hogei minutu beranduago han zegoen, itsaso gainera irteten zen muino ttiki baten tontorrean. Azpian itsasoa zeukan. Olatu haserretuek indar handiz kolpatzen zuten muinoaren erroetan. On Martinek, emeki-emeki, larruzko zakotea patrikatik atera zuen, eta bi aldiz pentsatu gabe, bere indar osoz itsasora jaurti zuen.

- To Itsaso, eraman ezan

bere sorterrira,

eta libra gaitzan

bere madarikazioaz !

Berehala, olatuen apar artean desagertu zen.



## BOLUNTARIO KARLISTAK SAGARDOTEGIAN

Gogorra da maite denaren alde armaz borrokatu beharra, are gogorragoa maite dena erdietsi gabe, armak etsaiari eman beharra. Horixe bera da 1876ko otsailaren erdi aldeko goiz hotz hartan Gipuzkoako II. Batailoi karlistako gizonak Donostian egiten ari zirena. Umilazio handiagorik!

Ordurako II. Karlistada galdua zen eta Don Carlos erregeak zuela urtebete, hau da, 1875eko otsailaren 28an, Iparraldera alde egin zuen Arnegitik barrena. Orduz geroztik ez zen esperantzarik. Tropa karlistek etengabeki egiten zuten gibelera, eta azkenean baldintzarik gabeko errendizioaren ordua iritsi zen. Gaixoa Euskal Herria! Gizajoak euskal foruen alde ibilitako gizon eta mutil karlistak! Hura akabera zen, mundu eta gizarte baten akabera krudela. Eta Donostian armak txondorretan utzirik errenditzen ari ziren gizon haien bihotzetan akaberaren sentipena nagusi zen. Handik aurrera ezer onik ez euskaldunentzat, ezer onik ez euskal foruentzat, eta ezer onik ez gerra galdu berria zuten gizon haientzat.

Etorkizun beltza sumatzen zuten eta hori okerrena etortzear zegoela. Hilabete beranduago, hau da, 1876ko martxoaren 13an Espainiako gobernuak euskal foruak deuseztatzeko legea aterako baitzuen. Borrokalari karlistek etortzear zegoen ekaitza igartzen zuten.

Illetan zeuden, eta banan-banan, beti goibel eta burumakur armak uzten ari ziren txondorretara hurbiltzen ari ziren. Poliki-poliki, astiro-astiro, lasai samar, han ez baitzegoen inolako presarik, gizonak borrokan erabilitako fusilak eta baionetak lagatzen ari ziren. Askok utzi aurretik, azken musu bat ematen zieten, inoiz gehiago ikusiko ez den emaztegaiari ematen zaion intentsitate berberaz. Benetako agurra zen. Sekulakoa. Esperantzari atea betiko ixtea.

Nartziso, Patxi, Matias eta Tomax horretan ari ziren. Lauak donostiarrak ziren, adin berekoak, 26-27 urte bitartekoak, eta ume-umeetatik lagun gisa ibiliak. Loiolako eta Amarako baserrietako semeak ziren eta 1872. urtean, bigarren matxinada karlista piztu zenean, bi aldiz pentsatu gabe, euren gurasoek I. Karlistadan (1833-1840) erabilitako armak harturik gudaroste karlistara pasatu ziren boluntario gisa.

Hura bi belaunaldien arteko erreleboa izan zen. Orduz geroztik sufrikario ugari pasatuta ziren. Gerra hura ankerra eta gupidarik gabea izan zen, ez alde batean, eta ez bestean, ulertzeko eta barkatzeko ahalmenik ez baitzegoen. Beraiekin boluntario joandako asko gorpu gelditu ziren Euskal Herriko gatazka-lekuetan. Herriak eta mendiak hilerri bilakatu ziren.

Armak utzi ondoren Loiola aldera abiatu ziren frontoi ondoko sagardotegira. Norberak bere etxera joan aurretik, agur-bazkaria egin beharra zeukaten, horretarako azken ordainean emandako txanpon urriak xahutu behar bazituzten ere. Triste, burumakur, hitz egiteko gogo handirik gabe Loiolarako bidetik barrena abiatu ziren. Eguerdiko hamabiak ziren eta sagardotegia jendez gainezka zegoen. Bertan baziren era guztietako gizonak: inguruko baserritarrak txapela buruan, beraiek bezalako soldadu karlista ohiak – uniforme oraindik kendu gabeak---, bidaiariak, merkatariak eta eskuin aldeko upelen artean bazen soldadu liberal erdaldunen taldetxo bat. Bospasei gizon ziren bakarrik, armaz beterikoak, eta poztasun handiaz eta buila handiagoaz erdara ulertezinaz aritzen zirenak.

Beste guztiek, berriz, triste hitz egiten zuten, galdu berria zuten gerraren zapore mingotsaz. Kontraste handia zen batzuen eta besteen artean. Itsu batek berehalaxe atzemanen zuen nor ziren irabazleak eta nor galtzaileak. Bi mundu ziren, eta sagardotegi berean bazeuden ere, elkar ignoratzen zuten. Lau lagunek bazkaria eskatu eta mahai baten ingurura hurbildu ziren. Han ez zen eserlekurik eta denek zutik bazkaltzen zuten, sagardotegien usadio zaharrari jarraiki. Euskaldunak, beti isilik, soldadu liberal erdaldunak gero eta ozenago, barre handiak eginez. Gure lau lagunek ez zieten tutik ere ulertzen, baina soldadu liberalen barre algarek mailu baten modura jotzen zuten euren bihotz galtzaileetan.

- Horiek gutaz ari dira barrez! – esan zien Patxik beste hiruei amorrua ezin kontuz.

- Utz itzak, utz itzak, gerra galdu diagu eta ez zegok zer egiterik! – erantzun zion Nartzisok lagunaren amorrua baretu nahirik.

- Gainera ez diegu ezer ulertzen, eta auskalo zertaz ari diren! Agian emakumeen kontuez ari dira, jakitera! – esan zuen Tomaxek Nartziso lagundu nahian.

- Ez zieagu ulertu behar, gure porrota ospatzen ari direla jakiteko, begi bistan zegok! – ihardetsi zion Patxik temati.

- Patxik arrazoi osoa du, horiek gutaz ari dira barrez! Erdaldun zerriak! Fusila eskutan baneuka ikusiko lukete! – Matiasek Patxiren alde eginez.

Bitartean han ari ziren soldadu liberalak barrez eta algaraz. Entzun diezaiegun esaten dutena.

- Pero, Nicasio, ¿qué vas a hacer ahora con las dos novias que tienes esperándote en el pueblo? (Baina Nicasio, zer egin behar duk orain herrian zain dituan bi emaztegaiekin?)

- No sé, no lo he pensado todavía. ¿Quieres que te preste alguna de ellas, Luis? (Ez zekiat, nahi al duk horietako bat hiri uztea, Luis?)

- No hombre, que estoy casado y en el pueblo me está esperando mi mujer. (Ez gizona, ezkontuta nagok eta herrian emaztea zeukaat nire zain) – erantzun zion Luis izenekoak lehen aipaturiko Nicasiori.

- Seguro que no te espera, y que más de una vez se ha consolado con el cura del pueblo. (Ziur ez dagoela hire zain eta behin baino gehiagotan kontsolatu egin dela herriko apaizarekin) – bota zuen hirugarren soldadu batek.

Momentu horretan sei gizonak barre algara handiak sortarazi zituzten.

- Entzuten al diezue? Nik ezin dut gehiago. Burua salbatu nahi baduzue, altxa eta nik esaten dudanean denok korrika kanpora. Aditu al duzue? – Patxik amorrazioaren sutan kiskalita.

Inork ez zuen deus erantzun, baina begiekin Patxiren hitzak onartu zituzten.

- Orain!!! – oihu egin zuen Patxik--- eta txotx egitean lurrera doan sagardoa biltzeko egoten den zurezko ontzi horietako bat eskuan harturik, algara gehien egiten zuen soldadu liberalarengana hurbildu eta indar handiz buruan jo zuen. Soldadua ziplo erori zen lurrera, burua guztiz irekita.

- Biba foruak! Biba Don Carlos! – oihu egin zuen jarraian Patxik.

Beste soldadu liberalak konturatu zirenerako lau lagunak kanpoan zeuden eta korrikari emanda.

Hurrengo hilabeteak, hurrengo urteak... izugarri gogorrak izan ziren karlista galtzaileentzat. Gure lau lagunak denborarekin ezkondu ziren eta euren bizimoduak nekazari gisa birbideratu zituzten. Hil arte oroitu zuten samin handiz porrotaren egun hura, baita Loiolako frontoi ondoko sagardotegian ustez beraietaz barrez ari zen soldadu liberal erdaldun hari burua ireki zioteneko pasadizoa ere.

-----

Ez gerade traidore, ez pezeteroak,  
ez gerade traidore, ez pezeteroak,  
Don Carlosen aldeko boluntarioak,  
boluntarioak, ez pezeteroak,  
boluntarioak, ez pezeteroak.

## PILOTARI MALTZURRAK

1894ko ekaineko lehen astea zen. Igandean pilota partida handia jokatu behar zen Donostiako Beti Jai frontoian, edo gutxienez horrela espero zuten Euskal Herriko bazter guztietatik, sartzeko txartela ordurako eresia eskuan zutela, Donostiara bertaratutako pilotazaleek. Zaleen arteko giroa bero-bero zegoen eta apustuak gori-gori. Baietz eta ezetz, besterik ez zen tabernetan eta pasealekuetan entzuten. Askok dirua egin nahi zuten trabesekin. Peru Agorreta eta Luxio Kortajarena pilotariak aurrez aurre, norgehiagoka aritu behar zuten.

Pilota jokoa munduko kirolik ederrena omen da, euskaldunok horrela sinisten dugu, bederen. Joko garbia, soineko zuriak, mutilen indarra, frontoietako giroa... dena du eder, dena du polit. Baina izan badira, tarteka, giro eder hori zapuzten duten faktoreak, eta horietako bat diruzalekeria da. Askotan entzun dugu baserria frontoiko apustuetan galdu zuen baserritarrarena, edota emaztea apustu egin zuen beste harena. Horrelako hamaika kontu izan dira frontoiekin nahasita. Bere burua saldu duen pilotariarena ere entzun samarra daukagu. Eta horixe da oraingo honetan jorratuko dugun gaia.

Peru Agorreta pilotaria poz-pezik zegoen igandeko finalera iritsia izanagatik. Gaztea zen oso, eta etorkizun ona zabaltzen ari zitzaion pilotaren munduan. Aldeko asko zeuzkan, herrian gehienbat. Lehengoan, aitak kontatu zioenez, herri guztia joatekoa omen zen igandeko partidara, baita On Luix herriko apaiza ere; igandean herrian arimarik izango ez zenez, iganderoko ohiko meza ez ematea erabakita baitzeukan, eta beste herritarrekin batera frontoira joatekoa zen. Ordurako txartela patrikan zeukan Donostiako frontoira joateko prest, txartela eta trabesetan parte hartzeko elizako zipiluan bildutako diru kopuru polita. Den-dena Peruren alde apustu egin behar omen zuen eta espero zituen irabaziekin elizako aldarea berritu nahi omen zuen. Gauza bera egitea pentsatzen zuten Koxme tabernariak, Xilbextre botikariak, Joxe Goikobordako artzainak, Iñaxita loteria saltzaileak eta baita Mañoli dendariak ere. Den-denak ziur zeuden Peruren garaipenaz eta bere alde, bizitza osoan zehar aurreztutako sosak jokatzeko prest ziren. Beraien ustez, Peruren aldeko apustua diru irabazpide ziurra zen.

Gauza bera gertatzen zen Luxio Kortajarenaren herrian. Igandean denak ziren Donostiako Beti Jai pilota-plazara joatekoak: alkatea, erretorea, botikaria, maisua, dendaria, tabernaria... baita bere guraso eta anaia-arreba guztiak ere. Denak prest zeuden joateko. Txartela poltsiko batean zeukaten, bestean bizitza guziko

aurrezkiak. Hauek ere, bere herriko pilotariaren garaipenaz seguru zeuden. Baina diruzalekeria lagun txarra bada, inbidia askoz okerragoa oraindik. Eta horixe zen Peru Agorretaren eta Luxio Kortajarenaren bihotzetan unez une, momentuz momentu gizentzen ari zena. Denek egin behar zuten dirua haien kontura! Denek! Denek, beraiek izan ezik! Eta bekaitzak bultzaturik asmo gaiztoak agertzen ari ziren bi pilotarien buruetan. Azkenean asmotik ekintzarako tarte laburra egitea erabaki zuten. Peru Agorretak, bere lagunekin bildu, eta aurrezturik zeukan diru guztia eman zien bere kontrako apustuetan joka zezaten. Horrela, kontra-apustuekin lortutako diruari esker, baserri eder bat erosiko zuen, azienda handia jarriko eta Margarita andregaiarekin ezkondu ahal izango zen. Ez zen plan makala. Herriko guztiek galduko zuten, eta apaizak ezin izango zuen elizako aldarea berritu, baina bost axola berari. Norberak bere buruari begiratu behar dio, bere buruari... eta bere poltsikoari.

Luxio Kortajarenak ere, antzeko zerbeit egin zuen, koltxoian gordetzen zituen aurrezkiak atera, lagun minak bildu, eta beraiei eman zizkien bere kontrako apustuetan jar zitzaten. Herritarrek izugarri galduko zuten, baita senideek ere, baina berak askotxo irabaziko zuen eta horri esker ostatu handi bat zabaldu ahal izango zuen herriko plazan. Hau zen bere betiko ametsa eta igandeko partida zela eta, eskura edukiko zuen. Herriko plazan bazen beste taberna bat, Andrexena, baina Luxiok ederki zekien igandeko partidari Andrexek zeukan diru guztia bere alde apustu egingo zuela. Lur jota geldituko zen, sosik gabe, taberna saldu beharko zuen zorrak kitatzeko, eta horrela Luxioren taberna inolako konpetentziarik gabe geldituko zen. Huraxe bai negozio ederra!

Eta igandea iritsi zen. Eta frontoia jendez gainezka bete zen. Huraxe zen giroa, huraxe zen dirua barra-barra trabesetan zebilena! Partida lastimosoa izan zen, hutsak eta joko txarra nagusi. Zaleak bero-bero zebiltzan eta apustu egin zutenak izerdi patsetan zeuden, hura ez baitzen giro. Hala-hola, azken tantora iritsi ziren, hogeita bana. Bi pilotariak buruz buru ari ziren, baina norgehiagoka aritu beharrean, norgutxiagoka. Ez batak eta ez besteak ez zuten partida irabazi nahi.

Luxio Kortajarenak egin behar zuen azken sakea. Peru Agorreta zain zegoen txarra egiteko pronto eta kontra-apustuetan jokatutakoari esker diru kopuru handia sakelaratzeko irrikan. Luxiok ordurako bazeukan bere aurkariaren nahiaren berri. Garbi zegoen! Sake laburregia egingo diat eta dirua zuzen-zuzenean nire poltsikora etorriko duk! – pentsatu zuen maltzur. Pilota hartu, eta inongo disimulurik gabe, pilota labur sakatu zuen. Frontoian zeuden bere kontrako guztiak zutitu ziren euren herriko pilotariaren garaipena ospatzeko. Bazirudien gauzak Luxio Kortajarenak pentsatu bezala irteten ari zirela...., baina Peru Agorretak bere kontrarioaren jukutria

ikustean, aurrera joan zen korrika bizian eta, bere burua lurrera botaz, pilota airez jo zuen eramateko inongo asmorik gabe. Horrela bera izan zen galtzailea. Ordurako zutik zeuden bere aldeko guztiak ahoa bete hortz gelditu ziren, eta bere burua galtzailatzat jotzen zuten Kortajarenaren aldekoak, garrasi izugarri batez, euren eserlekuetatik altxatu ziren ezusteko garaipena ospatzeko.

Partida bukatua zen. Luxio Kortajarena zen irabazlea. Hala ere, ez zuen ematen oso pozik zegoenik, marruz ari baitzen kantzako bazterrean. Bat-batean, frontoia guda-leku bilakatu zen, botilak eta edalontziak airean ari ziren. Horietako batek, bete-betean, Kortajarenaren buruan jo zuen eta amorrus betetako pilotari txapelduna seko erori zen lurrera odol putzu handi baten erdian. Agorreta ez zen hobeto atera. Bere herrikoek hebaindu nahi zuten eta atzetik zebilzkion harrapatu nahian. Azkenean, On Luix apaizak eta Joxe artzainak txoko batean harrapatu zuten eta eskuan zeramaten aterki bana Peru gizajoaren bizkarrean hautsi zituzten, goardasolak hautsi eta baita pilotariaren saihest guztiak ere.

Aguazilek frontoian sartu behar izan zuten borroka hura baretzera. Donostiako ospitalea zaurituz bete zen. Kortajarenari hamabost puntu josi behar izan zizkieten buruan eta Agorreta gaixoak begi bat galdu zuen, bere herriko erretoreak euritakoaren puntaz aterata. Eskandalu ikaragarri handia izan zen, epaileek sari banaketa bertan behera utzi behar izan zuten, apustu guztiak indargabetu eta pilotari biak atxilotu eta iruzurraz akusaturik epaitu. Horrela amaitu zen horrenbeste itxarondako Agorretaren eta Kortajarenaren arteko finala, inbidiak eta diruzalekeriak piztutako asmo txar guztiak bukatzen diren bezalaxe. Atsotitzak dio zikoitzaren sakelak bi zulo dituela, bat handi samarra ahal den diru gehiena bertara sartzeko, eta beste handiago bat, sartutakoa eta aurretik bildutako guztia galtzeko modukoa. Hauxe da bi pilotari zikoitzek emandako ikasbidea.

## IRUÑEKO APAIZGAITEGIKO HILKETAK

XIX. mendearen hondarretan gaude, eta erlijioak eragin handia dauka euskal gizartean. Aunitzetan zail samarra zen erlijiosoaren eta profanoaren artean bereiztea, orduko erlijiotasun estuak bizitzaren arlo guztiak elikatzen baitzituen. Karlistadak mende horretan galduak ziren (I. karlistada 1833-1839 // II. karlistada 1872-1876) eta ondorioek bizi-bizirik zirauten gure geografia osoan.

Armen porrota nabarmena zen eta horren ordeztu gazte askok, fusila eta zizpoleta ezin harturik, fedearen bideari ekin zioten. Apaizgaitegiak Kristoren mezua defenditu eta zabaldu nahi zuten gazte kementsuz gainezka zeuden, eta Iruñekoa horrela zegoen, leporaino betea. Bertan laurogei bat gaztek ikasten zuten arima eta burua argitu nahian. Gazte-gazterik sartzen ziren, edota askotan gazte-gazterik sartzen zituzten euren gurasoek, Ameriketarako bidea hartu gabe, etorkizun hobea, eroso eta prestigioduna urra zezaten. Apaizgaitegian ez ziren irakasle onen eskasian, eta bertatik igarotzen zirenak formazio erlijioso eta humanistiko on baten jabe irteten ziren.

Bertan era guztietako gazteak ikus bazitezkeen ere, gehien-gehienak baserritarren semeak izaten ziren, laia eta goldea betiko uzteko irrikatan zirenak. Teologia, latin eta erromantze ikasketez betetzen zieten bai burua eta bai denbora ere, hala eta guztiz ere, astirik bazuten gorputzaren libertimendurako, eta neskekin ibiltzea galarazita zeukatenez gero, han aritzen ziren den-denak, sotana eta guzti, apaizgaitegiaren bazter batean zegoen frontoi ederrean. Beraien artean, baziren aski pilotari onak zirenak. Egunak joan egunak etorri, frontoian hartzen zuten atsedeen gure apaizgaiek. Egia esateko, gehienek nahiago zuten pilota partida on bat munduko teologi ikasketa guztiak baino.

Horietako binakako partida bat bukatu berria da, eta bertan aritutako lau mutilak gorputza freskatzera eta garbitzera doaz.

- Gaur, partida ederra egin dugu! – bota zuen Xatur Etxegia izeneko mutil goizuetarrak.



- Bai mutil, ederra benetan! – baieztatu zuen Joanes Ezpeleta gazte iruinsemeak, kopetatik behera irristan jaisten ari zitzaion izerdia eskuaz xukatuz.
- Ederra izan da, bai! Ederra eta ederki borrokatua: 22-21. Biharkoan errebantxa hartuko dugu eta gure gibelean utziko zaituztegu, alajainkoa! – segitu zuen Juliantxo Aoiz tafallarrak.
- Bai horixe, egun guztiak ez dira jai, ezta pilotan galtzekoak ere! Bihar pasara ederra emanen dizuegu! – esan zuen partidari Juliantxoren bikotea izandako Erramun Bertiz baztandarrak--- Bihar ikusiko duzue!
- Ixo, ixo! Hortxe daukagu Aita Pontziano guri begira eta ez du ematen oso kontent dagoenik! – Joanesek, disimulatuz, aipatutako apaiz pottokoak esaten ari zena ezpainenetan irakur ez ziezaion.
- Juliantxo, uste diat entzun duela hik egin duan Jaungoikoaren aipamena! – Xaturrek, burumakur.
- Ezin dik izan, oso urrun zagok! – Juliantxok ihardetsi zion beldurrak hartuta.

Lau mutilek burua makurtu zuten eta isil-isilik eraikineko atetzar aldera hurbildu ziren, beste apaizgai gazteen artean nahasirik. Lauak biziki gazteak ziren, hamasei-hamazazpi urtekoak, eta lauzpabost urte zeramatzaten apaizgaitegian euren gurasoek bertan laga zituztenetik. Ordutik jan-edateko onak ez zitzaizkien inoiz falta izan, baina askatasuna arrunt galduta zeukaten. Urrezko kaiolan hazitako txoritxoak ziruditen. Lauak lagun handiak ziren eta ahal zuten guztietan elkarrekin ibiltzen ziren, agindutako lanak egiteko, frontoian aritzeko eta baita nesken gaineko kontu debekatuez hitz egiteko ere. Apaizgaiak ziren, bai, baina ez horregatik zakil gabeak; eta noski, gazteriaren lorian izaki, neskei buruzko kontuak izaten ziren lauen artean gehien jorratzen zituzten solasgaiak. Aristoteles, Platon eta Akinoko Santo Tomasen gaineko solasaldi luze eta aspergarriak ikasgelarako uzten zituzten.

Apaizgaitegia beste mundua zen, edo hobeto esanda, mundutik at zegoen beste mundua. Bertan denetik zeukaten: ikasgelak, bulegoak, kapera, sukaldea, jangela, logelak, komunak... eta lehen ikusi dugun bezala, baita frontoia ere. Apaizgaiak bertan ematen zuten beren eguneroko bizimodua eta apaizgaitegitik irtetea guztiz

debekatuta zeukaten, ez bazen zerbait oso berezira, eta apaiz-maisu batek lagunduta, gainera.

Logelak eta komunak lau barrutian kokatzen ziren: iparraldekoak, hegoaldekoak, mendebaldekoak eta ekialdekoak. Barruti bakoitzak bazuen bere apaiz-maisu burua, arduradun gisa. Gure lau gazteek ekialdeko barrutian egiten zuten lo beste hamasei mutilekin batera. Beraien apaiz-maisu burua Aita Pontziano zen. Apaiz horrek berrogei urte inguru zituen, tuterarra zen, eta arrunt estu eta gaiztoa. Mihi txarrek ziotenez, parte hartua zen epaile gisa Inkisizioak Nafarroan egindako azken saioetan, eta gaineratzen zuten, hamar bat neska-mutil surtara igorri omen zituen gari tartean zirriz egiten harrapatuak izan zirelako. Egia ala asmakeria, gauza zen Pontziano Karrantza apaiz-maisu burua guztiz gogorra eta desatsegina zela. Emakumeak gorroto zituen, baina ez horrela mutil gazteak, eta apaizgaiak txukuntzeko biluzten ziren guztietan han egoten zen bera begira-begira, inor inolako lizunkeriatan eror ez zedin. Horretaz gain, bortizkeria eta besteen sufrimendua maite zituen, eta apaizgaireren batek erlijioaren edo apaiztegiko arauen baten kontra zernahi egiten zuelarik, gogorkeriaz zigortzen zuen.

Ekialdeko barrutian bazeukan gela berezi bat justizia egiteko. Atearen kanpoaldean eskegita gurutze handi bat zeukan eta barruan era guztietako zigor tresnak. Zigor guztien artean, gehien gustatzen zitzaiona zera zen, apaizgai biluziak sabaitik zintzilik zeuden soketan eskumuturretatik lotzea, eta gero makila fin batez gizagaixoen bizkar eta ipurdi masailetan jotzea odola isuri arte. Odolak gure bekatuak garbitzen ditu! – errepikatzen zuen, behin eta berriz. Ulergarria zen, beraz, ekialdeko barrutiko apaizgai guztiek Aita Pontzianori zioten beldurra.

Ate aurrean, sartzekotan zeudela, Aita Pontziano honela zuzendu zitzairen gure lau lagunei:

- Zuetako batek Jaungoikoaren izena iraindu du hitz zatarrez. Antikristo halakoa! Nor izan da?

Lau lagunetako inork ez zuen txintik ere esan, eta burumakur gelditu ziren atetzarraren aitzinean. Orduan, Aita Pontzianok, biziki haserreturik, infernuaren iragarpena egin zien:

- Ongi da, ongi da. Ez badidazue bekatariaren izena eman nahi, lauek ordainduko duzue larrutik. Gero, zazpietan, hau da, afaldu ondoren nire bulegoan ikusi nahi zaituztet. Ulertu al didazue?

- Bai jauna! triste batez erantzun zioten lau gazteek.

Lau apaizgaiak garbitu eta txukundu ondoren, apaizgaitegiko jangelara joan ziren. Jangela zabala eta iluna zen. Leiho gutxi zeuden eta zeuden urriak aski txiki eta estuak ziren. Hormetan eta mahaietan ezarrita zeuden argimutilak ziren argitasun-iturri bakarrak. Jangelak gurutze baten itxura zuen. Erdigunean sukaldea zegoen bere sutondo handiekin, eta lau besoetan apaizgaiak eta apaiz-maisuak, lau barrutitan egindako banaketari jarraiki, esertzen ziren mahai luze-zabalak. Ekialdeko barrutiari zegokion gurutze besoko mahaiaren inguruan eseri ziren lau lagunak beste barrutikideekin batera; osora hogeit hamar lagun ziren. Mahaiaren buruan Aita Pontziano eta bere menpeko beste hiru apaiz-maisuak eseri ziren: Aita Bernardino, Aita Sebastian eta Aita Benito.

Halako batean, apaizgaitegiko Aita Gillermo burua azaldu zen eta gurutzearen erdigunean zegoen aldaretxo gainean jarrita, otoitz santua erreztatzeari ekin zion. Lau besoetako afaltiar guztiak altxatu ziren errezoaren monotonian buru-belarri murgiltzeko. Horrela eman zituzten bost bat minutu luze, eta azkenean, Aita Gillermok mahaiak bedeinkatu zituen:

- Jaungoikoak eta bere ama Mariak

gure jan-edanak

bedeinka ditzaten.

Aitaren eta Semearen

eta Espiritu Santuaren izenean.

Amen.

- Amen!!! – erantzun zioten afaltiar guztiek. Norbera bere jarlekuan eseri zen eta lau mahaiburuek emandako seinaleari jarraituz afaltzeari ekin zioten.

- Ez zait deus sartzen! – xuxurlatu zuen Juliantxok, bere hiru lagunek entzuteko moduan.

- Niri ezta ere! – ihardetsi zion Joanesek.

- Ederra daukagu gero! – segitu zuen Xaturek.

- Bai afaloste ederra daukagu zain! – Erramunek baieztatu.

Aita Pontzianok lau lagunak hizketan entzun zituen nonbait, eta irribarre krudela ezpainetan zeukala, hurbildu zitzaien honakoa esateko:

- Jan, jan ezazue koitaduak! Bete ezazue sabela eta indarrak hartu. Jaungoikoaren izena horrela zikintzen dutenek laster jakinen baitute zer den zigor garbitzailea. Orain afal ezazue ongi, eta gero zazpitan nire bulegoan ikusi nahi zaituztet. Nik ederki zigortuko baitut zuen arteko antikristo hori. Sarri arte, beraz! Kar, kar ,kar.

Eta barre ozena jaurtikiz mahaiburura itzuli zen. Gure lau lagunak isildu ziren ikaraz beterik. Inork ez zuen geroztik hitzik atera. Bihotz taupadak azkartu samarrak sentitzen zituzten, gorputz osoa dar-dar batean zeukaten, eta aurpegietan beldurraren presentzia nabari zitzaien.

Zazpiak bost gutxietan mahaiburuek afaria amaitutzat eman zuten:

- Gaurko afaria bukatu da. Orain denok ohera. Ez ahantzi errezo santua egiten eta gaueko orduetan haragiak sentitzen duen tentazioa irmotasunez baztertu. Deabrua beti ibiltzen da gure artean bekatuaren hazia erein nahian, baina horren aurrean kristau onak badaki nola jokatu behar duen: tinko eta estu. Jauna zuekin!

- Eta zure espirituarekin! – erantzun zioten afaldu berri guztiek.

Ondoren, apaizgai guztiak talde txikitan banaturik, euren logeletarantz abiatu ziren, guztiak gure lau apaizgai gizagaixoak izan ezik, hauek deus esan barik, Aita

Pontzianoren bulegorantz, edo tortura-gelarantz hobeto esanda, abiatu baitziren. Atean apaiz-maisu burua esperoan zeukaten.

- Fite, fite, alfer horiek! Galtzeko denborarik ez daukagu-eta!

Lau mutilak gelara isilik-misilik sartu ziren eta txoko batean jarri ziren ahoa zabaldu gabe. Beraien zain zeuden ekialdeko barrutiko beste hiru apaiz-maisuak. Aita Pontzianok atea indarrez hertsu zuen eta ondoren ongitxo giltzatu. Gero lau apaizgaiei honela zuzendu zitzaien:

- Hemen zaudete gure Jainko handiaren izen ona lohitzeagatik. Jakin jakinen duzue hori oso bekatu larria dela, mortala, eta ez bada garbitzen, infernuko garretan kiskaliko zaretela betiko, bai zuen gorputzak eta baita zuen arima gaixoak ere.

Mutilek ez zioten deus erantzun, eta lurrera begira jasan zuten apaiz-maisu buruaren erretolika gaiztoa.

- Eskerrak gu hemen gaituzuela! – segitu zuen Aita Pontzianok larderia handiz-- eta beti prest gaudela zuen gorputz-arimen salbazioaren alde egiteko. Gaurkoa gogorra izanen da guztiontzat, bai zuentzat eta bai guretzat, baina Jainkoa lagun, jakinen dugu jasaten, eta zuen arteko antikristo ezkutu horrek merezi duen bezala zigortzen.

Ordurako lau apaiz-maisuen eskuetan flagelatzeko erabiltzen zuten makila fin bana zegoen. Lau gazteak errotik dardarez ziren. Halako batean, Aita Pontzianok hasteko agindua eman zuen:

- Aita Bernardino, Aita Sebastian, Aita Benito, egin ezazue egin beharrekoa. Biluztu ezazue bekatari bana – sabaitik zintzilik zeuden sokak seinalatuz--- eta lotu itzazue eskumuturretatik!

Gero Juliantxo Aoiz tafallarra lepotik helduz, honela gehitu zuen:

- Utz iezadazue bekataririk handiena niretzat, nik eramanen baitut bide onetik.

Lau apaiz-maisuek mutilak biluztu zituzten eta gero sabaiko soka banatan lotu. Aita Pontziano izan zen lehena Juliantxoren bizkarrean eta ipurdi masailetan jotzen,

eta ondoren beste hiruek segitu zioten jarduera berean. Eta horrela, jo eta jo, hogei bat minutuz aritu ziren, apaizgaien atzeko aldeak odolaren gorritasunaz tindatu arte. Zigorra aski zelakoan Aita Pontzianok lau gazteak askatzeko agindua eman zuen:

- Aski da, aski da! Aska itzazue!

Eta gero lau mutilei zuzenduz:

- Eta zuek, berriz, orain arimaz garbirik zaudete. Jantzi zaitezte lehenbailehen, senda itzazue zuen zauriak eta ohatzera erretiratu. Zinez, espero dut orain bezain garbi jarraituko duzuela denbora luze batez.

- Bai jauna! – erantzun zioten lau apaizgai gazteek.

Gero, zaurien odola ahal bezala xukatu, arropak jantzi eta euren lo-ganberara erretiratu ziren.

- Gizon hau deabru bera da! – esan zuen Xaturrek.

- Deabrua ez, antikristo berbera! – gehitu zuen Juliantxok.

Gau hartan nekez egin zuten lo gure lau lagunek, bizkarreko zauriek ez baitzieten atsedetik ematen. Tarteka oinazeko hasperenak ilkitzen zitzaizkien. Gaueko ordu ttikietan garrasi lazgarria entzun zen ekialdeko barrutian. Apaizgai guztiak, erdi biluzik, zeuden bezala altxatu ziren eta garrasiaren peskizan hasi. Garrasia Aita Bernardinoren gelatik aterea zen antza. Aita Pontzianok gelako atea zabaldu eta bertan ikusi ahal izan zuten Aita Bernardino, lepoa odoldurik, gorpu eginik.

- Lepoa moztu diote! Lepoa moztu diote! Eneee! – errepikatzen zuten bertan zeuden apaiz-maisu eta apaizgai guztiek.

Hurrengo egunean, hileta egin zioten apaizgaitegiko kaperan. Azken agurra eman aurretik, Aita Gillermo buruak hitza hartu zuen:

- Senideok Jesusen fedean, hilketa lazgarriak bildu gaitu gaur hemen denok. Esku hiltzaile batek Aita Bernardinoren bizitza moztu baitu. Dagoeneko, zeruan izanen da Jaungoikoaren eta santu guztiekin batera. Baina guk, hemen gaudenok, ezin dugu horrela gelditu eta gure senidearen hiltzailearekin justizia egin beharra

daukagu. Horixe izanen da hemendik aurrera gure xede nagusia, hau da, hiltzailea aurkitzea eta justizia egitea.

- Ziur antikristoa izan dela! – esan zien belarrira Juliantxok beste hiru lagunei. Hiru gazteek buruaz baieztatu zuten tafallarrak azaldutakoa.

Gau hartan denak beldur handiz oheratu ziren. Gaua arazorik gabe iragan zen. Gosaltzeko orduan den-denak jangelan bildu ziren, den-denak Aita Sebastian salbu. Apaiz-maisu hori puntu-puntu ibiltzen zen beti, horregatik denak zur eta lur gelditu ziren azaltzen ez zela ikustean. Aita Gillermok bere gelara bila joan zitezen agindu zuen, eta bertan topatu zuten urkatuta, sabaiko haga batetik zintzilik. Egun berean, bere hileta egin zuten apaizgaitegiko kaperan, eta bezperan bezala, Aita Guillermo apaiz-buruak hiltzailea xerkatzeko eta zigortzeko xede fermua agertu zuen. Gure lau apaizgai gazteren artean, zurrumurru bera entzun zen:

- Antikristoa izan da!

Hirugarren gauean inork ezin izan zuen lo egin, eta izaren (5) arteko orduak luze, oso luze, egin zitzaizkien denei. Hurrengo goizean Aita Benito topatu zuten labain zorrotz handi bat bihotzean sarturik. Hirugarren aldiz, hiletaren zeremonia errepikatu zen apaizgaitegiko kaperan, eta baita Aita Gillermoren hitzak ere, hiltzailea bilatzeko eta zigortzeko zeukan irrika handia nabarmen azalduz. Lau lagunentzat garbi zegoen nor zen hiltzailea:

- Antikristoa da, dudarik ez egin! – errepikatzen baitzuten, behin eta berriro.

- Erne ibil gaitezen! – gehitu zuen Erramunek--- Orain gu lauon bila etorriko baita!

- Bai, arrazoia duk Erramun, orain gure bila etorriko duk! – Joanesek bere baitan sentitzen zuen ikara gainezka sumatuz.

- Zerbait egin beharko dugu, bada! – Xaturek, galtzetan kaka eginda.

- Badakit, gaur afaltzean, sukaldetik labain bana ostuko dugu, eta gero burukoaren azpian gordeko. Antikristoa guregana hurbiltzen bada, jakingo dugu tresna horiek nola erabili! – Juliantxok.

Esan eta egin. Labain bana ebatsi (6) zuten eta gaua eskua labain- kirtenari helduta, eman zuten. Hirurak aldean soinuren bat entzun zuten.

- Entzun al duzue soinu hori? – galde egin zuen Xaturrek, arrunt izututa.

- Antikristoa da, ziur, eta gu akabatzeraz dator! – Joanesek, guztiz asaldatuta.

- Hil en gaitu! – Erramunek.

- Ez, gure burua defenditzen badugu, bederen! – Juliantxok.

- Defenditu, nola?---beste hiruek batera.

- Burukoaren azpian gordeta daukagun labainaz! – segitu zuen Juliantxok, bere labaina burukoaren azpitik atereaz.

Inork ez zuen ahoa ireki, eta hori ikusita, Juliantxo, eskuan labaina zeramala, korridorera ilki zen. Ordu erdi beranduago itzuli zen.

- Zer aurkitu duk Juliantxo? – galde egin zioten beste hiru apaizgaiek.

- Deus ere ez, ez dut deus aurkitu!

Hori entzun ondoren , denok ohera itzuli ziren berriro. Gau guztian ez zuten aurrekoaren antzeko soinu susmagarririk entzun. Goizeko seiak aldean, kaperako ezki brandaka hasi zen. Apaizak eta apaizgaiak deblauki (8) iratzarri ziren.

- Zer da hori? Nork jotzen du kanpaia? – Galdetzen zioten elkarri harriduraz beterik.

Kanpandorrera sartu eta han ezkilari lotuta Aita Pontziano topatu zuten, hilotz (9), lepoa moztuta. Bere oinetan odolez beteriko labaina eta gutun bat zeuden. Aita Gillermo apaiz-buruak gutuna lurretik jaso eta ahots dardaratiaz ozenki irakurtzeari ekin zion bertan zeuden guzti-guztiek entzun ziezaioten:

- “Ongiak irabaz dezan gaizkia ezabatu behar da, eta Jesukristo gure Jaunaren mezua zabaldu eta nagusitu dadin, antikristoari egin behar zaio aurre”



Han bildutakoen artean, inork ez zuen gutunaren mezua endelegatu (10). Aita Gillermok otoitz sentikorra errezatzeari ekin zion. Segidan, bertan zeuden guztiek debozio handiz segitu zioten. Arratsaldean, denak kaperan bildu ziren Aita Pontzianoren hiletan parte hartzeko asmoz. Den-denak isilik ziren, kaperan baino gehiago kanposantuan zeudela zirudien. Elizkizunaren hondarrean Aia Gillermok hitza hartu zuen gertatuaz azalpena eman nahian:

- Senideok Jesukristoren fedean, azken egun hauetako hilketak bukatu direla uste dut. Aita Pontzianoren gorpua topatu dugunez geroztik, haritik tiraka aritu naiz, hortik eta hemendik, eta dagoeneko mataza osoa askatu dudala uste dut.

Isiltasunak nagusi segitu zuen, inork ez baitzuen txintik ere esan. Apaiz-buruak azalpena emateari jarraitu zion:

- Denok ederki ezagutzen genuen Aita Pontzianoren eta bere hiru menpeko apaiz-maisuen artean zegoen ezin ikusia, azken hiru horiek mesfidantzaz eta bekaitzaz ikusten baitzuten euren buruaren autoritarismo zakarra. Ez, Aita Pontziano ez zen oso maitatua, eta lagunak egin beharrean, etsaiak eta arerioak egiten zituen nonahi. Aspalditik sinisten zuen antikristoa gure apaizgaitegiko lau pareten artean zebilela eta horren atzetik ibilia izan da urte luzetan. Hori dela eta, aunitzetan lagun hurkoa mespretxuz, indarkeriaz eta nagusikeria handiaz tratatzen zuen. Eta guretako askok hori ez diote sekula barkatu. Aita Bernardinok, Aita Sebastianek eta Aita Benitok ez zuten asko estimatzen, eta sarritan liskar handietan ibilia ziren zendu berriarekin.

Azkenean, bere menpeko apaizekin asperturik eta hiruetako bat antikristo berbera zelakoan, banan banan akabatzea erabaki zuen. Haatik, hilketa hauek egin ondoren, zalantza etorri zitzaion burura eta egindakoaz ahalketurik, antikristoa bera zela pentsatzera iritsi zen.

Goizean irakurri dizuedan aitorkizuna idatzi zuen eta ondoren, bere gorputza kanpaiari lotu. Azkenik, bere buruaz beste egin zuen sukaldetik hartutako labain batez eztarria moztuz. Odolusten ari zelarik, indar handiz mugitu zen ezkila astinduz eta joaraziz, guztiok bere heriotzaz jabe gintezen. Gu iritsi ginenerako azken hatsa emana zuen. Hortik aurrerako guztia nik bezain ongi ezagutzen duzue.

Otoiz egin dezagun Aita Pontzianoren arimaren alde, Jaungoikoak bere hilketa lazgarriak barka diezazkion, barkagarri diren neurrian.

Kaperatik irtetea denak ari ziren kontu-kontari apaiz-buruak azaldutakoaz. Batzuentzat guztiz sinesgarria zen, besteentzat, berriz... Gauza da, handik aurrera hilketak amaitu zirela. Ekialdeko barrutian lau apaiz-maisu berri ezarri zituzten, Aita Koxme bihozbera buru zutela. Egunak joan egunak jin, historia lazgarri hura ahazten joan zen eta apaizgaitegian bestelako gaiek eta gertaerek eman zieten segida. Entzun dezagun orain handik urtebetera gure lau apaizgaien arteko solasaldia:

- Aizue, zuek benetan uste al duzue Aita Pontzianok beste hiruak akabatu zituela eta gero bere buruaz beste egin zuela?---Joanese.

- Nik bai! – Erramunek.

- Baita nik ere! – Xaturrek--- Eta hik, Juliantxo?

- Ez zakiat ba. Auskalo!

## MENTABERRI KAPITAINA ETA NAZIAK

Bigarren Mundu Gerraren garaia zen eta alemaniar naziak Lapurdiren jabeak ziren. Aliatuen erasoaldi handi baten zain zeuden eta hori dela eta, nonahi eraiki arazi zituzten bunker gotorrak. Eguna kostaldean ematen zuten largabista eskuan zutelarik. Euskaldunentzat bizitzak bere gordintasun osoan jarraitzen zuen, eta eguneroko ogia irabazi behar zenez, gerraren gorabeherak ahazturik ohiko jardueretan aritzen ziren. Arrats hartan portu aurreko Balea izeneko ostatua jendez gainezka zegoen. Barra aurrean zenbait arrantzale hizketan ari ziren. Aurrean txarroa bete ardo zeukaten. Teofilo Bentaberri kapitaina eta bere eskifaiako hiru gizon ziren.

- Ixtebe, etxera afaltzera erretiratu aurretik, hola etxez etxe eta erran gure gizonen bihar goiz goizean itsasontzian nahi ditudala. Itsasora aterako gaituk-eta.

- Ongi da Mentaberri kapitaina, zuk esan bezala egingen dut. Baina alemanek ateratzen utziko al gaituzte?

- Bai gizona, atzo mintzatu ninduan alemaniar komandantziako buruarekin eta ateratzeko baimena sinatu zidaan, beraz, ez diagu arazorik izanen.

- Eta nola lortu duzu hori kapitaina? – Koxepe lemazainak.

- Atzo gauean Bhörd komandantea gure etxera gonbidatu nian eta bapo afaldu ondoren kontrabandozko botila whisky zorbait eman nizkion. Ondoren, Kaitxoko ostatura eramane nian eta han neska eder batzuen beso artean jarri ondoren, gaur ateratzeko baimena eskatu nioan. Ez zuan ezetz erraiteko gauza izan.

- Biba kapitaina! – Koxepe, alaitasuna ezin kontuz--- Bakarra zara jauna, bakarra!

- Nik dakidala beste nehor ez da bihar aterako. Itsaso ederra dago, baina alemanak aliatuen itsas erasoaldi handi baten beldur dira, eta ez daude inolako arriskurik jasateko prest. – moztu zuen Laurentx izena zuen hirugarren marinela..

- Bai, hala duk Laurentx! – ihardetsi zion Mentaberri kapitainak--- baina kontrabandozko whiskyak eta emakume politek edonor beratu zezaketek, eta edozeinen iritzia aldatzeko moduko aitzakiak dituk.

Hori esanda, Teofilo Mentaberri kapitainak sator larruzko poltsa atera zuen patrikatik eta ardoa ordaindu zion ostalerari. Ondoren, lau lagunak ostatutik irten ziren eta norberak bere etxerako bidea hartu zuen.

-----

Eguna argitu gabe zegoen oraindik, eta ordurako Mentaberri eta bere gizon guztiak portuan ainguraturiko Eskual Herria arrantzuntzian zeuden. Teofilo Mentaberrik eskuan zeukan Bhörd komandanteak emandako baimena. Gizonak belak altxatzen hasi zirenerako gestapoko bi gizon, arrunt armaturik, ontzira igo ziren. Kapitainarengana hurbildu eta eskua nazien modura luzatuz agurtu zuten.

- Heill Hitler! Ateratzeko baimenik ba al duzue kapitaina?

- Bai, hementxe daukat. – Eta deus gehiago erran gabe, sakelatik baimena atera eta gestapoko gizonetako baten eskuan jarri zuen. Horrek alemaneraz idatzitako testua lasai irakurri zuen eta gero komandantziako komandantearen sinadura eta zigilua egiazkoak zirela ziurtatu ondoren, bere adostasuna adierazi zion.

- Bai, ongi dago. Atera zaitezkete. Agur!

Gestapokoak aldendu bezain laster, itsasoratzeari ekin zioten. Gizonak poz-pozik zihoazen sosa zenbait poltsikoratuko zutelakoan. Ordubeteko bidea egin ondoren Mentaberrik gelditzeko eta sareak botatzeko agindua eman zuen. Bertan eman zuten ia egun osoa. Arratserako arrantza izugarri ona zeukaten ontzi gainean. Sareak jasotzeari ekin zioten. Arrantzaleek itsasontziaren gainean jira-biraka zebiltzan kaoiak baino alaiagoak ziruditen. Branka aldean lanean ari zen marinel zahar baten kantua denon belarrietara sartzen zen bere kresal usainaz ziprztinduz.

- Itsasoa laino dago  
Baionako barraraino  
Nik zu zaitut maiteago  
arraintxuak ura baino,  
nik zu zaitut maiteago  
txoriak bere umeak baino.  
Hendaiako itsas kabi  
marinelen laket-toki,  
Hendaiako itsas kabi  
arrantzaleen bizitoki.

Bat-batean urpekuntzi handi bat atera zen itsasoaren sakontasunetik eta aurrez aurre jarri zitzairen. . Arrantzaleek, asaldatuta, itsasotik ateratako munstro modernoari begiratzen zioten izu handiz. Ikaragarri handia zen. Dorre moduko batean nazien esbastika ikus zezaketen. Halako batean goiko aldeko sabaian zeukan leiho modukoa zabaldu zen eta bertatik bospasei gizon irten ziren. Erdian kapitaina zirudiena zegoen eta ezker-eskuin beste gizonak esbastikez josiriko kasko naziekin eta metraileta eskuan. Kapitaina ematen zuenak bozgorailu moduko bat eraman zuen ahora eta horrela frantses txar batez mintzatzen hasi zitzairen.

- Heill Hitler! Nor da zuen kapitaina?

Mentaberrik, oso frantses gutxi zekienez, ulertzeko zailtasunak zituen.

- Ni, ni naiz kapitaina! – erantzun zion frantsesetik ezer gutxi zuen erantzuna emanaz.

Kapitain alemaniarrek galdezka jarraitu zuen.

- Eta zuek zer zarete, germanofilo ala anglofilo?

Oraingo galdera gehiegizkoa zen Mentaberri kapitainarentzat. Alabaina, zerbait ulertu zuelakoan, horrela erantzun zion:

- Ni, Teofilo!!!

## KONTRABANDISTA ETA KARABINEROA

Euskal Herri zatitu eta ukatu honetan badira mugarekin eta kontrabandoarekin loturiko makina bat istorio. Horietako bat orain segidan kontatuko dizuedana.

Joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan mendizorriek Iparraldera zeramaten bide guztiak kontrolatzen zituzten arren, baziren kontrabandoan aritzen ziren lagun ugari, bai Pirineoaren alde batean zein bestean; eta arrotzek ezarritako sasi-muga familia askoren diru-iturri bilakatu zen. Txominek horretan jarduten zuen. Goizero, lehen argi izpiekin batera, bizikleta hartu eta hor abiatzen zen bizi zen Nafarroako Bera herritik, Ibardineko lepotik barrena, Lapurdiko Urruñia aldera. Eta arratsaldero, bide bera eginez baina alderantziz, hau da, Urruñatik Berara, muga zeharkatuz bere etxera itzultzen zen.

Bidean zeuden karabinerook egunero gelditu eta miatzen zuten, baina alferrik beti, inoiz ez baitzioten deus aurkitzen. Karabineroen buru zen Andres Sanchez sarjentuak sobera ezagutzen zuen Txomin Irazoki beratarraren jarduera, baina horretan buru-belarri saiatu arren, inoiz ez zuen kontrabandoa esku artean harrapatu. Egunero bi aldiz geldiarazi eta miatu egiten zuten, goizero Lapurdira pasatzean, eta arratsaldero Nafarroara itzultzean. Eta beti, ezer topatu gabe, joaten utzi behar izaten zuten.

- Madarikatua, nik bazekiat zertan ari haizen, eta egun batean, berandu baino lehen, nire eskuetan eroriko haiz! Harrapatuko haut eta orduan jakinen diagu zer pasatzen duan! – pentsatzen zuen horrelakoetan karabineroen sarjentuak.

Baina egunak joan eta egunak etorri egoerak berean jarraitzen zuen. Txominek egunero, bere txirrinduaz, muga zeharkatzen zuen, Andres Sanchez sarjentu saiatuaren agindupeko gizonen miaketa jasan ondoren.

Hogeita hamaseian piztutako zorigaiztoko gerrak egoera arruntean aldatu zuen. Erreketeak Beran sartu ziren herritarrak sarraskituz eta presondegiak era guztietako jendeaz betez. Doneztebeko ziega batean Txomin Irazoki kontrabandista eta Andres Sanchez sarjentua topatu ziren. Gaua zen eta goizeko lehen orduetan fusilatu behar

zituzten beste aunitz herritarrekin batera. Hil aurreko oren luze haiek bien arteko solasa erraztu zuten.

- Aizak Txomin, hi zergatik hago hemen? – karabineroak bien arteko isiltasuna urratuz.

- Eusko Abertzale Ekintzakoekin ibilia naizelako. Badakik abertzalea nauk-eta. Eta hi, karabinero izaki, nola hago hemen, ziega honetan?

- Errepublikaren alde egin dudalako, horixe duk nire bekatu bakarra.

- Hi karabinero eta ni abertzale, gauza duk bihar goizean biok elkarrekin fusilatuko gaituztela! – Txominek, arras etsiturik.

- Bai gizona, oraintxe erran duk egia. Hainbertze kontu eta hainbertze komeria eta azkenean, biok pareta beraren kontra hil behar! – sarjentuak.

- Hauek ez ditek barkatzen, eta ez zekitek zer den gupida! – beratarrak.

- Bai, gureak egin dik! – karabineroak, ahots itzaliaz.

- Aizak Txomin! – sarjentuak, berriro ere--- Barkatuko duk nire atrebentzia, baina hil aurretik galdera bat egin nahiko niake.

- Aurrera gizona, aurrera! Galde ezak nahi duan guztia!

- Hi egunero pasatzen hintzen Ibardinetik barrena, hire bizikletaren gainean, eta nahiz eta nik kontrabandoan aritzen hintzela sobera jakin, inoiz ezin izan nian deus harrapatu. Zer pasatzen huen beste aldera? – sarjentuak jakin-minez.

Beratarra zenbait minutuz isildu zen, aitorpenaren beldur edo, baina hilzoriko une haietan bere sekretua gordetzeak ezer gutxirako balio ez zuelakoan, garbi erantzutea deliberatu zuen.

- Bizikletak gizona, bizikletak pasatzen nitian!!!

-----

Baina, gure bi gizonen zorionerako historia ez zen hurrengo goizean amaitu. Goizgoizean, ziegako atea zabaldu zutelarik, kartzelariak sei izen oihukatu zituen, ondoren bere sikarioek gizagaixo haiek hartu eta fusilatzera eraman zituzten. Sei haien artean ez ziren ez Txomin kontrabandista eta ez Andres Sanchez karabineroa. Zigorra aldatu zieten nolabait, eta biak langileen batailoietara, lan behartuak egitera, bidali zituzten. Zortzi urte beranduago libratu eta euren etxeetara itzuli ziren.



## DEABRUA TEILATU GAINEAN

XIX. mendearen bukaera aldean Jaizkibel mendian, Guadalupeko gotorlekutik hurbil zegoen baserri batean Ameriketatik etorritako osaba indianoa hartzen zuten. Familia osoa baserriaren atarian zegoen, osaba etorri berriari harrera egiten, etxekoandre alarguna eta lau seme-alabak.

- Egun on osaba Pello, berori ezagutzeko irrikan ginen. Amak askotan kontatu digu zein gazte eta ausarta zen Ameriketara diru bila joan zenean. – ilobetako batek.

- Eta hi Josetxo izango haiz, ezta? Familiaren itxura harrapatzen diat.

- Bai Pello, Josetxo duk, gure semerik zaharrena. – aldamenean zegoen Ixabel etxekoandreak.

- Ixabel, arreba maitea, beti bezala hago! Denbora ez al dun pasatzen hiretzat ala?

- Ixo, ixo aluita, beti bezain zurikero segitzen duk. – Ixabelek, pozaren pozez.

- Eta hauek – Josetxoren ondoan zeuden bi neskei eta mutil gazteari begiratzuz-- Maialen, Iñaxi eta Antton izango dira, ezta? – osabak.

- Zein izango dira ba, Guadalupeko apaizaren seme-alabak, ala? – Ixabelek bere nebaren hitzak moztuz.

Harrera egin ondoren etxeko sukaldera sartu ziren. Ixabelek bazkari ederra zeukan prest mahai gainean. Bazkaltze bitartean kontuak eta gertaerak izan ziren nagusi. Osabak Ameriketara ikusitakoak eta bizitutakoak kontatzen zizkien hitz handiz eta imintzio handiagoz. Etxekoandreak eta lau seme-alabek aho zabalik entzuten zioten. Denak pozik zeuden, edo behintzat, horrela ziruditen, baina Pellok, hitz eta irribarreen artean, etxe hartan zerbait gertatzen zela sumatu zuen. Alabaina, goiz samar iruditu zitzaion horretaz galdetzeko, eta gerorako laga zuen.

Gau hartan bere txikitako gelan egin zuen lo. Arreba Ixabelek txukun-txukuna zuen dena. Bazirudien urteak ez zirela pasa izan gela hartan, dena Ameriketara joan

zenean utzi zuen bezala baitzegoen. Horman eskegita zegoen ispiluan bere burua ikusi zuen, eta orduan konturatu zen joandako urteez. Hemezortzi urterekin alde egin zuen etxe horretatik, eta orain berrogeita lau urte beranduago, berriro itzulia zen jaiotetxera. Bai, hirurogeita bi urte zituen eta hori nabarmen ikusten zen ispiluan. Urte gehiago zuen bizkar gainean, baita, Jaungoikoari esker, sosa gehiago ere poltsikoan. Ameriketan lan handia egin zen, baina horri eskerrak poltsikoa ederki bete zeukan orain. Urrutiko lurralde haietan ez zuen inoiz astirik izan nesken kontuetan pentsatzeko, eta orain beranduegi zen familia bat egiteko. Hori bai, arreba alarguna eta bere familia laguntzeko prest zegoen. Huraxe izango zen hortik aurrera, berak egiten jakin ez zuen familia. Gogoetari emana zegoela, soinu handi bat sumatu zuen bere gainean. Bazirudien norbait ari zela teilatu gainean teilekin jostatzen edo. Hura buila. Zarata bukatzen ez zenez gelatik atera zen kriseilua (4) eskuan zeramala. Korridorean Josetxo ilobarekin egin zuen topo.

- Baina, Josetxo, zer gertatzen da teilatuan?

- Deabrua da osaba, askotan etortzen zaigu gau aldean, eta teilatuan aritzen da jauzika eta garrasika.

- Baina zer diok Josetxo? Zer deabru eta zer deabru-ondo?

Momentu horretan Ixabel bere gelatik atera zen izu aurpegiaz.

- Ai Pello, Pello, lehen ez diat deus kontatu hire etorrera ez iluntzeko, baina duela hilabete batetik hona deabrua etortzen hasi zaiguk eta gau aldean esnatzen.

Teilatuan kolpeak, jauziak eta garrasi ozenak entzuten ziren. Beldurra zen familia haren nagusi. Pello bera kikildu zen zenbait momentutan. Baina gero, kriseilua eskuan zuela kanpo aldera atera zen teilatu gainean zebilena ikusi nahian edo. Josetxo atzetik atera zen. Ilargiaren ilun-argitan gizaki beldurgarri bat ikusi zuten, okertu samar zebilena. Begira ari zitzaizkiola ohartzean, oihuka hasi zitzaien eta halako batean teila bat jaurti zien indar handiz. Gero jauzi azkarrak eginez beraiengana hurbildu zen. Hori ikustean osaba-ilobek ihesari ekin zioten eta etxean sartuta atea itxi zuten tranka jarriz. Deabrua berriz, atean joka hasi zitzaien atea astinduz eta mugituz. Barruan, denak zeuden esnatuta ordurako, esnatuta, eta ate

ondoan elkarren ondoan, besarkaturik, isilik eta kaka-kaka eginda. Azkenean, argiaren lehen printzekin batera, deabruak alde egin zuen.

- Hau gaua! Oso gutxitan pasa dut bart pasa dudan beldurra! – osaba Pellok.

- Horrela da osaba, horrela da. Askotan etortzen zaigu eta arrosario santua errezatzen aritzen gara denok goizaldea esnatu arte! Akiturik gaude, akiturik eta beldurturik.

- Horrela ez zagok bizitzerik Pello! Egunak joan eta egunak etorri eta deabru gaizto horrek hor segitzen dik dantzan gure teilatu gainean – Ixabelek.

- Bai, horrela ezin da bizi. Zerbait egin beharko dugu – osabak--- eta Josetxo eta Anttoni begira--- badakit, gaur gauean zelatan egongo gara kanpo aldean, zuhaitzen artean, eta deabrua etxera hurbiltzen denean zaku batean sartu eta makilakadaz akabatuko dugu.

Esan eta egin. Iluntzean kanpo aldeko zuhaitzen artean ezkutatu ziren hiru gizonak eta zelatan izan ziren deabruaren zain. Halako batean, etxera zihoan bidetik barrena deabruaren irudi konkortua hurbiltzen ikusi zuten. Beso luze-luzeak zituen eta ibiltzean arrastaka zeramatzan. Ez zen oso garaia, baina bai sendo eta indartsua. Etxera hurbiltzean, Pello atera zen eta zakua burutik behera sartu zion. Deabruak garrasi beldurgarrik jaurtitzen zituen, eta indarka ari zen zakutik libratu nahian. Pellok indar handiz heltzen zuen aska ez zedin.

- Orain, orain! Jo ezazue, jo ezazue! – agindu zien garrasika bere bi ilobei.

Bi gazteak makila dantzatzen hasi ziren indar oroz. Deabrua ez zen isiltzen eta eroaren gisa ari zen garrasika eta indarka. Bi gazteek indar handiz hebaindu (5) zuten, eta azkenean deabrua hil egin zuten..

- Goazen mutilak, zulo bat egin dezagun eta ehortzi dezagun deabru gaizto hau! – osabak.

- Ez, Pello ez! – etxetik atera berria zen Ixabelek--- Ez dezazuen ehortzi, deabrua gauza baita lurretik ateratzeko eta berriro pizteko. Erre egin ezazue!

- Arrazoa dun Ixabel, erre egingo dinagu! – osaba Pellok.

Eta esan bezala, egin zuten. Sasiak eta egurrak bildu eta berehalaxe sua egin zuten. Bertara bota zuten deabrua gordetzen zuen zakua. Suak kiskali zuen betiko.

Familia poz-pezik zegoen, txoriak baino alaiago. Akabo deabru gaiztoa! Hura bakea! Egunez lan egiten zuten eta gauetz lo, azkeneko garaietan egin ezin izan zutena. Hura lasaitasuna! Hura bizimodua!

Handik lau-pabost egunetara Guadalupeko gotorlekuko soldaduak baserrira hurbildu ziren.

- Horiek zer, orain ere, oiloak lapurtzera al datoz? – Esan zion Ixabelek bere nebari okerrena pentsatuz.

- Egun on? Ikusi al duzue egun hauetan gure tximua? – soldaduek.

- Tximua, zer da hori? – Ixabelek, harrituta eta esaten zieten ezin ulertuz.

- Bai, gure tximua. Lagun batzuek Afrikatik ekarri digute eta maskota gisa izan dugu orain arte. Gauero paseatzera atera egiten zen eta gero egun argitan bueltatu, baina badira lau-pabost egun itzuli gabe. Ikusi al duzue?

Oharra: Istorio hau Jesus Mari Mendizabal “Bixargorri” lagunari entzundako kontakizunean oinarritzen da.

## ARGIAREN IKUSKATZAILEA

XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan miseria handiak igaro behar izan zituzten Hegoaldeko euskaldunek. Gerra bukatu berria zen eta zapalketa basatiaz gain elikagaien urritasun gorria zegoen. Baina, hala eta guztiz ere, nolabait bizi behar, eta orduko gizon-emakumeek era guztietako martingalak eta trikimailuak eginez, aurrera egin zuten. Biziraupenaren arauak ziren nagusi garai hartako eguneroko bizimoduan. Dirurik ez zegoen gizarte hartan irudimenari ekin behar zitzaion, edo bestela izugarrikeria haietan murgildurik betiko desagertu. Dena zen zaila, den zen gaitza pobrezia hartan, baita argindarraren faktura ordaintzea ere. Elektrizitatea behar, baina ezin ordaindu, hura zen komeria, hura!

Etxe guztietan kontagailu bana zegoen arren, hagitx zabalduta zegoen kontagailuan sartu aurretiko kableetan ipintzen zen tranpatxoa, eta ia etxe guztietan horrelako bat jarrita zeukaten. Argiaren konpainian arras kezkatuta zeuden zelako argi-tranpa harekin, beraren erruz euren irabaziak izugarri murrizten baitziren, eta hori zela eta inspektore edo ikuskatzaileak jarri zituzten. Haien lana zera zen, etxez etxe, abisatu gabe, ibiltzea, jendeak ezarritako tranpak harrapatzeko. Eta horrela eginki, laster hiritar askoren amets gaizto bilakatu ziren. Baina atsotitzak dioen bezala “Gaitz handiei konponbide handiak” eta herritarrek horrela egin zuten. Etxe batean ikuskatzailea sartzen ikusten zutenean, txistuka eta oihuka hasten ziren denak, tranpatxoa zuten bizilagunek, horrela oharturik, tranpa kentzeko denbora eduki zezaten. Eta azkenean, herritarren eta argi-ikuskatzaileen artean halako lehia sortu zen.

Ikuskatzaile haietako bat Felixiano zen, eta Donostiako zenbait auzategitan aritzen zen. Beldurgarria zen eta biziki iaioa bere jardueran; mihi txarrek kontatzen zutenez, Amara auzoan hogeit hamar familia baino gehiago harrapatu baitzituen. Korrika mugitzen zen alde batetik bestera, eta ustekabean sartzen zen denda zein etxebizitzetan argi-tranpa ugari aurkituz. Goiz hartan etsiturik zebilen, ez baitzuen inor harrapatzen. Eguna Donostiako Alde Zaharrean eman behar zuen, enpresak ederki baitzekien bertan tranpa ugari zeudela. Bertako bizilagunak ongi prestaturik

zeuden eta ikuskatzailea atari batean sartu orduko, hor hasten ziren denak oihuka bertakoak arriskuaz ohar zitezen.

- Erne, badoa Felixiano! Erne, badoa Felixiano!!! – oihu egiten zuten.

Oihuekin batera, era guztietako soinuak entzuten ziren, normalean zabalik izaten ziren ateak ixten eta tranpak kentzen, baita Felixianok ateetako aldabak joaz egindako hotsak ere. Danba, danba, danba!!!

Tranpa kentzeko eta kableak ongi uzteko hiruzpalau minutu inguru behar zirenez gero, hori egin bitartean inork ez zuen etxeko atea irekitzen, eta denbora tarte horretan bizilagunen oihu eta hotsek, baita Felixiano gizagaixoaren letaniek ere, etenik gabe jarraitzen zuten.

- Danba, danba, danba!!! – aldabak joaz--- Ireki ezazue atea! Ireki, lapur horiek! Badakit tranpa kentzen ari zaretela! Zabaldu, zabaldu atea! Danba, danba, danba!!! – aldabak indar handiagoaz joaz.

Batzuetan, etxeko gizonak etxean egon ez, eta orduan etxekoandreak hor ibiltzen ziren artega eta trakets tranpa kendu nahian, hiruzpalau minutuko lana zena dezente gehiago luzatuz. Hori gertatu zitzaion goiz hartan Anjelita gaixoari. Xerapio senarrak erakutsia zion makina aldiz trikimailu hura arin kentzeko modua, baina gauza bat da horretan lasai ederrean aritzea, eta oso bestelakoa Felixiano gaiztoa etxeko aldaba joka edukitzean sortutako presiopean. Eta horrela Anjelita gogotik ahalegindu arren, ez zuen tranpa madarikatu hura kentzea lortzen. Bitartean, Felixiano hor ari zen etxeko aldaba joka eta oihuka.

- Danba, danba, danba!!! Anjelita lapurra, ireki ezazu atea! Badakit tranpa kentzen ari zarela! Zabaldu, zabaldu atea bizkor! Danba, danba, danba!!!

Azkenean, estutasunak Anjelitaren burua bizkortu zuen eta...

- Ixo nazkante hori, ixo! Txukuntzen ari naiz eta biluzik nago. Zer nahi duzu, piura honetan nagoela zuri atea zabaltzea ala? Utzidazu denbora jantzi nadin!

Felixianok ez zuen Anjelitak esandakoa sinistu, baina eskaileretan biltzen hasita zeuden bizilagunak ikusita, kikiltzen hasia zen eta bada ezpada ere, ez zuen

oihu gehiago egin, ezta aldaba gehiago jo egin ere. Bizilagunek, berriz, inguratu egin zuten eta bultzaka hasi zitzaizkion.

- Felixiano txerria, utz ezak Anjelita bakean. Zer nahi duk, larru bizitan ikusi, ala? Lizun lotsagabe hori!

Hamar minutu inguru pasa ondoren, Anjelitak tranpa kendu ahal izan zuen, eta burua harraskako kanilaren azpian sartuz ilea busti zuen; gero biluztu zen eta xukadera bat jarri zuen gorputzaren buelta osoa estaliz, eta bigarren xukadera bat buruan, durbante modura ezarri. Gisa horretan ireki zion bere etxeko atea Felixiano inspektoreari.

- Hau presa gizona! – planta eginez--- Zu ez al zara txukuntzen? Ez dago eskubiderik! Etxean ere, ezin dugu biluztu! Hau komeria, hau!

Felixianok ez zuen txintik ere esan. Etxera sartu eta zuzen-zuzenean sukaldera abiatu zen, freskeraren alde batean kokaturiko kontagailua aztertzerako. Baina berandu samar zen, ordurako Anjelitak tranpa kenduta eta ederki jaso baitzuen. Amorruren amorruez eta agurtu gabe, Felixianok alde egin zuen etxe hartatik.

Kalean gora, kalean behera zebilela, espartin-denda baten aurrean pasatzen ari zela, bertako nagusia eta mutikoa hizketan entzun zituen:

- Patxi, kendu ezak tranpa!

- Bai nagusi, berehalaxe!

Huraxe zen Felixianok zorigaiztoko goiz hartan bilatzen zuen aukera, eta gehiago pentsatu gabe, atea bultzatu eta tximista bezain laster, espartin-dendara sartu zen.

- Lapurrak! Harrapatu zaituztet!

Inork ez zion erantzunik eman, eta bertakoen aurpegi harriduraz ohartu gabe, mutikoa zihoan gelara sartu zen eroaren gisa.

- Baina, baina...! – esan zuen mutikoak, gehiago esateko denborarik gabe, momentu berean Felixianoren garrasi lazgarriak denon isiltasuna urratu baitzuen---

Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!! Eta segidan zartako handi baten soinua: danbaaa!!!  
Gero...

- Ai, ai, ai! Hau da, hau! Lagundu mesedez! Lagundu! Ezin naiz mugitu ere egin.  
Gorputzaren hezur guztiak hautsi zaizkit! Ai, ai, ai! Lagundu!

Nagusia eta mutikoa gelara sartu ziren eta argia piztu. Orduan ikusi zuten  
Felixiano gizagaixoa biltoki gisa erabiltzen zuten bi metro sakon zituen tranpa-zuloan  
luze erorita eta aieneka.

- Ai ama, ai ama! Hau mina! Niri gertatu behar! Ai ama, ai ama! Atera nazazue  
zulo honetatik!

-----

Nagusia eta mutikoaren artean, Felixiano zulotik atera eta ospitalera eraman  
zuten. Bertan denbora luze egin zuen hautsitako saiheits guztiak osatzeko. Azkenean,  
sendatu eta ospitaletik atera zenerako, gizon hura ez zen garai bateko Felixiano  
azkar eta lasterra, erdi herrena geratu baitzen, eta hori zela eta, argindarraren  
enpresatik bidali zuten. Orduz geroztik, hil arteko urteak Donostiako Alderdi-Ederren  
pirulinak saltzen eman zituen. Lasaitasun ederra hartu zuten garaiko donostiarrek!



## JOXE BAZTANDARRA MADRILERAKO TRENEAN

Joxe Azpilikueta baztandarra zen, Elizondokoa. Baziren sei hilabete alargundua zela eta bi alaben aita zen. Mari Karmen zaharrena Donostiara ezkondua zen eta hiru seme-alaben ama zen, eta bigarrena, Edurne, beste baztandar batekin ezkondua zegoen eta bi mutikoren ama zen. Honen senarraren enpresak Madrilen jendea behar zuela eta, harantz joateko eskaintza egin zion, eta onuragarria iruditu zitzaionez gero, hango bazterrera joanak ziren guztiak denbora batez bizitzera.

Azkeneko sei hilabeteetan, Joxe bakarrik bizi izan zen Elizondoko bere etxean. Goizean mendira joaten zen pasioa egitera, arratsaldean lo kuluxka, eta arratsean herriko ostaturaz ostaturaz ibiltzen zen bere lagunekin zenbait basoerdi edanez. Joxe bapo bizi zen, ez zen kexu. Emaztea bizi izan zen bitartean, alabak eta bere familiak Eguberriko bestak igarotzera Elizondora hurbiltzen ziren, baina urte hura ezberdina zen, Elizondoko etxean aitatxi bakarrik bizi baitzen. Hori dela eta, bi alabek honela erabaki zuten. Aita Donostiara joanen zen Olentzero Gaua eta Eguberri Eguna pasatzera, eta bertako trena hartuta gero, Madrilerara joanen zen Urte Zaharra eta Urteberria igarotzera.

Eguberriak iritsi zirelarik, horrela egin zuen Joxe gureak. Maleta prestatu eta autobusez Donostiaraino abiatu zen. Amarako bus-geltokira iritsi zenerako han zituen alaba, suhia eta hiru bilobak zain. Hura poza hango familia berriro ikustean! Joxe poz-pez jaitzi zen eta musuz eta besarkadaz agurtu zuten elkar. Mikeltxo eta Fermintxo bilobek maleta hartu zioten eta arrastaka, ahal zuten moduan, zeramaten. Ainara ttikiak, berriz, eskutik helduta zeraman aitatxi. Aste ezin hobea eman zuen Donostian. Bere bilobekin batera Olentzero etortzen ikusi zuen eta Gabon Gaua eta Eguberri Eguna ederrak eta zoriontsuak pasatu zituen, xanpainaz eta turroiaz gainezka. Inozenteen egunean, hau da, abenduaren 28an, trena hartu zuen Donostiako geltokian. Mari Karmen alabak bere bagoiraino eramane zuen eta Joxe Mari suhiak maleta bere eserleku gaineko apalean ezarri zion. Ondoren, treneko leihatilatik ikusi zituen bere alaba, suhia eta bilobatxoak distantzian urruntzen. Ainarak zapi zuria astintzen zuen etengabeki agur gisa. Familia begi bistatik galtzean bere eserlekura joan zen.

Bagoira sartzean, ezker-eskuin begiratu zuen eta dena leporaino beteta zegoela ikusi. Bere tokia ate ondokoa zen. Leiho ondoko jarlekuan andre sendo lodikote bat zegoen, dotore-dotore jantzita. Erdi markesa horietakoa iruditu zitzaion. Eta erdiko eserlekuan, hau da markesa dotorearen eta Joxeren arteko jarlekuan, aurrekoaren senarra zirudiena. Aurrez aurreko eserlekuetan andre gazte polit bat eta bere bi alabatxo. Esertzera zihoala neskabila horietako batek, barrea ezin kontuz, Joxe ohartu zuen:

- Jauna, bizkarrean paperezko panpinatxo bat daramazu! Ka, kar, kar! – bi neskatoak batera algara handiz.

- Ixo, ixo! – beraien ama lotsaz gainezka, eta bere alabatxoen lotsagabekeria nola konpondu ez zekiela.

Joxek, ez zuen txintik ere esan. Eskuineko eskua bizkarrera eramane zuen eta panpina hartu. Bertan bere bilobetako batek idatziriko mezua irakurri zuen: Munduko aitaxi jatorrena zara. Aunitz maite zaitugu. Irribarre alegera marraztu zen baztandarraren aurpegian. Gero bere jarlekuaren goxoan babestu zen.

Trena aurrera zihoan abiadura handiz. Denbora, berriz, lasai. Joxek urduritasun handiz begiratzen zion erlojuari. Orratzak poliki-poliki mugitzen zitzaizkion. Joxerentzat hura zen munduko azken muturrerako bidaia. Han ezin zuen deus egin, eserita egon eta gogoetei ekitea ez bazen.

Trenak, mugitzean, doinu aspergarria egiten zuen: ttuku-ttuku-ttuku-ttuku!

Loak hartzen zuen tarteka, baina hura ez zen Elizondoko bere ohatzea, eta ezin zuen kuluxka gustura egin. Horietako batean, trenak, ohikoa baino astindu handigoa egin zuela iruditu zitzaion, begiak zabaldu eta hantxe ikusi zuen bere maleta goiko apalean kulunka, azpiko bidaideak, hau da, markesa eta bere senarra mehatxatuz. Arrunt asaldaturik Joxe altxatu egin zen, eta maleta ongi ezartzeari ekin zion. Maniobra horretan ari zela, markesaren oina zanpatu zuen nahigabea. Joxe ez zen deusetaz ohartu emakumearen garrasia entzun arte:

- ¡Aiiiiiiiiiii! ¡Asesino! (Hiltzaile halakoa!)

Joxe ikaraturik, barkazioa eskatzen ahalegindu zen bere erdara txarrean:

- Ustes perdone. No haber hecho queriendo. (Barka iezadazu, ez dut nahita egin)

Baina emakumeak zakar jarraitu zuen:

- Y además vasco. Ya me parecía a mí que un criminal de sus características no podía ser de otro lugar. (Eta gainera euskalduna! Zu bezalako hiltzailea, nahita nahi ez, euskaldun izan behar)

Senarra zirudienak heziketa handiz moztu zuen:

- Margarita, no seas grosera. Este señor no te ha pisado a posta. Y el que sea vasco o cosaco no tiene nada que ver con su talante. Deberías disculparte. (Margarita, ez izan gaiztoa, gizon honek ez zaitu nahita zanpatu. Eta zuri zer axola euskalduna edo kosakoa den. Barkamena eskatu beharko zenioke)

Emakume dotore ahobeltzak ez zion kasu handirik egin, eta mespretxuzko aurpegia jarriz, burua okertu eta leihatilatik begira jarri zen.

Joxe gaixoa, zer esan eta zer egin ez zekiela, bere jarlekuan eseri zen. Orduan markesaren senarra barkaziozko hitzez desenkusatu zen:

- Usted perdone. Mi mujer tiene un carácter muy fuerte y no está acostumbrada a pedir disculpas. Le ruego acepte las mías. (Barka ezazu. Nire emaztea oso izaera gogorrekoa da eta ez dago batere ohituta barkamena eskatzen. Barka iezaguzu mesedez!)

- No preocuparse. La culpa ser mía por dar pisotón. Barkatu niri! (Ez zaitetz kezkatu gizona, errua nirea izan da-eta. Barka iezadazue niri!)---Joxek, lotsaren lotsaz.

Trenak aurrera zihoan. Ttuku-ttuku-ttuku-ttuku-ttuku! Joxe lehen baino aspertuago zegoen. Ez zen gauza begiak ixteko, beti goian zeraman maletari begira. Handik ordubetera edo, beste astindu bortitz batek maletaren oreka arriskuan jarri zuen.

- Ene, berriro maleta zikin hori! – bota zuen Joxek, azkar mugituz eta maleta apalean ziurtatuz. Hori eginda, bere eserlekura itzultzen ari zela, trenaren astindu batek oreka galarazi eta markesa muturluzearen gainera bota zuen. Haren garrasiak!

- ¡Asqueroso! ¿Ahora qué quiere, darme una paliza o qué? Sepa que tengo un hijo guardia civil en el cuartel de Intxaurrondo, y que está harto de vascos terroristas como usted. (Nazkagarri halakoa! Orain hebaindu nahi nauzu ala? Jakin ezazu nire semeetako bat guardia zibila dela Intxaurrondoko kuartelean, eta zu bezalako euskaldun terroristez nazka-nazka eginda dagoela)

- Barkatu, barkatu señora! ¡No haser queriendo! (Barka iezadazu andrea, ez dut nahita egin) – Joxek, arrunt lotsatuta.

- Margarita, no empieces. Siempre estás igual, con los vascos por que son vascos y con los madrileños por que son madrileños. Tienes que suavizar tu carácter. Siempre te digo lo mismo. (Ez hasi Margarita. Denekin daukazu zer edo zer, euskaldunekin, madrildarrekin... Zure izaera gogor hori leundu beharra daukazu. Beti esaten dizut gauza bera) – senarrak, bakea egin nahian.

- No digas tonterías, Toribio. Esos que dices que son madrileños y con los cuales me meto, no son tales, sino catalanes disfrazados pidiendo un nuevo estatut (Ez ezazu txorakeriarik esan Toribio. Zuk aipatzen dituzun madrildar horiek ez dira horrelakoak, estatut berria aldarrikatzen duten katalan mozorrotuak baizik)--- emakumeak, bere baitatik guztiz aterata.

Handik bost minutura, isiltasuna zen nagusi bagoian. Norberak bere esparrura begiratzen zuen. Markesa hezigabeak leihatilara, senarrak Joxeri, Joxek, txandaka, lurrera bere burua nonbait gorde nahian eta goiko apalera, maleta madarikatua zegoen lekura. Aurreko ama gazteak bere aldeko leihatilara, eta bi neskato gazteek Joxeri irribarre maltzurrez.

Trena aurrera zihoan ttuku-ttuku-ttuku-ttuku luzea eginez. Astindu berri batek maleta malapartatua lurrera bota zuen soinu handia altxatuz. Markesak jauzi handia eman zuen bere jarlekuan eta gero garrasi ikaragarria jaurti:



## APAIZ PILOTARIEN MARTINGALA

- Aizak, Iker, igandean partida izanen diagu, baina urruti samar! Apaiz euskaldun batek Landetako herri batetik dei egin zidak eta bertako festak izango direnez gero, bertan urtero egiten duten pilota-partida jokatzera joateko gonbidatu gaitik. Berrogeita hamarna euro ordainduko zigutek eta bazkaria. Zer iruditzen? Nik, dagoeneko, baietz erran zioat.

- Ongi egin duk Unai. Paseo polita eginen diagu eta gero partida galanta. Eta aurkariak? Zein izanen dira aurkariak?

- Deitu duen apaiza, hau duk, Landetako herri horretan erretore dabilen Aita Etxeberri azkaindarra, eta aldameneko herrian erretore den Aita Goietxe garaztarra. Biak gaztetan pilotari ibili dituk, eta bazirudik oraindik tarteka aritzen direla.

- Ongi zegok. Eta hik ba al dakik urrutiko herri horretara joaten?

- Bai mutil, herriaren izena arraro samarra duk, baina papertxo batean apuntatu diat. Akize aldean omen zegok. Autobidea zuzen-zuzenean hartuko diagu eta maparen laguntzaz bertaraino iritsiko gaituk. Galtzerik ez zegok motel!

- Ongi, ongi Unai. Igandean Akize aldera joanen gaituk.

- Aizak Iker, ez ezak bezperan parrandarik egin! Aurrekoan gau-pasa eginda azaldu hintzen eta pasada ederra eman zigutean. Mesedez, larunbatean parrandarik ez!

- Horrek kezkatzen al hau? Ba, horregatik baduk, lasai ibili gizona, larunbatean ez diat inolako parrandarik egingo. Etxean, gurasoekin goxo-goxo afaldu eta gero ohatzera. Igandean partida ederra egingo diagu apaiz pare horren aurka. Hitz ematen diat.

- Ederki! Han goizeko hamarretarako egon behar diagu, partida hamaika eta erdietan izanen baita. Beraz, goizeko zazpitan hire etxean hartuko haut. Igandera arte Iker!

- Bai Unai, erran bezala, igandera arte!

-----

Igandea ederra eta argitsua etorri zen, eta aurrekoan erran bezala, Unai, bere auto dotorean, Ikerren etxerantz abiatu zen lagunaren bila. Iker etxeko atarian zegoen poltsa eskuan zuela. Aldamenean amatxi zegoen.

- Egun on Unai, puntu-puntuan etorri haiz!

- Bai, gaurko bidea ez diat nehoiz egin, eta bada ezpada ere, erlojuari begiratu beharko zioagu. Fresko samara ikusten haut. Bart zer, parrandarik egin al duk?

- Ez gizona! – moztu zuen amonak--- Atzo zintzo-zintzo joan zuan ohera. Gaueko hamarretarako lo zerraldo zegoan. Gaur zer daukazue, gona pare bat zuen zain ala? Hagitz susmagarria iruditzen zaidak horrenbesteko zintzotasuna.

- Bai, halaxe da amatxi! Berorrek erran duen bezala, bi gona ditugu zain, baina bi gona beltz. – Unai.

- Ene, hori ere badugu! – Aitarena egiten--- Alarguntsekin ez ibili gero e! Horiek zaharrak izaten dituk eta aunitz jakiten ditek, gehiegi deus onerako. Jostailu moduan erabiliko zaituztete, eta gero..., eta gero hor utziko zaituztete idor-idor eginda, mahats-patsak baino idorrago, eta gainera txanponik gabe sakelan.

- Kar, kar, kar...! – bi mutilek batera barregura ezin kontuz.

- Ez kezkatu amatxi, guk badakigu zer egiten dugun! – Ikerrek amonari agurtzeko, masailean musu bat ematen.

- Agur, agur gazteak!!! Erne ibili gona beltz horiekin!!! – amatxik arrunt kezkatuta.

-----

Lapurditik Akizera daraman autobidea ona, zabala eta eroso da, inongo arriskurik gabea. Bederatziak aldean zen eta zegoeneko eguzkiak indar handiz jotzen zuen. Bi lagunak pozik zeuden eta herriko neska pertxentei buruz hizketan eman zuten ia bide osoa. Halako batean, Unai autoa autobidetik atera eta bide estuago batetik barrena abiatu zen.

- Hauxe duk irteera, mapak erran bezala. Ordu erdi batean iritsiko gaituk. – Unai Ikerri begira.

- Presta zaitezte apaiz koitaduak, kristoren egurra emanen dizuegu-eta! – Ikerrek amets ozenetan.

- Kar, kar, kar...! – biak batera pozaren pozez.

Hamarrak hogeit gutxitan herrian sartu ziren. Ez zen biziki handia, baina bai txukuna eta lorez ondotoxo apaindua. Hirurogei bat etxe inguru ziren eta erdi aldean elizako kanpandorra nabarmentzen zen. Unai harantz zuzendu zuen autoa, pilota-plaza elizaren ondoan izanen zelakoan. Eta ez zen erratu. Eliza herriko plazan zabal baten ertzean zegoen, udaletxea ondo-ondoan, pixka bat harantzago herriko ostua, eta plazaren bertze ertzean frontoia.

- Plaza libreko frontoi galanta, bai alajaina! – Ikerrek.

Unai frontoiaren aldean zegoen aparkalekura sartu zen.

- Unai, ikusi al duk ostatuaren atean jarrita zegoan afixa?

- Ez! Zer jartzen zuen?

- Goizeko hamaika eta erdietan pilota partida ikaragarria. Etxeberri eta Goietxe Otxague eta Urretiren kontra, hau duk, gure kontra.

- Eta?

- Partida ikaragarria, ez al zaik handixkoegia iruditzen?

- Ez zekiat ba motel. Bi gona beltz horiek arriskutsuak izanen dituk! – Unai.

- Azkenean amatxik arrazoia zian, gona beltzekin kontuz ibiltzeko erraten zigunean! – Ikerrek.

- Kar, kar, kar...! – bi lagunek.



-----

Autotik jaitsi ziren eta gertu zegoen ostatura sartu. Jende mordo handia zegoen barruan. Unaik edaria eskatu zion begira zuen ostalerari eta orduan honek galde egin zion:

- Zuek izanen zarete gaur apaizen kontra pilota partida jokatu behar duzuen pilotariak, ezta?

- Bai, gu gara.

- Ba, duela ordubete hemen izan da Aita Etxeberri, gure erretorea, eta kafea eta patxarana hartu ondoren, egunero egiten duen bezala, – badakizue euskalduna da zuek bezala--- ondoko herrira joan da bertako erretorea den Aita Goietxeren bila. Instantean hemen dira, bigarren kopaxka bat hartzeko. Ez dago erran beharrik, Aita Goietxe ere, euskalduna dela.

- Bai, bistan da! – Unaik eta lkerrek, biziki harrituta.

- Begira, hortxe dira! Hor ari dira aparkatzen! – ostalerak, plaza ondoko aparkalekua seinalatuz.

- Auto dotore zuri batetik berrogei urte inguruko bi gizon jaitsi ziren, biak sotana beltz luzeaz jantzirik. Eskuan poltsa handixko bana zeramaten. Euskaraz mintzatzen ziren. Bi aldiz pentsatu gabe, ostatura sartu ziren.

- Egunon Jainkoak eman diezazuela! – agurtu zuten ozenki.

- Baita zuei ere! – barruan zeudenek erantzun.

- Giscard, atera itzak ongi betetako bi patxaran! Goizean eman didaana ez zuan oso giristinoa – Aita Etxeberrik.

- Zer nahi du berorrek erran horrekin, Aita Etxeberri? Zuberootik zuentzat propio ekarritako Bostmendieta patxarana zen, aski ona.

- Bai ba Giscard, patxarana biziki ona zuan, baina kopa sobera eskasa – Aita Etxeberrik, berehala erantzunez.

- Ez diot kopa osoa bete, Aita Goietxeren bila joateko autoa gidatu behar zuelako – Giscard-ek, zer esan ongi ez zekiela--- baina orain leporaino beteko diet, eta horrela bake sainduan denok.

- Bete, bete itzak ongi gizona, gaur pilota partida irabazi behar diagu-eta! Ez al duk horrela Aita Goietxe!

- Bai, bai, horixe! – eta ostalerari begira--- Bete iezazkiguk kopak fundamentuz, indarra eta kemena piztu behar baititugu gure baitan – Aita Goietxek.

Bitartean, unai eta Iker isil-isilik zeuden, bi apaizei harridura handiz begira.

- Aita Etxeberri, Aita Goietxe, hemen ondoan dituzten bi gazte hauek beraien kontra arituko direnak dira. – erran zien ostalerak apaizei, bi mutilak seinalatuz.

- Egunon! – bi mutilek batera.

- Egunon lagunak! Zintzo eta tenore onaz etorri zarete. Bistan da zuek ere euskaldunak zaretela! – Aita Etxeberrik, bere eserlekutik altxatuz eta bi gazteei bostekoa luzatuz.

- Giscard, atera iezaiek gazte hauei patxaran kopa bana!

- Ez, ez, ez! Eskerrik aunitz, baina pilota partida egin aurretik ontsalaz ez dugu ezer edaten! – Unai eta Ikerrek, biek batera.

- Hara, ez duzue gure antzik! – Aita Etxeberrik, harritu samar.

Ondoren, kopa hartu, ezpainetara hurbildu, eta bi gazteei begira, tragoxka luze batez hustu zuen. Aita Goietxek gauza bera egin zuen, eta muturra sotanaren besoaz xukatu.

- Hau ez da eukaristian erabiltzen dugun ardo gozoa, baina gogo onez edaten da! – bota zuen.

- Goazen, goazen frontoira! – moztu zuen Aita Etxeberrik--- Presta dezagun dena jendea etorri aurretik!

Ordurako hamaikak eta laurden ziren, eta jendea frontoira hurbiltzen hasita zegoen. Han denetik bazen, gazteak, helduak, zaharrak... gizonezkoak eta emakumezkoak... Eta den-denak, garai batean bezala, hau da, igandez jantzita, dotore-dotore, alegia.

- Hemen bada zaletasuna, e? – bota zuen Ikerrek, jende paketa hura ikusita.

- Zaletasuna, zaletasuna... zaletasun handirik ez zeukatek! Badakik, hau ez duk Euskal Herria, baina urtero etortzen dituk euren erretore maiteak pilota partida irabazten ikustera! – erantzun zion Aita Etxeberrik “apal-apal”

- Begira ezak, hau duk Pierre, epaia izanen dena. Pilotaz ez zekik gauza handirik, baina nire lagun zaharra duk. – Aita Etxeberrik, berriro ere, ate aurrean zegoen gizontxo beltzaran bat aurkezten zien bitartean.

Gure lagunak arrunt izututa zeuden apaiz bikote harekin, baina bada ezpada ere, ez zuten txintik ere erraten. Hori bai, elkarri egiten zizkieten begiradez, erran beharreko guztia errana zeukaten.

- Eta aldagelak? – galdetu zuen Unaik.

- Hortxe, eskuinetara! Zoazte, zoazte aldatzera, gu bitartean, arituko gara, eskuak pixka bat berotzen. – Aita Etxeberrik.

- Baina, zuek ez al zarete zuriz jantziko? – Unaik, harriduraren harriduraz.

- Ez motel, guk horrelakorik ez diagu behar. Zuek zuriz eta gu sotana beltzaz arituko gaituk, urteroko usadioari jarraiki – Aita Etxeberrik. Eta bi gazteen harridura infinituaz ohartzean, kontu kontari jarraitu zuen--- Egia errateko, gu egunero seglarrez (9) janzten gaituk, zuen antzera, baina partidetarako apaizgaitegian eman zigutean sotana beltza janzten diagu, badakik, saltsa gehiago jartzeko! – eta bi mutilak ahoa bete hortz zeudela ikustean--- Ala, tira, tira mutilak, zoazte aldatzera, partida segituan hasiko da-eta!

Handik bi minutura, bi mutilak aldagelatik atera ziren alkandora eta galtza zuriz jantzita. Ordurako apaizek bazeukaten gerriko gorria jarrita.

- Tori mutilak, jantzi itzazue! – Aita Goietzek gerriko urdinak emanaz--- Guk irabazleen gerriko gorria jantzi diagu, urtero bezala! Kar, kar, kar! – bota zien “apal-apal” honek ere.

Unai eta Ikerrek deus erran gabe gerriko urdina jantzi zuten eta hamar bat minutuz eskuak berotu ondoren, partidarako prestatu ziren. Euren aurpegietan amorrua irakur zitekeen.

- Orain ikusiko ditek oilar beltz horiek! – erran zion Ikerrek Unairi ahopeka.

- Bai motel, egurra emango zieagu! – Unai.

-----

Hamaika eta erdietan, puntu-puntu, partida hasi zen. Apaizek pilotari onak zirela erakutsi zuten arren, garbi zegoen ez zirela bi gazteen kontra lehiatzeko modukoak. Markagailua segituan hasi zen mugitzen bi mutilen alde.

Frontoian animazio handia zegoen, txaranga bat eta guzti. Apaizek tanto bat egiten zuten guztietan txalo zaparrada handiak entzuten ziren, txarangakoek pasodobleen antzekoak jotzen zituzten eta erdi aldean eserita zegoen amatxien taldeak apaizen aldeko pankarta bat astintzen zuten. Baina, mutilek tantoa egiten zutenean, ez txalorik, ez pankartarik eta ez txarangarik, denak mutu. Hamabiak bost gutxi ziren eta markagailuak 18-6 azaltzen zuen bi pilotari gazteen alde.

Horrelako batean, Unai sekulako dejada egin zuen eta Aita Etxeberri, eroaren gisa korrika, eta sotana esku ezkeraz jaso abiada handiagoa hartu ahal izateko, pilota jotzera abiatu zen, baina urteek ez zioten lagundu, eta blaut erori zen lurrera zalaparta handia eginez. Jendea eserlekuetatik haserre altxatu zen, askok eskuak burura zeramatzatelarik. Haserretuenak txistuka hasi zitzaizkion Unairi. Giroa gori-gori zegoen. Aita Etxeberri altxatu zen, ederki kostata, eta besoen mugimendu

batez, publikoari lasaitasuna eskatu zion. Hamabiak ziren eta elizako ezkilak ozenki zabaldu zuen ordua: dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan, dalan!!! Angelusaren ordua zen. Publikoa zutitu zen burutik era guztietako bonetak kenduz. Aita Etxeberrik otoitz sailduari ekin zion ozenki. Aita Gurea errezatu ondoren, honako eskaera egin zion Zeruetako Jaunari:

- O, Jaun ahalguztiduna, lagun gaitzazu Aita Goietxe eta biok, urtero egiten dugun bezalaxe, oraingo partida hau ere irabazten. Eskerrik asko Jauna. Amen!

Hau entzutean, publikoak txaloaldi ozen batez erantzun zion. Unaik eta Ikerrek elkarri begiratu zioten, hura dena ezin sinetsiz. Ondoren, eta apaizek horrela eskaturik, atsedenaldira bat egin zuten. Aita Etxeberrik Unairi deitu eta aldagelara eraman zuen berekin.

- Honek partida galduta ikusi dik, eta dagoeneko ordaina eman nahi ziguk hemendik airean bidaltzeko – pentsatu zuen Ikerrek hori ikusita.

Aldagelatik atera ziren bezain pronto, berriro jokatzeari ekin zioten, baina orduz geroztik partida harrigarriro aldatzen hasi zen. Unaik ez zuen lehengoa ematen, eta akats ikaragarriak egiten zituen. Bost minutu eskasetan markagailuak 21-18 markatzen zuen apaizen alde. Apaizak harro-harro zeuden, hau da, ohikoa baino harroago, eta publikoa arrunt beroa, kantuz eta jauziz bere erretoreak animatuz. Hauek tanto bat egiten zutenean frontoia txaloz, aldeko oihuz eta musikaz gainezkaten zen; amatxiek gero eta indar handiagoz astintzen zuten pankarta eta jende artean eserita zeuden herriko auzapezak eta zinegotziek eskuak altxatuta agurtzen zituzten. Hura zen zoramena, hura!

Ikerrek ez zuen ulertzen han gertatzen ari zena. Baina zer duk? – galdetzen zion, behin eta berriro, Unairi--- baina Unaik ez zion erantzuten eta burua makurtuz partidari jarraitzen zion.

Lau minutu gehiago aski izan ziren partida bukatzeko. 22-18 apaizen alde. Ikusleak, tximista bezala, altxatu ziren, eta kantxara jaitsita Aita Etxeberri eta Aita Goietxe lepo gainean altxatu eta horrela paseatu zituzten frontoian barrean bi edo hiru itzuli eginez. Alkateak kopatzar handi bat atera zuen eta irabazleei eman zien.

Ondoren, gazte galtzaileei eskua luzatu zien eta sari gisa gutunazaltxo batean telefonoz hitzarturiko dirua eman zien.

- Eta orain denok bazkaltzera eta gure erretoreen garaipena behar den bezala ospatzera! – alkateak bi mutilei.

- Ez, eskerrik asko! Estimatusa, baina oso berandu egin zaigunez gero, nahiago dugu oraintxe bertan aldatu eta gure etxe aldera abiatu !---erantzun zion Unai.

Ikerrek bitartean ez zuen ezertxo ere erraten.

-----

Bueltako bidean zihoazela, ez batak eta ez besteak ez zuen ahoa irekitzen. Isiltasuna zen nagusi bi gazteen artean. Bidean ordubete zeramatera, Ikerrek galde egin zion Unairi:

- Baina Unai, zer gertatu zaik?

-Ixo, ixo motel! Oroituko haiz angelusaren ondoren, apaiz madarikatu hark berekin batera aldagelara joateko erran zidala?

- Bai! ...eta? – Ikerrek ezin ulertuz.

- Ba orduantxe, gauzak argi eta garbi azaldu zizkidaan. Beraiek ordaintzen zigutean irabazteko. Galtzekotan ez zigutean deus pagatu behar. Ulertzen?

Ikerrek ez zion ezer erantzun, ez baitzen bere harriduratik irteten. Handik ordu laurden batera....

- Unai, azkenean nire amonak arrazoia zian erne ibiltzeko erran zigunean. Gogoratzen al haiz? Kontuz ibili gona beltzekin, arriskutsuak dituk-eta!

## ATSO HERRENAK DABILTZ

Aste Santuko oporraldia zela eta DBH-ko 4. mailan aritzen zen ikasle talde bat mendi gora zihoan. Hamalau-hamabost urte inguruko zortzi neska-mutil ziren. Institutuko estresarekin hautsi nahi omen zuten eta Gorbeia aldera zihoazen kanpatzera. Karga-karga eginda zebiltzan, beren motxila handietan denetik baitzeramaten: janaria, edariak, arropak, linternak, gasezko sutondo ttipiak, lo-zakuak, musika tresnak... Zibilizazioarekin hautsi nahi, baina bizkar gainean zibilizazioa eramanez.

Goizeko ordu bat aldean erreka garbi baten ondoko zelaitxo batean dendak jartzeari ekin zioten. Dendak altxatu, gauzak antolatu eta motxiletan zeramaten otordua berotu ondoren bazkaltzeari ekin zioten lurrean zeuden zenbait harri eserleku gisa erabiliz. Denon isiltasunaz ohartzean Harkaitzek honela bota zuen:

- Gose ginen, e?

- Bai motel, gose eta neka-neka eginda – erantzun zion Ainhoa izeneko neska pertxentak.

- Hamar minutu falta dira gaueko hamarrak izateko, eta dagoeneko ez da deus ikusten – segitu zuen Ixiar pinpirinak.

- Ba har ditzagun gure lo-zakuak eta lotara denok – moztu zuen Andima izeneko mutil beltzaranak.

Andimaren iradokizuna denon gustukoa izan zen antza, aldameneko karraskiletan pixa zarrasta egin bezain pronto norbera bere lo-zakuan sartu baitzen. Eskuin aldeko kanpaina-dendan mutilak sartu ziren, hau da, Harkaitz, Andima, Eñaut eta Iñaki, eta ezker aldekoan, berriz, lau neskak: Ainhoa, Ixiar, Koruko eta Oihana. Hamarretarako argiak itzaliak zituzten, eta laster gure lagunak zurrungak ziren bazter haietan entzun zitekeen ia soinu bakarra. Tarteka hontza baten kantuek orkestra haren monotonia laguntzen zuen.

Bi ordu ez ziren pasako bestelako soinuk, oihuk eta garrasik gure lagunak loaren besoetatik esnatu zituztenerako.

- Hau beldurra! Zer dira garrasi zoro horiek? Badirudi hor nonbait lagunak bat ari direla bizirik larrutzen – bota zuen esnatu berria zen Koruko izeneko neska ilehoriak.

- Ez al dira gure mutil lagunak izango! – esan zuen begiak oraindik ireki gabe zituen Ainhoak--- Badakizue zein bromoso diren, eta agian izutu nahi gaituzte.

- Bai zera neska, oihu lazgarri horiek ez ditun gure lagunak, urrutiko kontua ziruditen. Ikaragarriak ditun, edozein dar-dar batean jartzeko modukoak. Ni behintzat, kaka eginda nagon bragetan – moztu zuen Oihanak, begietako makarrak ezin kendurik zebilela.

- Ba, zerbait egin beharko dugu, hemen dendan sarturik egonik, erotu besterik ez dugu egingo – erantzun zien ordura arte isilik egon zen Ixiarrek, lo-zakutik irtenaz eta dendako atea ixten zuen kremailera irekiz.

Mutilen dendan antzeko zerbait gertatua zen, eta ordurako lau mutilak, kanpoan zeuden galtzontziloetan eta eskuetan linterna bana zutela.

- Hau da hau, inoiz ez dut horrelakorik entzun! – zioen Iñakik ikara bere aurpegitik ezin aldenduz.

- Bai motel, hau esnatzeko modua. Odola hormatuta zaukaat zainetan – Eñautek.

- Ni hasieran zuen txantxa bat zelakoan esnatu naiz, baina berehala konturatu naiz garrasi horiek ez zirela oso naturalak! – Harkaitzek.

- Zer esan nahi duk horrekin? – galde egin zion supituki (2) Andimak.

- Ba, garrasi horiek ez diruditela gizakiek sortuak, beste mundu batekoak baizik – ihardetsi zion Harkaitzek oso ahots urratuaz.

- Ixo, ixo, eta entzun ezazue! – moztu zien Ainhoak.



- Lehengo garrasi lazgarri berberak! – Oihanak.

- Badirudi hango gain hartatik datoze! – Korukok.

- Gau freskoa egiten du – Iñakik dardarka--- Jantzi gaitzen ongi, eta goazen harantz ea zer gertatzen den.

- Hi erotu haiz, ala? Harantz joatea esaten duk. Baina zer uste duk hik, Sherlock Holmesen ekipokoak garela, ala? – Eñautek.

- Isil hadi babo hori! Zer Sherlock Holmes eta zer Sherlock Holmes-ondoko. Ez gaituk hemen ezkutuan egongo, galtzetan kaka eginda, eguna argitu arte, ezta? – berriro erantzun zion Iñakik.

- Ados nagok hirekin! – moztu zien Andimak--- Jantzi gaitzen eta goazen denok gain hartara garrasi horiek mundu honetakoak edo bestekoak ote diren ikustera. Jakin-minez beterik nago!

- Baita ni ere! Baita ni ere! – erantzun zioten batera ia beste guztiek.

Eta horrela ongi jantzirik eta linterna bana eskuan zeramatela, gure zortzikotea garrasi lazgarriak irteten ziren gain aldera abiatu ziren. Lehen-lehena Andima zihoan, gain hartara zeraman bide-txigor estu bati jarraiki, eta atzetik, ilara eginez, beste guztiak. Ilargi bete handia zen zeruan, eta bere argitasuna aski zen bide-txigorrari jarraitu ahal izateko. Hori dela eta, linternak itzali eta gorde zituzten. Hamabost minutu inguru aski izan ziren gain alde hartara iristeko. Gero eta hurbilago, gero eta heia (3) lazgarriagoak entzuten zituzten.

Garai hartatik hurbil zegoen zabaldi batean topatu zuten misterio haren iturria.

- Begira ezazue, han hango zabaldian! Ikusten al duzue ni ikusten ari naizena? – esan zuen Iñakik.

- Bai, bai! – beste guztiek.

- Baina zertan ari dira? – galde egin zuen Oihanak ahots urratuaz.

- Badirudi ari direla festa bat egiten – ihardetsi zion Andimak.
- Baina... den-denak emakumeak dira, eta zarpail samarrak gainera! – Ainhoak.
- Bai, sorginak dirudite! – Ixiarrek.
- Hori da, sorginak dira, eta badirudi akelarrean ari direla! – Eñautek, ikaratu samar.
- Ene! Non sartu gara? – Harkaitzek.
- Egin dezagun atzera! – Ixiarrek eta Ainhoak euren izu aurpegia ezin ezkutatuz.
- Ez neskak, hurbil gakizkien pixka bat gehiago egiten dutena hobeto ikusteko. Beraiek ez gaituzte ikusiko baldin eta soinuren bat ez badugu egiten – Andimak.
- Arrazoa duk! Hurbil gakizkien pixka bat gehiago kuxkuxeatzeko! – Oihanak.
- Ez al da arriskutsua izango? – galdetu zuen Iñakik.
- Ez mutil, isilik hurbiltzen bagatzaizkie ez gaitiztek ikusiko, eta guk berriz, dena ikusi ahal izango diagu – Andimak, tinko.

Azkenean, Andimari jarraiki, zabalditik berrogeita hamar bat metrora zegoen harkaitz handi batera hurbildu ziren. Bertatik sorginak dantzan ikus zitzaketan, beraiek ikusiak izan gabe, edo bederen (4), horixe zen beraiei iruditzen zitzaiena. Zabaldiaren erdian bazen harri zabal bat, eta gainean loturik, aker beltz bat zeukaten. Sorginak dantzan ari ziren harriaren inguruan biribil luzangak (5), behin eta berriz, egiten. Dantzan eta kantan. Kantan eta dantzan. Haize parrasta batek kantuaren hitzak argi eta garbi ekarri zituen zortzi lagunak ezkutatzen ziren harkaitz alderaino.

- Gorbeiako larran  
aker bat dago erdian,  
atso herrenak dabiltz  
bere aurrean dantzan.

- Gorbeiako larran  
aker bat dago erdian,  
atso herrenak dabiltz  
bere aurrean dantzan.

- Goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi ta harkaitz artean  
uju, uju egiten.

- Goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi ta harkaitz artean  
uju, uju egiten.

- Sorginak dira, ez dago zalantzarik, eta akelarrea egiten ari dira! – esan zuen ahopeka Oihanak, sorginek entzun ez ziezaioten.

- Jainko maitea, ixo Oihana, ixo! Ez diezaguten entzun! – Korukok, zurbil-zurbil.

Bitartean, sorgin zarpail herren haiek kantua eta dantza bukatuak zituzten. Beraietako batek akerraren gernua (6) bildu zuen antoxina (7) batean, eta zurrutada bat edan eta gero, beste sorginei luzatu zien gauza bera egin zezaten.

- Hau kilikagarria da! Ni ez noa hemendik argazki bat atera gabe! – eta hori esanaz, Oihanak poltsikotik makina ttiki bat atera zuen eta argazkia ateratzeko prestatu zen.

- Hi txoratu haiz neska! Flasharen argia ikusiko ditene! – Korukok, galtzetan aspaldian kaka eginda zegoela.

Baina Oihanak, kasurik egin gabe, argazkia atera zuen. Klik! Flasharen argi txipiak distira egin zuen. Sorginek argia ikusi nonbait, eta zortzi lagunak ezkututzen zituen harkaitz aldera begiratu zuten. Sorginen erregina zirudienak, haserre antzera, begizko (8) bat bota zien ezkutuan zeuden lagunei:

- Arrio eta belio

ezkutuan dagoenari

begia irten bekio!

- Arrio eta belio

ezkutuan dagoenari

begia irten bekio!

Zortzi lagunak, beraiekin ari zela ikustean, korrika eta lasterka hasi ziren gainetik behera, maiz eroriz, altxatuz gero, eta berriro eroriz. Hori ikusterakoan, sorginen erreginak sastakai (9) zorrotz bat atera zuen bere arropen artetik, eta besteek gauza bera egin zuten.

- Harrapa ditzagun!!!

Ez dezatela alde egin!!!

Herrenka bai, baina lasterka, gure lagunak atzetik abiatu ziren. Haatik, atso haiek ez zeuden gazte haien atzetik korrika ibiltzeko moduan, eta berehalaxe, horretaz konturaturik, jarraitzeari utzi eta zabaldira itzuli ziren. Neska-mutilek, gibeletik ez zihoazkiela ikustean, lasaitu ederra hartu zuten. Kanpaina-dendetara iritsi bezain pronto, bertara sartu eta babestu ziren.

- Ederra egin dun hire argazkiarekin! – Korukok Oihanari--- Burua galdu dun, ala?

- Bai neska, hi ez hago oso sano. Hiri bururatu behar halakoa egitea – Iñakik.

- Ixo, ixo! Isil gaitezen denok eta itzal ditzagun argiak, sorgin nazkante horiek ikus ez gaitzaten! – esan zien Andimak solasaldi bizi hura moztuz.

Horrela pasatu zuten gaua, lo-zakuetan sartuta, isilik, eta beldurrak jota. Goizeko lehen argiekin dendetatik irten ziren.

- Hau gaua! Ez dut bat ere lorik egin! – Korukok, zurbil-zurbila.

- Nire bizitza osoan ez dut horrelako beldurrik izan! – Ixiarrek.

- Ezta nik ere! – Iñakik.

- Bildu dezagun dena, lehenbailehen, eta etxera! – Harkaitzek.

- Ez lagunak, igo gaitezen berriro ere, gain hartara, eta ziurta dezagun bart ikusitakoa egia izan dela, eta ez amets kolektibo ero bat – Oihanak.

- Orain zer nahi dun, beste argazki bat atera, ala? – Ainhoak, haserre antzera.

- Barkatu, barkatu! Ikusten ari ginenaren froga nahi nuen, besterik ez. Horregatik bururatu zitzaidan argazki bat ateratzea – Oihanak.

- Pixka bat gehiago, eta aker beltzaren aurrean sakrifikatzen gaitizten sorgin alu horiek. Eta dena hiregatik! – Korukok, begiak gorri-gorri eginda zituela.

- Barkatu, barkatu! Ez nuen uste konturako zirenik. Baina orain, goazen gora, ea ikusitakoa egia izan den ala ez! – Oihanak, beti bezain animoso.

Inor bere tokitik ez zela mugitzen ikustean, Oihana bezperako gain aldera zeraman bide-txigorretik barrena abiatu zen bakarrik. Andima, segituan lotu zitzaion, Eñaut eta Ainhoa gero, eta pixkanaka-pixkanaka Harkaitz, Iñaki, Ixiar... Korukok, bere burua bakarrik ikustean, garrasika hasi zitzaien hasieran...

- Baina, baina... burua galdu al duzue denek? Zer nahi duzue, sorgin zahar horiek sastakaiez akaba gaitzaten, ala?

...eta ondoren, beste erremediorik ez zuela ikusita, atzetik korrika lotu zitzaien.

- Itxoin, itxoin mesedez, ez nazazue bakarrik utzi!

Handik hamabost minutura, gauean ezkutaleku gisa eduki zuten harkaitz alderaino iritsi ziren. Handik akelarrearen zabaldua ikusi ahal izan zuten, baina han ez zegoen ezer, sorginek aldare moduan erabilitako harri zabala izan ezik. Arriskurik ez zegoela ikustean, bertaraino hurbildu ziren. Aldarea aker gorotzez inguratua zegoen. Oihanak esku ahurra (10) gorotzez bete zuen eta denei erakutsiz honela esan zien:

- Garbi dago, ez da amesgaiztoa izan, hau da frogarik onena, hau eta baita bart atera dudan argazkia ere.

Hori esanda, argazki-makina poltsikotik atera, eta erretratuak egiteari ekin zion txirrika ahitu zuen arte. Ondoren isil-isilean, inork txintik esan gabe, kanpaina-dendetara itzuli, gauzak bildu, eta zibilizaziorako bideari egin zioten. Isilik zihoazen arren, haietako inork ezin zuen bezperan sorginei entzundako kantua bere belarrietatik ezabatu.

- Gorbeiako larran  
aker bat dago erdian,  
atso herrenak dabiltz  
bere aurrean dantzan.

- Gorbeiako larran  
aker bat dago erdian,  
atso herrenak dabiltz  
bere aurrean dantzan.

- Goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi ta harkaitz artean  
uju, uju egiten.

- Goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi ta harkaitz artean  
uju, uju egiten.

## AITATXI SATURREN AZKENA (EDOTA ABSURDUAREN INDARRA)

Arruetarren etxean tristura zen nagusi, aitatxi Satur bere azken hatsa ematen ari baitzen. Aitaxiren logela zabalean oheak erdialde osoa betetzen zuen. Oheburuaren gaineko horman gurutze handi iluna zegoen. Ezker-eskuin, bere lau seme-alabak: Josetxo, Luis, Fermin eta Margarita, bizpahiru biloba, bere aitorlea zen Aita Ladis eta alderdiko zenbait burukide.

Satur Arrue Baztango lurretan jaioa zen, bertako baserri batean. Gurasoak nekazariak ziren eta Saturrek bere lehen hamabost urteak lanbide horretan eman zituen. 1936ko altxamendua izan zelarik, hamasei urte bete berriak zituen. Ez zuen bi aldiz pentsatu, sega eta aitzurra etxeko zuloan utzi eta eskopeta eta eskapularioa hartu zituen foruak eta erlijio saindua defenditzeko asmotan.

Gipuzkoa hartzera zihoazen tropetan sartu zuten eta adore handiz borrokatu zen gerra anker hartan. Gorriak, errepublikanoak eta nazionalistak fusilatzen zituzten taldeetan parte hartu zuen boluntario gisa, eta odol hotzez egin zuen bere lana. Irunera Erlaitz menditik barrena sartu ziren eta bertako gatazkan larriki zauritu zuten ezkerreko besoan. Gerraren hastapenetan, apaiz eskuindar batek lepotik zintzilik jarri zion eskapularioak (Jesusen Bihotz Sainduaren irudi ederra eta bere azpian: Geldi hadi bala! -zioen testu laburra) ez zuen orduan etsaien baletatik babestu. Larriki zauriturik, Elizondoko ospitalera eraman zuten eta han, hamabost bat egun eman zituen eldarniotan.(2) Besoa arrunt gaiztoturik zeukanez gero, moztu egin behar izan zioten, eta ondoren, poliki-poliki, bere onera itzultzen hasi zen.

Gerran erakutsitako adorea zela eta, ohorezko domina ezarri zioten. Gero, Donostian, Ondarretako presondegiko arduradun izendatu zuten eta han ibili zen zenbait urtetan mundua “endekatuez” (3) garbitzen. Geratzen zitzaion eskuineko eskuak ez zion inoiz dar-dar egin “jendaila” haren exekutatzeari sinatzeko orduan. Bera kristau ona zen eta erlijio sainduaren alde dena emateko prest zegoen, etsaien odola, batez ere.



Ondarretako presondegitik beste jardueretara igaro zen ondoren, beti goi mailako karguak betez. Poltsikoa gero eta beteago zeukan, Francoren gobernu espainiar faxistak ongi saritzen baitzituen beraren alde egindako zerbitzuak. Zorioneko urteak izan ziren Saturrentzat eta bera bezalako guztientzat. Iruñean etxe eder bat erosi zuen eta Blanca Pegenauterekin ezkondu ondoren, lau seme-alabetako familia kristau eta espainiar ederra hazi zuen.

Baina zorigaiztoko egun batean, Franco salbatzailea hil zen, eta horrekin sekulako anabasa hasi. Gerran zanpatutakoen ondorengoak lotsagabeki azaltzen hasita zeuden eta euskal ikurrinak nonahi ikus zitezkeen. Behin, arruetarren ondoko tentsio handiko kable elektriko batetik horrelako bat eskegi zuten eta han egon zen zintzilik, eguzkiak, euriak eta haizeak guztiz desegin zuten arte. Saturrek kakalarri galanta hartu zuen. Euskaldun basati horiek Nafarroa konkistatu nahi dute, eta gu nafarrok ez gara euskaldunak, espainol onak baizik, Jaungoikoak mundua sortu zuenez geroztik. – zioen bere kolporako.

Handik bi urtera ikastola bat zabaldu zuten bere etxe aurrean, eta Satur desesperaturik ibili zen, etxetik ateratzen zen bakoitzean nonahi entzun baitzezakeen euskara madarikatua. Euskara ez da nafarron hizkuntza; espainolak gara eta espainiera da gure mintzaira. Niri ederki kostatu zitzaidan gerra garaian espainolez ikastea, eta nire guraso gaixoak (Jaungoiko handiak bere bekatua barka biezaie!) ikasi gabe joan ziren beste mundura. Eta orain, hor ari dira su-piztaile horiek gezurretan, euskara gure hizkuntza dela esanez. Beste Franco bat beharko genuke, beste gerra bat, jendaila horretaz berriro libratzeko, eta oraingoan, erro-errotik ebaki beharko genuke, erro-errotik eta betiko! – erraten zion bere buruari bakarrizketa isil eta amorratuaz.

Gero gerokoa. Nafarroa aparte mantendu zuten, eta Saturren lagunek botereari eutsi zioten. Alderdi berri bat sortu zen eta bertan bildu ziren bera bezalakoak. Garai bateko su beroa apaldu behar izan zuten. Horixe izan zen boterean mantentzeko egin beharreko sakrifizio txipia.

Seme-alabek ere, aitaren sukar beroak bultzaturik, alderdian sartu ziren, eta orduz geroztik eskailerak igotzen hasi ziren, gero eta gorago, patrikak gero eta beteago. Berriro ere, urte onak izan ziren arruetarrentzat. Haatik, bizitzak aurrera darrai eta urteek ez dute inor barkatzen; eta horixe bera gertatu zitzaien arruetarrei. Ama hirurogeita hamabost urterekin hil zen, Saturrekin gerra garaian fusilatze taldeetan boluntario gisa ibilitako Aita Ladis apaiz jatorrak Aita Sainduaren azken olioiez (4) igurtzi ondoren. Eta Satur gaixoa, emazterik gabe ezin biziz, bi urte beranduago bere azken hatsa ematen ari zen, hirurogeita hemezortzi urte zituela.

Heriotzaren ordua hurbil zuela zirudien. Pixkanaka-pixkanaka itzaltzen ari zen. Saturrek, berak fusilatze taldeetan edota Ondarretako presondegian hainbeste etsairi emandako heriotza azkarra nahi zuen beretzat, baina horren orde, amaierarik gabeko hilzori luze batean sartu zen. Oinaze handiak zituen eta ezin zen ohetik altxatu ere egin. Horrela hiru aste eman ondoren, eldarniotan hasi zen, Erlaitz mendian zauritu zutenean gertatu zitzaion bezala.

Bere ondoan aitaren herentzia kobratzeko irrikatan zeuden seme-alabek amorru handiz itxoiten zuten Saturren azken hatsa. Aita Ladis laguna eta alderdiko bizpahiru burukide ere, aldamenean zeuden.

- Satur hiltzean, bat gutxiago izanen gara hurrengo hauteskundeetarako, eta dagoeneko hurbil samar daude! – esan zuen burukideetako batek.

- Ez dago eskubiderik! Horrela jarraitzekotan, laster gobernu beraien esku egonen da! – erantzun zion bigarren burukide batek.

- Bada, gure aldeko botorik emateko prest ez badaude, eta gaurko marko politikoaz sinisten ez badute, abstenitu egin beharko lirateke! – segitu zuen Aita Luisek, atsekabe handiz.

Margarita alabak aitaren eskumuturra estutu zuen pultsua neurtu nahian; baina alferrik, aita oraindik bizirik baitzegoen! Halako batean, Satur eldarnio handitan hasi zen, han bilduta zeuden gehienentzako ulertezinak ziren hitzak ozenki ahoskatuz. Euskaraz, txikitako ama-hizkuntzaz ari zen. Aita Ladisek, berriz, Iruritakoa

izaki, ongitxo ulertu zuen Satur Arrue erraten ari zena. Bere ama zenduari deika ari zen.

- Hau lotsa! – esan zien beste guztiei--- Euskaraz ari da. Satur gaixoak ez zuen horrelakorik merezi.

- Hau isildu beharra dago, gure jendeak honen berri edukiko balu eskandalu handia izanen litzateke eta gure familiaren ohore ona betiko zikinduta geldituko. – ihardetsi (5) zion Josetxo seme premuak (6), arrunt asaldatuta.

Beste guztiek burua goitik behera mugituz adostasunezko jarrera erakutsi zuten. Hura lotsa! Hura atsekabea! Satur Arrue euskaraz mintzatzen! – pentsatu zuten bertan zeuden guztiek. Supituki, Margarita alabak hitza hartu eta esperantza berria piztu zuen bihotz atsekabetu haietan.

- Hau lotsagarria da! Aita nafar eta kristau ona zen eta horregatik deabruak, bere bizitzaren azken momentuetan, tentatu nahian edo, euskara ekarri dio ezpainetara. Guk ezin dugu hau horrela utzi, eta are gehiago, ezin dugu hemen gertatzen ari dena gela honetatik kanpo zabaldu.

- Baina etxeko zerbitzariak aitaren garrasi ozenak entzuten ari dira eta laster berria zabalduko dute! – moztu zuen Fermin semeak.

- Entzun dezatela! – segitu zuen Margaritak--- Entzun dezatela! Beraien hitza gure hitzaren kontra izanen da. Aita Ladisek lau haizetara aldarrikatuko du aitak bere azken hatsa ematen duela arameeraz, hau da, Jesukristo gure salbatzailearen hizkuntzaz, hitz egiten.

- Zoragarria Margarita, zoragarria! Horixe egingen dut! – Aita Ladisek, alegera oso.

- Bai, ideia bikaina. Horrela arruetarren ohorea salbatuko da! – burukideetako batek.

Halako batean, Saturrek ohikoa baino aunitzez ozenagoa izan zen garrasia jaurti zuen eta gero hitz motelez, azkeneko hitzak euskaraz eman:

- Ama, ama, non zaude? Banoa zuregana, banoa...!

Gero, Heriok hartu zuen. Margaritak, aitaren heriotzaz oharturik, hitza hartu zuen berriro.

- Aita hil da! Orain denok gorde behar dugu sekretua, hemen erran dugun bezala. Prest al gaude denok? – galde egin zuen besteei begira.

Bai! irmo batez erantzun zioten beste guztiek. Josetxok tiradera batetik, aitak gerra garaitik gordeta zeukan bandera espainiar frankista atera eta aitaren gorpua estaliz ezarri zuen. Aita Ladisek latinezko otoitz luze bat egiteari ekin zion, eta ondoren, bertan zeuden beste guztiek era monotono batez jarraitu zioten.

## LURPEKO APARKALEKUA

Jose txo izena dut eta historia malapartatu hau hasi zenean 2006ko otsaila zen, eta nik orduan berrogeita hamar urte bete berriak nituen, ezkondata nengoen eta bi mutilen aita nintzen. Nire emazteak Edurne izena zuen, semerik zaharrenak Aitzol eta ttikienak Lizardi. Emazteak nik baino lau urte gutxiago zeuzkan, hau da, berrogeita sei urte, Aitzolek hamazazpi eta Lizardik hamalau. Pozik, eguneroko arazoetan bete-betean sarturik, hau da lana, ikasketak, familia, fakturak hilero ordaindu beharra..., baina pozik, bizi ginen Astigarragako geure etxean. Guretzako gogorrena urtero urtebete gehiago bete beharra zen, gehiago edo gutxiago? horretan ere filosofia eta ikusmolde ezberdinak baitaude.

Otsailaren asteazken petral horietako batean, eta lanean beranduago sartzekoa nintzela profitatuz, Donostiara abiatu nintzen egin beharreko paperak egitera. Goizeko zortzi eta erdiak ziren, zirimiri etengabeak bazterrak bustitzen zituen, eta hotz handiari aurre egiteko autoko berogailua piztuta neraman. Bederatziak aldean Gipuzkoako hiriburuko kaleetan barrena mugitzen ari nintzen. Berehalaxe Bulebarreko lurpeko aparkalekura sartu nintzen. Sarreran makinak eskaintzen zidan ohiko txartela hartu, eta barrura. Ordurako autoz gainezka zegoen arren, txoko bat topatu eta gure biribila bertan aparkatu nuen. Eskumuturreko erlojua begiratu nuen, bederatziak eta bost ziren. Ongi! – pentsatu nuen---, eta berokia eta aterkia hartuta, eta autoaren ateak giltzatuta, kanpo aldera daraman eskailerarantz abiatu nintzen.

Eskailera ondoan bazegoen, nik ordura arte inoiz ikusi gabe nuen kabina moduko bat eta bertan bi neska eta mutil bat ari ziren lanean. Eskailerara hurbiltzean, modu jatorrean agurtu zidaten: Bonjour monsieur! (Egun on jauna!) Frantsesezko agurra entzutean zeharo harritu nintzen, baina beraien aurpegi atseginak ikustean, txantxetan ez zirela ari ikusi nuen; eta orduan Donostiara joaten diren frantses ugari horietako batekin nahastu egin nindutelakoan lagunkor erantzun nien: Egun on! Barkatu baina ez naiz frantsesa! Nire erantzunarekin batera hasi ziren arazoak. Neska-mutilek ez omen zidaten ulertzen eta aurpegian islatzen

zitzaien. Horietako batean nesketako batek gozo galde egin zidan: Pardonnez nous monsieur, vous êtes italien? (Barkatu jauna, italiarra al zara?)

Istant hartan benetan ari zirela ulertu nuen eta nire frantses kaskarrean ihardetsi nien: Non mademoiselle, je ne suis pas italien, je suis d'ici, je suis basque! (Ez andereño, ez naiz italiarra, hemengoa naiz, euskalduna)

- Vous êtes basque! (Euskalduna zara?) – jarraitu zuen atsegin galdera egin zidaneko neska--- Mais pas d'ici, vous êtes à Marseille monsieur! (Baina ez hemengoa, Marseillan zaude jauna)

- Marseillan? – erantzun nion euskaraz--- Marseillan nagoela, baina zer diozu, erotu al zara?

- Pardonnez mois monsieur, mais je ne comprend pas votre langue. – (Barkatuko didazu jauna, baina ez dut zure hizkuntza ulertzen) erantzun zidan urduri.

- Berdin da, berdin da. Agur! Eta ezer gehiago esan gabe, eskailera igotzeari ekin nion.

Nire begiek Donostiako bulebarra espero zuten, baina bere ordeztan, kai erraldoi batera zeraman kale ezezagunarekin egin zuten topo. Hura ez zen Donostia, ez nik ezagutzen nuen Donostia, behintzat. Arraro samarra zen dena, portua, kaleak, itsaso bare hura, urruneko mendixkak, tabernak, jendeak... beraien mintzaira.... Europar itxurakoek frantsesegaz egiten zuten gehien, baina kaleetan zebiltzan arabiar itxurako askok arabieraz edo antzeko zerbaitez. Euskaraz inork ez zuen egiten. Dendetako eta tabernetako txartelak frantsesegaz zeuden batik bat. Dena zen arrotza, dena zen berria, dena zen bitxi samarra. Autoek oso itxura arraroa zeukaten, nik inoiz ikusi ez bezala, bertako jendearen jantziek ere ez ohiko itxura zeukaten... zenbait kale mugikorrek ziren, bai irakurtzen duzuen bezala, mugikorrek, supermerkatuetako eskailera mekanikoen antzekoak ziren, eta jendea horren bitartez mugitzen zen alde batetik bestera, inolako ibilgailuren beharrik gabe. Pufa, hura gehiegizkoa zen niretzat!

Bazter batean kafetegi itxurako bat ikusi nuen, eta bi aldiz pentsatu gabe, bertara sartu nintzen. Eztarria busti beharra neukan gertatzen ari zitzaidan guztia irentsi ahal izateko. Atea zabaldu eta barrura. Hamar bat pertsona zeuden, gehien-gehienak emakumezkoak, eta zenbait mahaitan eserita kafea hartzen ari ziren, denak blagan eta frantsesez, prefosta! Ordurako banekien euskarak ez zidala deusetarako balioko, eta nonahi entzuten nuen hizkuntza erabiliz eskatu nion ostalerrari: Un café, s'il vous plaît! Inolako itzulpenik egin gabe ulertu zidan.

Barraren aurrean eta kafea dastatzen nuen bitartean gogoeta egiteari ekin nion: Hura ez zen Donostia, ez Euskal Herria ere. Non deabru nengoen ni? Marseillako kontua egia ote? Paretan eskegita egutegi handi bat ikusi nuen, hurbildu eta argazkiaren azpian zegoena irakurri nuen: Marseille, 2046.

- Hara, hala duk Josetxo, Marseillan nagok! Baina nola liteke izan? Marseillan ni, Astigarragako zuloatik inoiz gutxitan atera den gizajo hau? – pentsatu nuen ozenki, zerbitzariaren begiak eta belarriak nireganatuz – Baina, baina... zer urte jartzen du egutegi madarikatu horretan!

Berrito irakurtzeari ekin nion: Marseille 2046. Ez zegoen dudarik, huraxe zen egutegi hartan azaltzen zen urtea. Bada ezpada ere, niri harritu aurpegiaz begira zegoen mutil zerbitzariari galde egin nion: Nous sommes en 2046? (2046an al gaude?) Eta mutilak naturaltasun osoz ihardetsi: Oui monsieur nous sommes le 20 février 2046. Vous voulez savoir autre chose? (Bai jauna, 2046an gaude, zer edo zer gehiago jakin nahi al duzu?)

Hura gehiegizkoa zen, zoratzeko modukoa. Donostiako bulebarreko lurpeko aparkalekuan sartu 2006ko otsailaren 20an, eta kanpora irten, eta Donostiara atera beharrean, Marseillan nengoen. Hura ulertezina zen. Marseillan eta 2046ko otsailaren 20an, hau da berrogei urte beranduago. Barraren atzeko aldean, horma osoa hartuz zegoen ispilura begiratu nuen 96 urteko agure baten irudi zaharkitua ikusteko beldurraz, baina aitona bat ikusi beharrean, nire eguneroko aurpegia topatu nuen. Ile zuriak nabarmen ziren buruko zenbait tokitan, baina beti bezala, ezer berririk ez. Ni nintzen, Josetxo, nire 50 urte bete berriekin, baina 2046. urtean. Eneee! Niko Etxart kantari zuberotarrak zioen bezala, hura tumatxa zen! Izerdi hotz bat sumatu nuen nire gorputz osoan. Eskuak, urduri, mukizapia bilatu zuen

poltsikoan eta orduan topo egin zuen segapotoarekin, hau da, sakelako telefonoarekin. Berehala atera eta etxera deitu nuen:

- Rin, rinnnnn, rinnnnnnn!

Nire harridurarako ez zuen nire emazte Edurnek hartu, espero nuen bezala, mutil nerabe batek baizik. Lizardi seme gazteena zelakoan honela galdetu nion:

- Aita naiz!

Eta mutilak berehalaxe erantzun:

- Ez, erratua zaude, aita baratzean dago. Baina nor zara zu?

Orduan etorri zitzaidan burura urteen kontu hura, eta agian gure semeetako baten semea zelakoan honela jarraitu nuen.

- Zein da zure aita? Aitzol edo Lizardi?

- Lizardiren semea naiz. Zer nahi duzu, berekin hitz egin?

Errealitate lazgarriaz konturatuta, izenak eta galderak garai berrietara moldatzen segitu nuen.

- Eta amona Edurne, hor al da?

- Ez, amona duela hiru urte hil zen pneumonia batek jota.. Baina zu nor zara?  
– jarraitu zuen temati.

Nik ezin nuen negarra kontu, emaztea hila zen, semeak ez ziren garai bateko nerabeak, ezkontuta zeuden eta euren familiarekin... eta ni nire berrogeita hamar urte bete berriekin. Hura amesgaiztoa! Masailetatik behera irristan jaisten zitzaizkidan malkoak xukatuz eta ahots negartia disimulatuz nolabaiteko erantzuna eman nion.

- Koldo Apeztegia nauzu, zure aitona Josetxoren laguna, eta bere semeetako batekin hitz egin nahi nuen.

- Oraintxe sartu da aita etxera. Momentu bat, segituan jarriko da eta.



Eta horrela, hitz egin ahal izan nuen gure seme gazteenarekin. Dena den, ordurako erabakita neukan ezin niola nire benetako nortasunaz deus aipatu. Zertarako? Berrogei urteko hutsunea zegoen gure artean.

- Bai, nor da? – esan zuen telefonoa hartu berriak.

- Koldo Apeztegia naiz – errepikatu nuen bat-batean asmatutako gezurra--- zure aitaren laguna naiz, Ameriketara bizi izan naiz azkeneko berrogei urtetan eta bere berri izan nahi nuen, molestiarik ez bada, bederen.

Ustekabeko galderaren aurrean mutila isildu zen. Nabari zen ez zuela gai hura gogoko. Eztul pixka bat egin zuen eztarria findu nahian eta gero ahots serioz erantzun zidan:

- Gure aita duela berrogei urte desagertu zen inolako arrastorik utzi gabe. Ez dakigu zer egin zuen eta nora joan zen. Ertzainak bere arrastoaren atzetik ibili ziren urte luzetan, baina inoiz ez zuten ezer aurkitu. Orduz geroztik inoiz ez dugu bere berririk izan, ez ahoz eta ez idatziz.

Historia hura oroitzean Lizardi semea pasatzen ari zen momentu txarraz jabetuta, kontakizuna moztu egin nion.

- Sentitzen dut, sentitzen dut bihotzez. Ez nekien ezer. Barkatuko didazu deitu izana.... – negarrari ordurako ezin eutsiz--- Barkatu, barkatu. Agur! – eta desesperaturik telefonoa eskegi nuen.

Negar batean gelditu nintzen. Kafetegian zeuden guztiek isilean begiratzen zidaten. Sortzen ari nintzen eskandaluaz konturaturik, kafea ordaindu eta kalera atera nintzen. Aurrez aurre zegoen liburu denda batean errepide mapa bat erosi nuen. Gero, lurpeko aparkalekutik autoa atera eta autobideetan barrena itzultzeari ekin nion. Hurrengo eguerdirako Astigarragan nengoen. Zeharo aldatuta bazegoen ere ezagutu nuen. Han erreka ondoan zegoen gure etxetxea. Hurbil daukan muino batetik largabistaz (5) begiztatu nuen. Etxe aurrean bi mutil gazte jostaketan ari ziren zakurtxo batekin. Malkoak xukatu nituen, behin eta berriro. Momentuko zirrarak beraiengana joateko agintzen bazidan arren, nire sentimenduak kontu behar izan nituen, ederki bainekien nirea ordurako eginga zegoela.

## OTSATEKO MISTERIOAREN ZIRIMOLAN

- Txirrin-txirrin!!!

Telefonoak luze jo zuen Gomez Segurakoen etxean. Azkenean, esku gazte batek hartu zuen.

- Bai, nor da?

- Hodei! – erantzun zion deitzen zuenak--- Unai nauk!

- Zer moduz Unai? Ongi al haiz?

- Bai mutil, fakultateko zenbait lagun bildu gaituk, badakik Joseba, Iker, Andoni, Josu eta konpainia, eta ikerketak egitera joatea erabaki diagu. Animatuko al hintzateke gurekin etortzen?

- Ikerketak? – Hodeik, arrunt harriturik--- Orain zientzialari sartu behar al duzue, ala?

- Ez mutil, zer zientzialari eta zer zientzialari-ondo! Josebaren kontuak dituk, badakik psikofoniak, OHEak (1), mamuak, espiritu erratuak eta bestelako parazientziak. Horrelako ikerketak egin nahi dizkik Gasteiztik hamabost kilometrora dagoen herrixka abandonatu batean, eta nahiz eta besteoi horrelako kontuak ez zaizkigun bat ere gustatzen, berarekin batera bi asterako joatea erabaki diagu. Aitziber, Estitxu, Maitena, Sara eta Elixabet ere joatekoak dituk.

- Neskak ere joatekoak al dira? – Hodeik, ezin sinetsiz.

- Bai, bai! Etxean beraien lagun den Mirentxuren gurasoek Oionen duten etxera doazela esan eta gurasoek amua irentsi ditek. Bistan da, Oionera joan beharrean, gurekin etorriko direla Otsatera. Josebaren kontu arraro horiek ez zaizkiek gehiegi gustatzen, baina irrikatan zeudek gurekin hamabost bat egun pasatzeko.

- Ene! – Hodei, pozaren pozez--- Eta nola joango gara herri horretara? Autobusik edo trenik ba al da?

- Ez, ez, horrelakorik ez zagok. Baina Ikerrek eta Josuk auto bana eramanez ditek. Gurasoak engainatu omen ditiztek, ez zekiat nola, eta utzi egin zitezke.

- Aupa! Biba zuek! – Hodeik, txoriak baino alaiago--- Bi auto eta neska bana, ez zagok bat ere gaizki. Autoan goxo-goxo joango gaituk. Ni, Aitziberren ondoan!!!

- Bai mutil, Aitziber oso-osorik hiretzat. Bazekiagu aski ongi konpontzen zaretela – Unai, irribarretsu.

- Eta noiz aterako gara?

- Etzi, hau da, astelehenean, animatzen bahaiz edota gurasoek joaten uzten badiate, aterako gaituk. Goizeko bederatzietan hire etxeko atarian izanen gaituk.

- Primeran! Zer edo zer asmatuko diat gurasoak engainatzeko. Eta astelehenean, esandako orduan eta tokian izanen nauk.

- Astelehena arte orduan, Hodei!

- Bai, astelehena arte, Unai!

-----

Uztailaren 2a, astelehena.

Astelehenean, goizeko bederatzietan, han zeuden, Hodeiren atari aurrean, bi autoak hogeihogeita bat urte bitarteko neska-mutilez gainezka. Hodei ere prest zegoen. Motxila fardel-ontzian sartu eta Josuren autoan, atzeko aldean utzia zioten tokira sartu zen. Sartu aurretik, mesfidantza handiz begiratu zuen auto barrura. Aurrean Josu bolantean, eskuinean Sara, bere gustuko neska; atzean, berriz, Elixabet ezkerreko leihoaren ondoan, inoiz baino ederrago zegoen Aitziber xarmanta, eta eskuineko leihoaren ondoko tokia libre beretzat. Gustu handiz eseri zen, prefosta!

Hauen gibelean aparkaturik, Ikerren autoa zegoen, gainerako lagunez lepo eginda. Hodei bere tokian, hau da, Aitziberren aldamenean, goxo-goxo eseri bezain pronto, Josuk autoa piztu eta errepidera bideratu zuen. Ikerrek jarraitu zion. Hamar minututan, hiritik kanpo zeuden.

- Agur Gasteiz! Bi astetan ez zaitugu ikusiko! – esan zuen Aitziberrek ahots gozoaz.

- Bai, agur Gasteiz! Laster arte! – bota zuen Josuk.

Beste guztiak, begirune handi batez, isildu ziren.

Hiru ordu laurden inguru bidean eman ondoren, Otsaten zeuden. Bertan ez zegoen arimarik ikusten. Gure lagunak isiltasun handiz jaitsi ziren autoetatik. Estitxuk Otsateko isiltasuna hitz histerikoez urratu zuen.

- Eta hona etorri gara bi aste pasatzera?

Denbora luze batez, inork ez zion erantzun; gero, Josebak arnasa hartuta, honela esan zion:

- Bai Estitxu, bi aste hauetan zenbait ikerketa egin behar ditinagu herri abandonatu honetan. Horixe dun gure bidaiaren arrazoia.

- Ene! Eta zer ikerketak? Jakin badaiteke. – Estitxuk, arras urduri.

- Gaur gauean, hamabiak aldean, San Migeleko elizaren dorrean, bertan bizi diren espiritu erratuekin harremana lortu behar dinagu.

- Eneee! Hi erotu haiz! – erantzun zioten beste neska-mutil guztiek ia batera.

- Horretarako hobeto ginen Gasteizen! – bota zuen Aitziberrek, dar-dar batean zeukan ahots izutuaz.

- Zuek ez zaudete oso ondo burutik! – Sarak, ikaraz beterik--- Behin elkarrekin ateratzen garela eta hona etorri behar!

- Ez zaudete ongi ganbaratik! – ordura arte isilik egondako Maitena ederrak.

Mutilak isilik zeuden, oso. Egia esateko, ez zekiten zer esan. Josebak, txoro hark, herri abandonatu baten eta bertan egin nahi zituen ikerketen berri eman bazien ere, ez zuten, inolaz ere, horrelakorik espero. Leku goxo bat bilatzen zuten bi aste polit, euren gustuko neskekin, pasatzeko. Besterik ez. Baina toki hark ez zuen goxotasun handirik eskaintzen eta Josebaren hitzek are gutxiago. Pitzatuta zirudien, alajaina! Josuk, beste askotan bezala, irtenbidea bilatu zuen.

- Ixo Joseba, ixo! Egin beharrekoa eginen diagu, baina orain hago isilik, izutu besterik ez baikaituk egiten!

Eta beste guztiei begiratu:

- Ez diezaiogun jaramon handirik egin, denok ondotxo baitakigu nolakoa den Joseba eta nolakoak diren bere istorioak. Bila dezagun toki ona kanpatzeko eta presta dezagun gure bazkaria. Bazkaltzean gure egin beharrekoak argituko ditugu-eta. Ala, mugi gaitezen denok!

Entzun eta egin. Gasteizko neska-mutilek elizatik ez urrun zegoen txoko egokia bilatu zuten eta bertan hiru kanpaina-denda eder paratu. Lehenengoan hiru bikote sartu ziren, bigarrenean beste hainbeste, eta hirugarrenean bi. Etxeetako hondakinetatik hartutako harriez sua prestatu zuten eta ordu bata aldean bertan berotutako bazkari goxoa jateari ekin zioten. Ordurako Josebaren hitzek sortutako ondoeza ahaztuta zeukaten eta txoriak baino alegerago, elkarri txantxak egiten ari ziren. Bazkaltzeko tenorerako bakoitzak tokia hartua zuen bere maitearen ondoan, eta kantu eta hitz goxoen artean bazkalondoa eman zuten.

Eguraldi ederra egiten zuen Otsate hartan eta eguzkiak bero handiz jotzen zuen. Hori dela eta, mutilak alkandora kenduta zeuden, galtza motzetan, eta neskak ere oso antzekoz. Bazkaldu bapo eta bazkaloste ederra egin ondoren, bikote bakoitzak bere tokitxo bilatu zuen kuluxka egiteko. Eta han izan ziren hitz gozo-gozoak, zirriak eta lo pausa ederrak.

Hodeik eta Aitziberrek taldearengandik urrun zegoen txoko bat bilatu zuten, aski eroria zen baserri itxurako eraikin baten aitzinean. Hodeik lekua txukundu zuen

eta xukadera zabal-zabal bat lurrean ipiniz, bertara etzan ziren bi gazteak, biak bat eginik.

- Entzun al diok goizean Josebari? Ez zirudik burutik oso ondo dagoenik. – Aitziberrek Hodeiri musutxo eta zirrien artean.

- Ez hadi kezka, beti izan dun mutil bitxi eta bakartia. Bere kontu horiekin ez zaion kasu handirik egin behar Bestela, oso mutil gisakoa (3) dun.

- Bakartia lehen izango huen, zeren eta gure koadrilako Maitena ezagutu duenez geroztik, ez baita berarengandik aldentzen. Lapa halakoa!

- Bai, arrazoa dun, Josebaren bakartasunaren kontua igarotako ura dun; orain ederki ibiltzen dun bere Maitena gerritik estu-estu helduz.

- Gerritik bakarrik?

- Ez hadi gaiztoa izan, Aitziber. Berak jakinen din zartagina nondik heltzen duen. Hori bere kontua dun eta ez gurea.

-----

Arratsaldeko bostak aldean, bost bikoteak sua piztutako tokian bildu ziren berriro, denak indarberriturik. Halako batean...

- Goazen, azter dezagun herria ilundu aurretik! – bota zuen Andonik.

- Bai, bai, azter dezagun! – erantzun zioten beste gazteek.

Egia esateko, ez zuten denbora luze behar izan herria aztertzeke. Han ez zegoen deus zutunik, zenbait etxetako paretak eta elizako horma sendoak eta kanpaina-dorrea izan ezik.

- Zergatik joan ziren hemendik bertako biztanleak? – galde egin zuen Elixabetek.

- Ez zitunan joan, izurriteek hil zitiztenan. – erantzun zion Josebak deblauki.
  - Izurriteek? – Elixabetek, arras harriturik.
  - Bai, 1860an baztangak, 1864an tifusak, 1870ean kolerak eta azkenez, 1917an izurriak bertako biztanle guztiak eraman zitiztenan.
  - Eneee! – beste gazteek.
  - Eta gu hemen ondo al gaude, hainbeste gaitz pasa ondoren? – Estitxuk.
  - Ez al da oraindik, gaitz horien arrastorik hemen, herrian, geldituko etxe abandonatu hauen artean? – Sarak.
  - Hik asko dakik hemen gertatutakoaz. – Ikerrek Josebari begira--- Konta iezaguk, otoi!
  - Gero, gero, geroxeago, afaltzeko orduan, gure lehen ikerketa burutzeko denbora egiten dugun bitartean. – ihardetsi zion Josebak misterioz ahoskatutako hitzez.
- Inork ez zuen deus gehiago esan, eta isiltasun osoz kanpamendura itzuli ziren.

-----

Ilunabarrean, bederatziak aldera edo, suaren inguruan bildu ziren neska-mutilak afaltzeko asmotan. Entsalada errusiarra eta saltxitxak. Primeran afaldu zuten. Josuk aitari lapurtutako pattar botila atera zuen eta kafearekin batera dastatu zuten. Goxoa zen, eta gure gazteek barrenak berotasun handiaz busti zituzten. Irriak eta kantuak gero eta ozenagoak ziren. Hamarrak aldera, ilargi handi bat Otsateko zeru ateriaz nagusitu zen.

- Beterik al dago? – galdetu zuen Sarak, ilargiari begira.
- Ez ilgora! – erantzun zion Andonik--- Baina aski beteta!

- Bai hala duk, hiru egun barru beteko duk! – erantzun zion Josebak--- Eta orduan egingo diagu egin beharreko ikerketako bat, agian garrantzitsuena izanen dena! – segitu zuen.

- Ene Joseba, ez gaitzak ikara! – esan zion Estitxuk, beldurrez.

- Konta iezaguk herri honi buruz dakian guztia. Konta iezaguk! – Ikerrek.

- Bai kontatu, kontatu! – errepikatu zuten beste gazteek.

Eta zenbait segundo isilik eman ondoren, Josebak Otsateari buruz zekiena kontatzeari ekin zion. Tarteka suaren xuxurlak eta urruntasunean aditzen ziren hontzen alarauek (5) entzuten ari ziren neska-mutilen beldurra areagotzen zuten.

-----

- Herri honi buruz daukagun lehen erreferentzia 1134koa da, eta badirudi garai hartan Goate deitzen zen herrixkan bakr-bakarrik hamabost lagun bizi zirela. 1557an dataturiko agiri gatean Otsate izenez deitzen zaio, baina ez dakigun arrazoa dela eta, badirudi ordurako biztanlerik gabe zegoela. 1750ean berriz populatu zuten eta dirudenez sei bizilagun soilik bizi ziren bertan, baina pixkanaka-pixkanaka eskualdeko herririk populatuenetakoa izatera iritsi zen. Gero, berriro ere, maldan behera erori zen. 1860an baztanga izurriteak Otsate herria bete-betean jo zuen, lau urte beranduago, hau da, 1864an, tifusa zabaldu zen. 1868ko azaroan, herriko gaixoak sendatzen eta herria berreraikitze lanetan kementsu aritzen zen Otsateko apaiza desagertu zen elizarako bidetik barrena zihoala. Inoiz ez zen bere arrastorik aurkitu. 1870ean kolerak izugarri zigortu zuen herria. 1917an izurria herrian nagusitu zen eta honekin batera azken biztanleak desagertu ziren.

Bitxia bada ere, aldamenean dauden Imiruri, Done Bikendi eta Angelu herrietako bizilagunek kontatzen dutenez, bai 1860ko baztangak, bai 1864ko tifusak, bai 1870eko kolerak eta bai 1917ko izurriak ere, Otsate izugarri zigortu bazuen ere,



ez zuen horrelakorik egin aipaturiko herri muganteetan.(6) Aunitzek Otsateren gainean dagoen balizko madarikazioaz hitz egiten dute.

- Ene ! Joseba, gorputzeko ile guztiak tente jartzen ari zaizkidak! – moztu zuen Estitxuk, ahots izutuaz.

- Ez moztu Estitxu ! Segi, segi Joseba, segi kontatzen! – beste gazteek, jakin-mina ase nahian.

- 1947an – segitu zuen Josebak--- Bittor Moraza baserritarrak oso argi bitxiak ikustatu zituen Otsateko zeruan, bertara hurbildu eta bi metro inguruko puxika zuri baten modukoa ikusi ahal izan zuen kanpaina-dorrearen gainean. Urte berean, tximista batek Otsateko eliza jo zuen. Inguruko herrietatik ikusi zuten eta hurrengo egunean, tximistak jotako horman Ama Birjinaren itxura gordetzen zuen medailoi moduko bat topatu zuten. 1970eko abuztuaren 20an, oso gertaera lazgarriak jazo ziren Otsaten – ordurako beldurtu samar zeuden beste gazteek ez zuten txintik ere esaten eta arreta handiaz segitzen zioten Josebaren narrazioari--- Joan Petxe nekazaria, inguruetakoz zelaietan lanean ari zela, desagertu zen inolako arrastorik utzi gabe; eta bigarren nekazari bat, F. Ameztoi izenekoa guztiz kiskalita topatu zuten. Inork ez zuen inoiz gertatutakoaren gainean argibiderik eman.

- Hau beldurra! Dagoeneko galtzetan kaka eginda nago! – moztu zuen Josebaren aldamenean izu aurpegi handiz zegoen Maitena horailak.

Josebak Maitena eskutik heldu zuen eta...

- Lasai Maitena, lasai! Ez dun ezer gertatuko! – esan zion lasaitu nahian. Gero kontatzeari ekin zion berriro.

- 1981ean, Prudentzio Muguruza ikertzaile gasteiztarrak OHE baten argazkia egin zuen Otsatetik oso gertu. 1986an, Fernando Gil ikertzailearen agindupeko hamar laguneko taldea herrira bertaratu zen zenbait azterketa egitera. Eta azterketak bukatzean egindako txostenean irakur daitekeenez, oso gauza bitxiak ikusi eta entzun egin zituzten: arrazoirik gabeko zaratak, argi bitxiak, bihotz taupadak... eta behin, dorrean bakarrik zegoelarik, norbaitek bizkarrean ukitu zuela sumatu zuen Fernando Gil berak.

Hori esatean, garrasi luze batek Josebaren kontraera moztu zuen:  
Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!! Elixabet zen.

- Nork ukitu nau bizkarrean? Hi izan al haiz? – atzean zeukan Andoniri begira.

- Ez, ez, ez! Ni ez naun izan! Sinisiezadan otoi! – Andonik, gorri-gorri eginda.

- Horrelako txantxarik ez, Andoni! – erantzun zion Elixabetek beldurraren eta haserrearen artean.

- Baina ni ez naun izan, Elixabet! Bestela esango ninan! – Andonik, bere errugabetasuna garbi utzi nahian.

- Ixo, ixo!!! Isilzaitetze biak behingoz! – besteek--- Eta utziezazozue Josebari bere historia amaitzen.

- 1987an, – segitu zuen Josebak misteriozko ahotsa jarriz--- Armadako bi talde Arakako (Gasteiz) egoitzaatik atera eta Otsatetik gertu maniobrak egitera zihoazela, behe-laino trinko batek estali zituen eta han ibili ziren, lau bat orduz, gauean galduta. Elkarrengandik hirurehun metro eskasera zeuden arren, ez ohiko zerbaitek beraien arteko komunikazioa eragozten zuen. Erabat beldurtuta itzuli ziren Arakako koartelera.

- Gu ere, horrela gaude, erabat beldurtuta! – moztu zuen Josuk.

- 1987an – segitu zuen Josebak, Josuren hitzei entzungorrena eginez--- “Zergatik dago atea itxita?” zioen psikofonia grabatu zuten Otsaten. Egun berean, autoetara itzultzean, psikofonia egin zutenek autoetako batean zain zeukaten Alberto Fernandez laguna hilik topatu zuten.

- Eta ez dela ezer gertatuko, diok? – moztu zuen Sarak.

- Ixo, ixo!!! – besteek.

- Handik zenbait hilabetera – Josebak, narrazioaren ildo berrir harturik--- psikofonia egiten ibilitakoak Otsatera itzuli ziren eta gau batean dorrearen ondoan, negarrez ari zen Alberto Fernandez gorpuzkera zuen mamua ikusi omen zuten. 1987an, Mikel Colmenero telebista ekoizle gasteiztarak, Otsatetik barrena autoz

zihoala, gizaki itxurako bi gorputz luzexka ikusi zituen. Momentu hartan autoa matxuratu zitzaion eta kasetean zeraman zintak Ni banago! zioen ahotsa grabatu omen zuen. Iker Jimenez kazetari arabarrak liburu bat idatzi zuen Otsateri buruz, eta orduz geroztik, asko dira herri honetara era guztietako ikerketak egitera hurbiltzen direnak, eta entzun dudanez, baita euren erritualak egitera etortzen diren sektak ere.

- Eneee! Bukatu al duk? – esan zion Hodeik--- Hori bakarrik falta zitzaigun orain, sekta batekin topo egitea.

- Ez genuen hona etorri behar. Mundua leku ederrez beterik dago, eta guk hona etorri behar. Hurrengoan Joseba, ez kontatu nirekin! – Elixabetek.

Hamabiak laurden gutxitan, Joseba magnetofonia prestatzen hasi zen, eta hamabietan, puntu-puntu, aldameneko herrietako kanpaina-dorreak ordua ematen hasi zirenean, gazte koadrila osoa, isil-isilik, Josebaren eta bere magnetofoniaren inguruan zirkulu bat eginez, eseri zen. Josebak agindua ematean, eskuak elkarri eman zizkioten eta gisa horretan zirkulua itxi zuten. Inork ez zuen txintik ere esaten. Ezkilak isiltzean, Josebak magnetofoniar ezarririk zuen zinta birjina ireki eta galdera bitxiak egiteari ekin zion:

- Gabon Otsateko lagunak, gabon! Mesedez, ez hartu gaizki gure presentzia; ez gara zuen bakea asaldatzera etorri, egia jakitera, eta ahal izanez gero, zuei laguntzera baizik. Baina horretarako zenbait galdera egin behar dizuegu. Otoi, erantzun iezaguzue! Gure artean al zaudete? Entzuten al diguzue? – galdetu zuen ahots solemneaz.

Inork ez zion erantzun. Gazteek elkarri begiratzen zioten beldurra ezin ezkutatu. Zirkuluaren erdian, Joseba eta bere magnetofoniaren ondoan, piztuta zeukaten suak gazteen aurpegietan ikus zitekeen izua areagotzen zuen.

- Entzuten al diguzue? – errepikatu zuen Josebak, temati--- Horrela bada, emaguzue seinale bat!

Momentu horretan ondoan zeukaten San Migel elizako kanpai-dorrean hontz ba uhuluka hasi zitzaien:



- Eta zer nahi duzu? – Josebak.

- Itxi atea, itxi atea! Hotzak gaude! Itxi ateak, hotzak gaude-eta! – itzalak ahots etenaz erantzun zuen.

- Bai, itxiko dugu! – baieztatu zion Josebak.

Hori entzutean, itzala dorrera sartu eta desagertu zen. Ondoren, gazteak altxatu ziren eta kanpamendura itzuliz, lo-zakuetan sartu. Gau hartan loak ez zuen gazteetako inor hartu.

-----

Uztailaren 3a, asteartea.

Hurrengo egunean, hau da, asteartean, berandu jaiki ziren eta hitz askorik gabe, gosaltzeari ekin zioten. Denen buruetan gauean gertaturikoa zegoen, bertatik ezin aldentuz. Nor izan zen Maria Egozkue? Zer nahi zuen bere mamuak? Zergatik eskatzen zuen atea ixtea? Auskalo!

Hala-hola eguna pasatu zuten, baina ez lehen eguneko euforiaz. Animuak dezente jaitsita zeuden. Ilunabarrean suaren inguruan afaldu zuten eta Josebari gau hartan halako ikerketarik ez egiteko eskatu zioten, bezperan jasandako izua oraindik aski barneratuta baitzeukaten. Tregoa baten beharra zeukaten, eta Josebak, gogoaren kontra bazen ere, onartu zuen.

- Ixo, ixo, begira ezazue han goian, zeruan, urruneko izar haien parean! – esan zuen urduri samar, aurrez aurre, urrutitasunean ikus zitekeen bospasei izarretako multzoa seinalatuz.

Gazte guztiek Unaik azaldutako tokirantz begiratu zuten, eta izarren artean, beraingana hurbiltzen ari ziren hiru argi handi ikusi zituzten. Gero eta handiagoak

ziren, eta gero eta hurbilagoak zeuden. Zenbait minutu igaran ondoren, Otsate gainean zeuden. Gure lagunak, arrunt ikaraturik, elkarrengana bildu ziren, haragizko pilota moduko bat eginez. Hiru objektuak gainean zeuzkaten, zeruan, geldi-geldirik. Ikaragarri handiak ziren, biribilak eta argitasun zuri trinko batez inguratutakoak. Horietako batetik, argi-izpi zabal eta iraunkor bat atera zen, eta gure lagunengandik bost metrora-edo zegoen San Migel elizako kanpai-dorrera iritsi. Argi hura eskailera argitsu modukoa zen, edo gutxienez, horrela iruditu zitzaion gure gazte jendeari. Gauza da, argi hartatik hiru gizontxo bitxi jaitsi zirela. Ttiki samarrak ziren, buru handia zeukaten eta hanka-beso labur eta meheak. Hasieran, kanpai-dorrera sartu baziren ere, berehalaxe, gazteengana zuzendu ziren. Hauek pilotatxo bat eginik segitzen zuten, galtzetan kaka eginda. Eta metro batera zeudelarik, beraietako bat, ahots metaliko batez, mintzatzen hasi zitzaien.

- Lagunak, kasu eman ezazue ilargi beteaz, kontuz ibil zaitezte ilargi beteko gauaz! Itxi ezazue atea, eta gero, alde hemendik lehenbailehen, Otsate gainean dagoen madarikazioak ez zaitzaten harrapa! Otsoen eta izuen atea ixtean, giltzatu ezazue eta gero ospa, berandu baino lehen! Baina ez ahantzi atea giltzatzten. Ez aldendu Otsatetik atea giltzatu gabe, bestela, zuen azkena izango da!

Eta hori esatean, eskua luzatu zigun giltza handi bat eskainiz. Josebak, beste gazteen artetik atereaz, giltza hartu zion. Ondoren, hiru gizontxoak objektu argitsuetara igo ziren jaisteko erabilitako argi-izpi berberetik, eta minutu zenbait igaro ondoren, hiru objektu argitsuak bertikalki igo ziren zerura, izarren artean galduz.

Gau hura aurrekoa baino gogorragoa izan zen gure lagun gazteentzat. Loa alde egina zegoela zirudien. Nekatuta zeuden, akituta (8), baina loak kostata hartzen zituen; eta tarteka, baten bat lotan gelditzen zenean, amets gaiztoak bere barrenaz nagusitzen ziren. Denak ziren mamuak eta zerutik etorritako gizontxoak neska-mutil haien ametsetan, eta garrasika esnatzen ziren, behin eta berriro. Horrela, egoera penagarri hartan eman zuten astearteko gaua.

-----

Uztailaren 4a, asteazkena.

Hurrengo goizean berandu samar altxatu ziren. Begi-zulo handiak zituzten eta aurpegietan nekearen eta izuaren markak nabarmen ikus zitezkeen. Animu handirik gabe eman zuten eguna. Gizontxoak garbi esan zien ilargi beteko gauarekin kontuz ibiltzeko, baita ate misteriotsu bat ixteko eta berak emandako giltzaz ongi giltzatzeko. Otsaten emandako hirugarren egun hura asteazkena zen, eta ilargia osteguneko gauean betetzekoa zenez, ordura arte itxoitea erabaki zuten, gizontxoek esan bezala.

Gauean, afaldu ondoren, lozaketan sartu eta hitz handirik gabe, lo egiteari ekin zioten. Oraingoan, nekea zuten lagun, eta segituan Ingumaren (9) erresumara igaro ziren. Gaueko ordu ttikietan garrasi luze eta lazgarri batek esnatu zituen. Aitziber zen.

- Zer dun Aitziber? Zer gertatzen zain?

- Norbait gainean jarri zait!

- Hodei izango zunan neska! – besteek, barrezka.

- Ez, ez! Ez zen Hodei, Hodei nire ondoan zegoen lotan. Beste norbait izan da, ikusezin zen beste norbait. Bere pisuaz esnatu naiz eta nire gainean zegoen itzal moduko bat ikusi ahal izan dut.

- Begira, begira itzazue gure gainean! – moztu zuen Maitenak, ahots dardaratiaz.

Gure lagunek, Maitenak eskatu bezala, gora begiratu zuten eta horrela ikusi ahal izan zituzten beraien gainetik, alde batetik bestera, hegaka zebiltzan hamar bat itzal handi.

Korrika lozakuetatik atera eta hurbil zeuzkaten bi autoetan babestu ziren. Pizteko ahaleginak egin bazituzten ere, ez zen modurik izan autoak martxan jartzeko eta bertan sartuta, asteazkeneko gauaren azken orduak eman behar izan zituzten. Tarteka, itzal haiek autoekin talka egiten zuten eta ibilgailuak kili-kolo mugitzen uzten zituzten. Behin baino gehiagotan, iraultzeko zorian izan ziren.

-----

Uztailaren 5a, osteguna.

Azkenean, goizaldiaren lehen argiekin batera, osteguna etorri zen. Egun ederra, eguzkitsua zen, baina gure lagunak ez zeuden eguraldiaren onuraz gozatzeko moduan. Eguna hala-hola pasa zuten eta ia-ia ez zuten ahora eramateko mokadurik. Han ez zegoen umorerik deusetarako. Baina ate hura giltzatu beharra zeukaten, eta horren zain zeuden. Ez zuten beste biderik.

Gaua iritsi zelarik, bost bat auto etorri ziren herrira, eta gure lagunenen ondoan aparkatu. Beribiletatik beltzez jantzitako hogeitatu bat gizon-emakume jaitsi ziren. Beraien janzkerak gaua bezain ilunak ziren. Gizonezkoek buruko ilea moztuta zeukaten eta emakumezkoek motz-motza. Lepotik zintzilik, den-denek domina moduko bat zeramaten eta bertan ilargi bete baten erdian giltza bat ikus zitekeen. Giltza hura zen gizontxoak Josebari emandako berbera. Euskaldunak ziren, eta gure lagunengana joanez, Ilargi Handiaren sektakoak zirela azaldu zieten. Gau hartan Otsoen eta Izuen Atea ixtera etorriak omen ziren, baina horretarako lehenago giltza xerkatu beharra zeukaten. Josebak gauean beraiekin izango ginela eta giltzarena gure kargu uzteko esan zien. Sektakoek ulertu zuten antza.

Gaueko hamabiak aldean, bai Ilargi Handiko sektakoak eta bai gure lagun gazteak San Migel elizako kanpandorre aurrean eseri ziren hiru zirkulu kontzentriko handi eginez, eta erdi-erdian, suaren ondoan, haien buru zen gizona eta Joseba kokatu ziren. Eskuak elkarri helduz zirkuluak itxi zituzten. Zeru goian ilargi bete-



betea, zuri-zuria zen nagusi. Sekta-buruak erretolika (10) luze bati ekin zion, latinez hasieran eta euskaraz gero. Otsateko espirituei dei egin zien eta Otsoen eta Izuen Atea non zegoen erakusteko eskatu. Ondoren, beraiekin zeramaten axuri bat sakrifikatu zuten, eta zurezko kaiku batean odola bildu. Odol harekin eta zenbait belar eta isurkirekin edabe moduko bat egin zuten, eta ondoren eskuz esku eta ahoz aho pasa zuten, hiru zirkulu kontzentrikoetan zeuden guztiek edan zezaten. Gazteek ere, nazka handiz baina, edan behar izan zuten.

Hamabietan, inguruko herrietako kanpaiak dilin-dalan hasi zirenean, San Migel eliza birrinduaren aurreko aldean, garai batean horma izan zen tokian, burdinazko atetzar bat ikusi ahal izan zuten. Bertatik haize bortitzak, heiagora (11) beldurgarriak eta otso ululariak etengabeki irteten ziren. Beldurra gure lagun bihatze erro-errotik nagusitu zen. Hala eta guztiz ere, inor ez zen bere tokitik mugitu eta giza zirkulu kontzentrikoek, euren partaideen eskuez, itxirik segitzen zuten.

Burdinazko atetzarraren buruan zizelaturiko mezua irakur zezaketen: Otsoen eta Izuen Atea, eta mezuaren azpian bazen Ilargi Bete bat eta bere gainean Josebak poltsikoan gordetzen zuen giltza berbera irudikatzen zituen marrazkia. Ez zegoen inolako zalantzarik, hura zen giltzatu beharreko atea. Ate zabal hartatik irteten ziren otso, zurrumbilo eta bestelako izakiak herrian zehar mugitzen ziren. Otsoak giza biribiletatik gero eta hurbilago zebiltzan eta itzalak ere, aski gertu. Beldurra zen hango guztien bihotzetan nagusi, baina horrela, eskutik helduta eta zirkuluetan eserita zeuden bitartean, babestuta zeudela iruditu zitzaion hango guztiei. Hori jakinki, horrela jarraitzen zuten, tinko baina ikarak bihotza janda.

Halako batean, sekta-burua altxatu zen eta Josebari begira agindu zion:

- Mugi hadi! Orain duk hire aukera. Itxi eta giltza ezak ate hori betiko!

Joseba ere, altxatu zen eta eskua eskuineko sakelan sartuta, gizontxoak emandako giltza atera zuen. Giza biribil hirukoitzetik irten eta ate alderantz abiatu zen. Bospasei pauso, besterik ez ziren eman beharrekoak, baina zailtasunez josiak. Bat-batean, airezko zurrumbilo horietako bat gainean jarri zitzaion eta lurrera bota. Giltza eskutik lurrera jausi zitzaion. Momentu horretan otsoetako bat hurbildu zitzaion giltza kendu nahian, baina Josebak, aldamenean ikusi zuen adaxka bat

hartuta, aurre egin zion eta giltza berreskuratu ahal izan zuen. Jauzi azkar batez, ate aurrera iritsi zen, atea itxi eta giltza sarrailan sartuta giltzatu zuen.

Une zehatz hartan soinuak, otsoak, itzalak, zurrunbiloak eta bestelako guztiaz desagertu ziren; eta gero eta ozenago egiten zen txistu zorrotz etengabe moduko bat hasi. Hango lagunen buruak lehertzen ari ziren, indarrak akitzen ari zitzaizkien, eskuak askatzen, konortea galtzen...

-----

Uztailaren 6a, ostirala.

Goizeko lehen orenetan, gure gazteak, pittaka-pittaka, esnatzen hasi ziren. Altxatu zirenean, beraiek bakarrik zeudela konturatu ziren, beste inor ez zegoen, ez sektakorik, ez inor. Den-dena amets kolektibo izan zela pentsatzen hasita zeudenean, Elixabetek gertatutakoaren frogak topatu zituen.

- Begira ezazue hemen! – esan zuen, su baten azken arrastoak seinalatuz---  
Hemen daude sektakoek erretako axuriaren hezurak!

- Beraz, ez da ametsa izan! – Unaik.

- Ez, ez, dudarik gabe, dena errealitatea izan da! – baieztatu zuen Josebak, burumakur.

- Begira ezazue hor! – bota zuen Estitxuk, arras asaldatuta, eta beraien autoen ondoan zeuden beste ibilgailuek utzitako ildoak seinalatuz.

- Ez dago dudarik! Ez da amets gaizto kolektiboa izan! – Hodeik.

- Goazen, lehenbailehen hemendik! – Ikerrek.

- Bai, berandu baino lehenago! – erantsi zuen Sarak.

Esan eta egin. Gure lagunak lozakuak, janari tresnak eta bestelakoak amen batean bildu, autoetara sartu, eta ziztu bizian, Otsatetik aldendu ziren. Otsatetik Gasteizera egin beharreko hamabost kilometroetan, inork ez zuen deus esan, guztiak isil-isilik zihoazen, baina denek zeramaten buruan, bizi-bizirik, herri abandonatuan jazotakoa, eta oso bereziki, atetzar hartan irakurritakoa: OTSOEN ETA IZUEN ATEA.

## SAN FERMIN EGUNEKO METEORITOA

2075.eko uztailaren 7an gaude, eta san Fermin eguna izateaz gain, bestelako ospakizun batek astintzen du euskal geografia bere luze-zabal osoan; egun horretan ospatzen baitute euskaldunek 2025ean lortutako independentziaren 50. urteurrena. Euskal Herri osoa besta bat da. Iruñeko kaleak jendez gainezka daude, eta mundu osotik etorritako turistek presentzia inoiz baino nabarmenagoa da. Munduko bazter guztietatik etorritako ordezkariak politikoa Iruñeko Euskal Gobernuaren egoitzan bilduta daude aipatutako urteurrena ospatzen. Denek txapel eta zapi gorria jantzirik daukate. Iruñeko kaleek mitxoletaz josiriko soroak ematen dute. Nazio aunitzek euren telebista-kamerak igorri dituzte, euskaldunek, San Ferminekin batera, burutu behar dituzten ospakizunetara. Ospakizun ofizialak, gehienbat, hiriburuan, hau da, Iruñean gauzatuko badira ere, bestelako ospakizunak beste sei hiriburuetan eta beste zenbait hiri handitan ere egitekoak dira.

Independentzia erdietsi eta igarotako berrogeita hamar urteak guztiz emankorrak izan dira euskaldunentzat. Errepublikak zibila da eta bere ekonomia Europako eta mundu osoko aurreratutakoena. Gainera, lortutakoa oso ondo banatzen jakin dute. Euskara guztiz berreskuratua daukate eta hori da kaleko eta administrazioko hizkuntza bakarra. Dena den, eta oso hezkuntza sistema egoki bati esker, biztanle guztiek, euskaraz gain, beste hiruzpalau hizkuntzez mintzatzen dira eta honek munduko ate guztiak zabaldu dizkie.

2075eko uztailaren zazpi hartan, dena biltzen zen: independentziaren 50. urteurrena, San Fermin besta eta gainera, gutxi balitz bezala, arratsaldeko bostetan Euskal Herriko futbol selekzioak Espainiakoaren kontra Erroman jokatu beharreko Munduko Futbol Koparen finala. Euskal jendea zain zegoen, Euskal Herria festaren eromenean murgil zezakeen partidu horren emaitzaren zain. Milaka lagun Erromara joanak ziren eta ordurako Hiri Eternala ikurrinez eta euskal kantuez gainezka zegoen.

Baina egun hura ez zen festa euskaldun guztientzat. Baziren lanean ari ziren lagunak, beraien artean Bizkaiko Itsasoan arrantzan zebiltzanak. Mattin Uranga kapitaina zen horietako bat. Bera eta bere mutilak lanean ari ziren gogor. Han

zeuden itsaso zabalean, baina euren bihotzak Euskal Herrian zeuden, Euskal Herrian eta baita Erroman ere.

Goizaldeko lehen orduan ziren eta lanari ekiten zioten bitartean, ama-lurrarekin lotzen zituen irratia piztuta zeukaten. Zuzen-zuzenean, Iruñeko berriak ematen ari ziren. Bat-batean, irratsaioa moztu zen eta esatariak, ahots larriaz, honela esan zuten:

- Baionako ortzi-behatokitik komunikatu digutenez, kilometro bateko diametroa duen meteoritoa guregana hurbiltzen ari da, eta eguerdirako gurera eror daiteke. Euskal Gobernuak emergentziazko batzorde bat eratu du, eta bertatik esan digutenez, Segurtasuneko Sailekoekin harremanetan daude arriskua saihesteko. Badirudi egoera kontrolpean daukatela eta meteoritoaren talka ekiditeko modua badela. Hori dela eta, Euskal Gobernuak San Ferminak eta independentziaren 50. urteurrena ospatzeko prestaturik zeuden ospakizun guztiekin jarraitzeko asmoa agertu du. Halaber, Euskal Herriko biztanleriari lasaitasuna eta orain arte bezala, naturaltasun osoz, jarrai dezan eskatzen dio.

- Ene Mattin, entzun al duzu? – esan zion kapitainari ondoan zeukan Aitor arrantzaleak.

- Bai, Aitor, baina ezin diagu ezer egin egoera aldatzeko, eta eskatu zaiguna eginen diagu, hau duk, gure lanean jarraitu.

Eta ezinbestean, horrela egin zuten.

Handik ordubetera irratia mezua berria eman zuen aditzera.

- Buru nuklear bana daramaten hiru misil jaurti dituzte Bilboko ortzi-egoitzaatik.

Eta hamabost minutu beranduago:

- Bilboko ortzi-egoitzaatik komunikatu digutenez, hiru misilek huts egin dute. Eta hori dela eta, Gasteizko ortzi-egoitzaatik bi gehiago jaurti dituzte.

Euskal Herri osoan isiltasuna egin zen, denak misil salbatzaile haien zain baitzeuden. Mattin Urangaren itsasontzian egoera bera zen, isiltasuna nagusi. Zenbait minutu beranduago komunikatu berria entzun ahal izan zuten:

- Gasteizko ortzi-egoitzatik komunikatu digutenez, lehen misilak huts egin du eta orain itxaropen bakarra bigarren misila da.

Euskaldun guztiek bihotzean zimiko bat sumatu bazuten ere, inork ez zuen txintik esan, eta irratitari lotuta jarraitu zuten albiste hobeen zain. Bat-batean, zeruko urruntasunean eztanda ttiki bat ikusi zen eta irrastian honako berria entzun:

- Jaun-andreok, bigarren misilak helburua lortu du, eta gure ortzi-behategietako zientzialariek frogatu ahal izan dutenez, meteorittoa desbideratu eta momentu hauetan ortzi zabalerantz urruntzen ari da. Beraz, dagoeneko, arriskurik ez dago. Lehendakariak eta gobernu osoak Euskal Herria zoriondu nahi du erakutsitako adore eta zibismoagatik, eta denbora berean, gonbidatzen zaituzte biztanle oro, gaurko festa eta ospakizunekin jarraitzera. Gora San Fermin! Gora Euskal Herri askatua! Eta Gora Euskal Futbol Selekzioa!

Azken aldarriak entzutean, Euskal Herri osotik oihu ozen bat altxatu zen, eta jendeak, indarberriturik, festari berrekin zion: txupinazoa, lehen entzierroa, kontzertuak, kantaldiak, dantzaldiak... eta bestelako ospakizunak, bata bestearen atzetik, etorri ziren eta mundu osoko komunikabideek eman zuten horren berri.

Eta arratsaldea etorri zen. Erromako giroa pil-pilean zegoen. Euskal futbolariek grinatsu ekin zioten eta azkenean, emaitza: Euskal Herria bost – Espainia zero. Huraxe izan zen egunaren momenturik gorena. Emozioak euskaldunen bihotzetan metatu ziren, eta askoren masailetatik malko sentituak irristatu. Zalantzarik gabe, egun hura ahaztezina izango zen garaiko euskal herritar guztientzat, baita hurrengo belaunaldietakoentzat ere.

-----

Gizateriaren luze-zabalean pasadizo eder aunitz gertatzen diren arren, egileak, oraingo ipuin liburu honetarako, Euskal Herria hartu du ardatz gisa, liburuaren orrietan aitortzen digunez, euskal mundua delako hobekien ezagutzen duena eta bihotzean barru-barruan daramana. Ipuinak atzoko, gaurko eta biharko garaietan agitzen dira. Pertsonaiak gure historiatic, gure mitoetatik edota eguneroko bizimodutik sortuak dira: baserritarrak, fraide-zaldunak, soldadu karlistak, pilotariak, arrantzaleak, sorginak, kontrabandistak, gaurko neska-mutil gazteak... Euskal Herria ez dute mapetan agertzen, baina ikusten duzun bezala, izena duena bada.

-----

Joseba Aurkenerena Barandiaran. 1956an jaiotako gipuzkoarra da, aspaldian Lapurdiko Urruñan bizi dena. Lanbidez irakaslea da Irungo Txingudi Bigarren Hezkuntzako Institutuan, eta zaletasunez, beste arlo askoren artean, idazlea. Ama ataundarra dauka, eta sehaskatik lotura handia eduki du euskal mitoarekin. Hori dela eta, gure mitologiak presentzia nabarmena hartzen du bere liburuetan. Ipuingintzan hauek dira plazaratu dituen liburuak: Lezoko ipuin inoizkoak (1997), Harribeltzetaren trilogia osatzen duten Harribeltzetako ipuinak (2001), Makurmendiren magalean (2002) eta Harribeltzeta nire gogoan (2004) izeneko liburuak; eta gaurko euskal gizartea modu umoretsuan islatzen duen Hodei ororen azpian (2005).

Bestela ere, baditu beste zenbait liburu plazaratuta: Euskal sinesmen zaharrak (1999) saiakera, beste bi lagunekin jorratutako hiztegi bereziak: Irainka. Euskal irainen bilduma eta Haur hizkera – biak 1999an kaleratuta---; eta horrez gain, Iparraldeari buruzko bi kronika-liburu: Iparraldeko kronikak (2003) eta Iparraldean gaindi (2006).